

12

Azterlan eta txostenen Bilduma

Lurraldeen arteko
desorekak EAE-n
krisi
ekonomikoaren
testuinguruan



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

AURKIBIDEA

1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA	2
1.1. Hitzaurrea eta helburuak	2
1.2. Metodologia: eskualdeen banaketa, iturriak eta adierazleak	3
1.3. Txostenaren egitura eta datuen aurkezpena	8
2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	10
2.1. Eskualdeen arteko desberdintasunak egitura demografikoari dagokionez.....	10
2.1.1. Egitura demografikoa	10
2.1.2. Populazioaren mugimenduak	13
2.1.3. Ikasketa maila.....	17
2.2. Egitura produktiboaren eta lan-merkatuaren inguruko eskualdekako desberdintzaunak	19
2.2.1. BPGd-a eta lehiakortasuna	19
2.2.2. Lan-merkatua	25
2.2.3. Enpresa-sarea eta -dinamismoa	32
2.3. Eskualdeen arteko desberdintasunak populazioaren bizi-baldintzei dagokienez.....	38
2.3.1. Errenta eta pobrezia	38
2.3.2. Gizarte prestazioak eta gastu publikoa	43
2.3.3. Osasuna eta segurtasuna	47
2.3.4. Etxebizitza	52
2.4. Eskualde bakoitzaren bereizitasunak	55
2.5. Adierazleen sakabanaketa eta eskualdeak bateratzea.....	63
2.5.1. Eskualde Sakabanaketaren Tasaren (EST) definizioa eta interpretazioa	63
2.5.2. Eskualdeen arteko desberdintasunen azterketa	63
2.6. EAEko eskualdeen arteko desoreken gaineko Etengabeko Panela	67
2.6.1. Panelaren osaera	67
2.6.2. Azterturiko hamaika eskualdeen egoera.....	72
3. ONDORIOAK	74
4. ERANSKINAK	78
4.1. Adierazleen taulak eskualdeka	78
4.2. Adierazleen fitxak	90
4.3. Udalerrien zerrenda eskualdeka	195

1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1.1. Hitzaurrea eta helburuak

Mundu mailan 2008. urtean hasitako krisi ekonomikoak Europa osoa astindu du, baina eragin ezberdina izan du herrialdeetan eta eremu geografikoetan, hainbat faktoreren arabera, haien egitura produktiboa eta demografikoa edo gizarte babeserako ereduaren arabera esaterako. Era berean esan daiteke ezen, krisi ekonomikoaren eragina Euskal Autonomia osoan orokorra izan bada ere, krisiaren eraginak ez direla berdintsuak izan eskualde edota lurralde eremu guztietan (bestela, egungo krisia baino lehen, desoreka edo desberdintasun oso esanguratsuak ziren populazioaren egituraren, ekonomiaren dinamismoaren, egitura produktiboaren edota zenbait zerbitzu publiko eskuratzearen ikuspegitik). Hala, gaur egun esan daiteke EAeko zenbait lurralde krisiaren eragina bereziki jasaten ari direla eta, haien izaera ekonomikoa eta soziala dela-eta, etorkizun zailagoa dutela hobetzeko. Beste batzuetan, aldiz, aurreko enplegu maileri neurri handiagoan eusteaz gain, bilakaera hobea duten adarretan metatzen dute jarduera, eta hasiera batean behinik behin, igurikapen hobeak daude haien inguruan.

Testuinguru horretan, egungo egoera ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeei zein neurritan eragin dien jakitea da honako txosten honen xedea, baita gaur egun -krisia hasi zenetik sei urte igarotakoan- Euskadiko lurraldeen artean desoreka nagusiak zein diren ere egitura demografikoaren eta produktiboaren, lan-merkatuaren eta bizi-baldintzen aldetik. Txosten honen helburu orokorra, beraz, diagnostiko kuantitatiboa egitea da argi eta garbi -eskuragarri ditugun estatistika-iturri nagusietan bildutako funtsezko zenbait adierazletan oinarrituta-, baita krisi ekonomikoaren testuinguruan EAeko lurraldeen artean dauden desoreken eta, bereziki, euskal eskualdeetan krisiak izan duen eragin ezberdinaren gaineko azterketa ere.

Funtsezko helburu hori oinarri hartuta, hauexek lortu nahi ditu txostenak:

- EAeko eskualdeen errealitatea hobeto ezagutzea, haien giza eta ekonomi ezaugarri nagusiak laburbilduta aurkeztuta, betiere eskuragarri dugun estatistika-informazioa baliatuz. Horretarako, hainbat estatistika-iturritatik eta administrazio-erregistroetatik lortutako adierazleen plana landu da, non, azterturiko eremuetan EAeko eskualde bakoitzak duen egoera ez ezik, eskualde bakoitzak krisi ekonomikoa hasi zenetik izan duen bilakaera ere bildu den.
- Eskualdeen egoera eta eskualdeek EAeren testuinguruan duten posizioa gaur egun zehazten den profila ezartzea, betiere azterturiko alderdiei dagokienez.
- EAeren baitan eskualdeen arteko desberdintasunak zein neurritan eta zein alderditan handitu diren aztertzea eta krisiak aurretik zeuden desorekak areagotu dituen zehaztea honako faktore hauen arabera: egitura demografikoa, lan-merkatua, egitura produktiboa, dinamismo ekonomikoa eta bizi-baldintzak.
- Eskuragarri ditugun estatistika-adierazleak oinarri hartuta egoera hoberenean dauden eskualdeak eta egoera hobe horretarako zioak zehaztea, hots, egungo egoerari abantailarekin aurre egitea ahalbidetzen dieten indarguneak.

1.2. Metodologia: eskualdekotzea, adierazleak, iturriak eta mugak

a) Lurraldearen eskualdekotzea

Honako azterlan honen eremu geografikoa eskualdea da, zeren eta eskualdeek, egitura produktiboaren eta enpresaren egituraren aldetik nahiz bizi-baldintzen aldetik, beren ezaugarriak baitutuzte, eta ezaugarri horiek udal errealitatea gainditzen duten beren nortasuna eta bereizitasunak ematen dizkie. Alabaina, alde horretatik gogoratu beharra dago informazio estatistiko edo administratibo garrantzitsua sortzen duten hainbat erakundek eskualde edo udal mailan ematen dutela informazioa eta Lurralde Historikoa izaten dela informazio estatistikoa ezagutarazteko lurralde-unitaterik ohikoena. Gainera, datuak eskualde mailan banakutzen edo lortzen direnean, eskualde-sailkapen ezberdinak erabiltzen dituzten iturriek, eta osotasunean ez datoz bat haien artean. Ildo horretan, gogoratu beharra dago ezen, administrazio-erregistroetako informazioa udal mailan banakatu badaiteke ere, inkesta hori oinarri hartuta lorturiko adierazle gehienek lagin jakin batzuk izaten dituztela abiapuntu eta, oro har, esanguratsuak dira eskualde maila jakin batean, baina maila txikiagoan ezin banaka daitezke edota ezin aplikatu daitezke beste eskualde-banaketa batzuetan.

Erakunde hauek erabilitakoak dira aztergai dugun azterlanerako EAEko eskualdekotze garrantzitsuak:

- EUSTATEk 20 eskualdetan banatu ohi du EAE (ikus honekin batera doan taula). Eskuragarri ditugunetatik eskualde-banaketa zabalena da. Lurralde maila horretan eskaintzen diren datuak, oro har, udal zentsuetan eta erregistroetan oinarritzen dira eta, beraz, beste eskualdekotze batzuetan taldekatu daitezke.
- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, bestalde, hamaika eskualde handi edo "enplegu-sorleku" bereizten ditu bere Lan-merkatuaren Zentsuetan (aurrerago ikusiko dugunez, azterlan honetarako iturri garrantzitsuetako bat), eta era berean, beste eragiketa batzuetan ere erabiltzen dira hala nola Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestan. Eskualdeon eraketari esker, EUSTATEn 20 eskualdeak 11 eskualde horietara ekar daitezke, zeren eta, berez, aurreko 20 eskualdeen taldekatzea baita. Halaber, Lan-merkatuaren Zentsuaren informaziorik garrantzitsuena udalerrri handiagoen eskura dago, "azpieskualdeak" deritzenetatik eginiko bigarren banakapena oinarri hartuta.
- LANBIDEK, 2011-2014ko Enplegurako Euskal Estrategiaren ondoriozko eskualdeetako enplegu-planak bultzatu nahian, 30 eskualdetan banatzen du EAE¹. Hori ez dator bat zuzenean EUSTATEn eta Eusko Jaurlaritzaren sailkapenekin, baina garrantzizkoak gerta daitezke gai jakinen bat aztertzeke, udalen datuen eransketa oinarri hartuta betiere.
- Bestalde, 7 eskualde bereizten ditu EAEko Osasunaren Inkestak: Araba, Gipuzkoako Mendebaldea, Gipuzkoako Ekialdea, Barnealdea, Ezkerraldea / Enkarterriak, Uribe eta Bilbo. Horietatik guztietatik soilik Bilbokoa da beste sailkapen batzuekiko konparagarria, Eusko Jaurlaritzarenarekin adibidez. Gainerako eskualdeak udalerrri ezberdinekin daude osatuta kasu bakoitzean.

Jarraian, EUSTATEn eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-eragiketen arteko eskualde-banaketa baliokidetzatza-aula ageri da:

¹ Ikusi 2012ko maiatzaren 9ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Eskualdeko Enplegu Planak dinamizatzeko laguntzen deialdia egin duena

1. taula. EAeko estatistika-iturri nagusiek erabilitako eskualdeketzea

EAeko eskualdeak				
Lurralde histori-koak	Eusko Jaurlaritzza		EUSTAT	
	Eskualdeak	Azpieskualdeak		
ARABA	1. Gasteiz	Gasteiz	1. Arabako Lautada	
		Arabako Lautadako gainerakoa		
		Arabako Mendialdea		2. Arabako Mendialdea
		Arabako haranak		3. Arabako haranak
		Arabako Errioxa		4. Arabako Errioxa
	2. Aiara	Laudio	5. Kantauri Arabarra	
Kantauri Arabarreko gainerakoa Gorbeiako inguruak		6. Gorbeiako inguruak		
BIZKAIA	3. Eskuinaldea	Getxo	7. Bilbo Handia	
		Leioa		
		Erandio		
		Eskuinaldeko gainerakoak		
	4. Bilbo	Bilbo		
	5. Ezkerraldea	Barakaldo		
		Basauri		
		Galdakao		
		Portugalete		
		Santurtzi		
		Sestao		
	Ezkerraldeko gainerakoak	8. Enkarterriak		
	6. Bizkaiko Kostaldea	Plentzia-Mungia		9. Plentzia-Mungia
		Gernika-Bermeo		10. Gernika-Bermeo
		Markina-Ondarroa		11. Markina-Ondarroa
7. Durangaldea	Durango	12. Durangaldea		
	Durangaldeko gainerakoa			
	Arratia-Nerbioi		13. Arratia-Nerbioi	
GIPUZKOA	8. Donostialdea	Zarautz	14. Urola Kosta	
		Urola Kostako gainerakoa		
		Donostia	15. Donostialdea	
		Errenteria		
		Donostialdeko gainerakoak		
	Hondarribia	16. Bidasoa Behea		
Irun				
9. Tolosa-Goierri	Tolosaldea	17. Tolosaldea		
	Goierri	18. Goierri		
10. Deba Garaia	Arrasate	19. Deba Garaia		
	Deba Garaiko gainerakoak			
11. Deba Bararena	Eibar	20. Deba Barrena		
	Deba Barreneko gainerakoak			

Iturria: Geuk eginikoa.

Azterlana egiteko, Eusko Jaurlaritzak erabili ohi duen eskualde-banaketalehenetsi da, hots, ha- maika eskualdeen banaketa, zeren eta eskuragarri ditugun adierazle garrantzitsu gehienek es- kualde-banaketa hori erabiltzen baitute (adibidez, PGDIrena edo LMZren datuak).

Ildo horretan, eskuragarri ditugunetatik zabalena den eskualde-banaketa erabiltzeari esker, maila txikiagoko informazio eskuragarria –azpieskualdea, udalekoa edo zentsuko sekziokoa– maila ho- rretan banaka daiteke, eta hori ezinezkoa izango zatekeen eskala txikiagoko eskualde-banaketa erabili izan balitz. Eskualdekotze txikiagoa aukeratu izan balitz, nahitaez utzi beharko ziratekeen alde batera txosten honetan darabiltzagun iturri eta adierazle asko.

b) Aztergai ditugu estatistika-iturriak eta adierazleak

Aztergai ditugun adierazleei dagokienez, estatistika-iturriak eta interesekotzat jotako administra- zio-erregistroak izan dira oinarria diagnostikoa egiterakoan. Hortaz, uko egin zaio adierazle berriak lortzeari geure informazioa biltzeko eragiketak erabiliz, baita informazio kualitatiboa biltzeari ere. Izan ere, gure ustez Euskadin nahikoa kalitatezko iturri badira horrelako diagnostikoa egiteko. Ildo horretan, aurretik dauden hainbat iturrik sortutako informazioa bildu, sistematizatu eta aztertzea izan da txosten honen xedea. Hartara, elkarren artean erlazionatu dira adierazle horiek. Beraz, helburua ez da izan aurretik eskuragarri ez dagoen informazioa eskaintzen duten datu-iturri berriak sortzea.

Hona hemen azterlana egiteko erabili diren estatistika-iturriak eta erregistroak:

- Lan-merkatuaren Zentsua (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)
- Populazio eta Etxebizitza Zentsuak (EUSTAT / EIN)
- Jaiotzen eta Heriotzen Estatistikak (EUSTAT)
- Kontu Ekonomikoak (EUSTAT)
- Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (EUSTAT)
- Lan-merkatuaren Zentsua (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)
- Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)
- Migrazio-mugimenduen Estatistika (EUSTAT)
- Langabeziagatiko prestazioak (SEPE)
- Errenta Pertsonala eta Familiarra (EUSTAT)
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten bizikidetz-unitateak (Lanbide)
- Erregistroko langabezia (Lanbide)
- Sektore publikoko aurrekontuen estatistikak (EUSTAT)
- EAEn Osasunaren Inkesta (Osasun Saila)
- Etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroa (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)
- Babes publiko etxebizitzaren erregistroa (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).

Adierazleei dagokienez, aztertutako 52 adierazleak bildu dira ondoko taulan, hiru eremu handitan banatuak (populazioa, egitura produktiboa eta lan-merkatua eta bizi-baldintzak), betiere haien iturria, eguneratzeko maiztasuna eta daturik berrienari dagokion urtea adierazita.

² Eskualde bakoitza osatzen duten udalerrien zerrenda begiratu daiteke agiri honetako 3. eranskinean.

³ Izan ere, inkesta horietako askotan, laginketa oso zabala duten horietan ere bai, zehurtiaz hartu behar dira eskualde mailan lortutako emaitzak hainbat aldagairen arabera banakatzen direnean (sexua, jatorria, adina, etab.)

2. taula. Erabilitako adierazleak

<i>Dimentsioak eta adierazleak</i>	<i>Azken data</i>	<i>Iturria</i>	<i>Aldizkakotasuna</i>
Egitura demografikoa			
Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	2013	EIN	Urtekoa
16 urtetik beherakoen proportzioa	2013	EIN	Urtekoa
65 urte eta gehiagokoen proportzioa	2013	EIN	Urtekoa
75 urte eta gehiagokoren proportzioa	2013	EIN	Urtekoa
Zahartze-indizea	2013	EIN	Urtekoa
Mendetasun-tasa	2013	EIN	Urtekoa
Populazioaren mugimenduak			
Ugalkortasun-tasa globala	2012	EUSTAT / EIN	Urtekoa
Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko)	2012	EUSTAT	Urtekoa
Estatutik kanpora jaiotakoen proportzioa	2013	EIN	Urtekoa
Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)	2012	EUSTAT	Urtekoa
Ikasketa maila			
Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa	2011	EUSTAT	Bosturtekoa
Lanbide ikasketak dituen populazioaren proportzioa	2011	EUSTAT	Bosturtekoa
BPGd-a eta lehiakortasuna			
Per capita BPGd-a	2010	EUSTAT	Biurtekoa
Lanpostuko BPGd-a	2010	EUSTAT	Biurtekoa
Industri BEGaren pisua	2010	EUSTAT	Biurtekoa
5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Finantzaketa arazoak dituzten establezimenduen proportzioa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Lan-merkatua			
Jarduera-tasa	2011	EUSTAT	Bost urtekoa
Okupazio-koefizientea	2011	EUSTAT	Bost urtekoa
Erregistraturiko langabezi indizea	2013	Lanbide	Urtekoa
Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia	2011	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Urtekoa
Gazteen langabezi tasa	2011	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Urtekoa
Gizarte Segurantzaren laneko altaren afiliazioak (1.000 biztanleko)	2014	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Urtekoa
Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Soldatapeko enplegu finkoaren pisu erlatiboa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Enpresen multzoa eta dinamismoa			
Establezimenduen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	EUSTAT	Urtekoa
Establezimenduetako lanpostuen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	EUSTAT	Urtekoa
Establezimenduen batez besteko tamaina	2013	EUSTAT	Urtekoa
Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	2013	EUSTAT	Urtekoa
250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduetako lanpostuen kop. (1.000 biztanleko)	2013	EUSTAT	Urtekoa
Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kopurua (1.000 biztanleko)	2011	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Urtekoa
Errenta eta pobrezia			
Batez besteko errenta pertsonala	2011	EUSTAT	Biurtekoa
Laneko batez besteko errenta pertsonala	2011	EUSTAT	Biurtekoa

2. taula. Erabilitako adierazleak

Dimentsioak eta adierazleak	Azken data	Iturria	Aldizkakotasuna
Errenta mediana baliokidea	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Pobrezia errearen tasa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Haurren pobrezia tasa	2012	Enplegu eta Giz. Politik. Saila	Laurtekoa
Ongizaterik ezaren tasa	2012	Enplegu eta Giz. Polit. Saila	Lau urtekoa
Gizarte prestazioak eta gastu publikoa			
Langabeziagatiko prestazioen eraginkortasun horizontala	2013	Lanbide	Urtekoa
DBEren hartzaileen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	Lanbide	Urtekoa
Udalen biztanleko gastu arrunta	2011	EUSTAT	Urtekoa
Gizarte Zerbitzuetako gastu publikoa biztanleko	2011	Enplegu eta Giz. Polit. Saila	Urtekoa

2. taula. Erabilitako adierazleak

Osasun eta segurtasuna			
Osasun onaren prebalentzia (%)	2013	Osasun Saila	Bost urtekoa
Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%)	2013	Osasun Saila	Bost urtekoa
Arazo kronikoren bat duten pertsonen prebalentzia (%)	2013	Osasun Saila	Bost urtekoa
Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia (%)	2013	Osasun Saila	Bost urtekoa
Bere etxebizitzaren inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituen populazioaren proportzioa	2013	Osasun Saila	Bost urtekoa
Etxebizitza			
Hutsik dauden famili etxebizitzaren proportzioa	2011	EUSTAT	Bost urtekoa
Famili etxebizitza nagusien erosotasun-indizea	2011	EUSTAT	Bost urtekoa
Etxebiden jasota dauden etxebizitza-eskabideak (1.000 biztanleko)	2013	Enplegu eta Giz. Polit. Saila	Urtekoa
Babesturiko etxebizitzaren kopurua (1.000 biztanleko)	2013	Enplegu eta Giz. Polit. Saila	Urtekoa

Aipaturiko adierazle askok, gainera, eskualde sakabanaketaren tasa eta horren bilakaera ere dakartzate. Eskualdeen desbideratze estandarra zati adierazle bakoitzaren batez bestekoa bider 100 eginda kalkulatu da eskualde sakabanaketaren tasa. Adierazlearen balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta diferentzia handiagoa da eskualdeen artean. Bestalde, bilakaeraren azterketari esker, adierazlean bateratze-prozesua zein neurritan gertatzen ari den jakin daiteke edo, bestela, eskualdeen arteko urruntze-prozesua (eta, beraz, areagotu egiten dira lurraldeen arteko desorekak) azterturiko epealdian.

c) Mugak

Dagoeneko esana dugunez, txostenaren helburua, funtsean, EAEko eskualde bakoitzaren egoeraren inguruan dauden adierazle nagusiak sistematikoki biltzea eta eskaintzea da, baita azterketa horretatik oinarritzko zenbait ondorio ateratzea ere, krisiak EAEko eskualdeetan eta gure Erkidegoko lurraldeen artean dauden desoreketan duten eraginari buruzkoa. Planteamendu orokor horrek eta metodologian erabakitako zenbait aukerak, ordea, zenbait muga dakartzate, eta kontuan izan beharko dira lanaren ondorioak interpretatzerakoan. Hiru dira muga nagusiak:

- Adierazleen aukeraketa. Esana dugunez, euskal eskualdeen egoera sozioekonomikoarekin lotutako 53 adierazle ditu oinarri guztira txostenak, horiek guztiak eskualde mailan eskuragarriak eta aurretik zeuden estatistika-eragiketetan eta erregistro administratiboetan bilduak. Hortaz, aurretiazko azterketa da, orientazioa ematekoa, eta ikuspegi globala eta integrala eskaintzen badu ere, eskualde bakoitzaren egoeraren nahikoa ikuspegi xehatua ematen du, estatistika-datuen eskuragarritasunak baldintzatuta

dago eta adierazleen kopuru mugatuan dago oinarrituta. Izan ere, adierazle horiek nahikoa ausaz daude hautatuta, eta gainera ez dute nahikoa kontuan hartzen eskualdeen egoera, populazioaren ongizateari begira eremu edo dimentsio oso garrantzitsuei dagokienez. Ikuspegi horretatik, nabarmentzekoa da eskualde mailan eguneratu eta eskuragarri dauden adierazlerik ez izatea honako hauen inguruan, esaterako: etxebizitzaren prezioa, lurraldeak ingurumenaren aldetik dituen ezaugarriak, kontsumorako ohiturak, familia eta lana uztartzea, denboraren erabilera edo sozietate kapitala.

- Lurralde-eransketa. Aurreko puntuan, eskuragarri daudenetatik eskualde egiturarik orokorrena erabiltzeko zioak azaldu dira. Horren arabera, hamaika eskualdetan taldekatzen dira euskal udalerrri guztiak. Ikuspuntu orokorragotik, eskualde oinarriko lurralde arteko desorekak zehaztea da azterlanaren xede nagusia; izan ere, pentsa liteke eskualdeek barne aniztasun oso handia dutela –bereziki horrela definitu direnez-, eta beharbada lurralde unitate txikiagoak beharko ziratekeen (azpieskualdeak, udalerriak edo zentsuko sekzioak). Alabaina, horrek zaildu egingo zukeen datuak lortzea, bereziki nahikoa datu eguneratuak, baita datuon azterketa ere. Hortaz, azterlan honetan bildutako emaitzak interpretatzerakoan oso kontuan hartu behar da azterturiko hamaika eskualdeek oso errealitate ezberdinak ezkututzen dituztela euren baitan, eta azterturiko eskualdeak beti ezin har daitezke errealitate demografiko edo sozioekonomiko homogeneotzat.
- Denbora-estaldura. Hirugarren muga garrantzitsua erabilitako adierazleen denbora-estaldurari dagokio. Oro har, eskualde bakoitza eta azterturiko adierazle bakoitza bi une ezberdinetan erkatzeko ahaleginak egin dira: Bat krisiaren aurretiko aldian (2005 eta 2007 bitartean ahal dela) eta bestea egungo aldiari, krisiaren ondorio latzak jasaten ari garen epealdiari hain zuzen ere. Ildo horretan, egungo egoera islatu nahi duten daturik gehienak 2012 eta 2013. urtekoak dira, baina 2014ko zenbait datu ere erabili izan dira beste aukerarik izan ez denean, iturri bakoitzeko datuak eguneratzeko maiztasuna dela-eta: 2011. urtekoak edo, zenbait kasutan, 2010. urtekoak.⁴ Datu horiek erabiltzeak galarazi egiten du azken hileetan izandako zenbait gertaeraren gaineko azterketa sartzeari, bereziki Gipuzkoako zenbait eskualdetan. Edozelan ere, honako azterlan honetan bildutako eskualdeen egoera dimentsio askotako ikuspegi batetik ematen denez gero, betiere adierazle bakarrari edo adierazleen multzo murriz bati lotuta egon barik, pentsa liteke azken hileetan gertaturiko aldaketek errotik aldaraz dutela eskualdeek Euskal Autonomia Erkidego osoarekiko duen egoera.

1.3. Txostenaren egitura eta datuen aurkezpena

Hiru zatitan dago banatuta txostena:

- Alde batetik, txosten atal nagusia, eginiko azterketaren emaitza nagusiak eta ondorio garrantzitsuenak biltzen dituena. Txostenean eginiko azterketak deskripzio izaera du argi eta garbi, eta adierazleok neurtzen dituzten osagaien aldetik eskualdeek duten egoera deskribatzea da ardatza, krisiaren aurretik eta gaur egun. Nahiz eta datuak interpretatzerakoan ezberdintasunak azaltzeko balizko arrazoiei buruzko zenbait gogoeta eskaini eta, batzuetan, eskualdeetako datuak beste autonomia erkidego batzuekin edo Europako beste herrialde batzuekin erkatu, ezin ahaztu daiteke txostenaren xedea eskualde bakoitzak aipaturiko eremuetan duen egoera deskribatzea besterik ez dela.
- Hala eta guztiz ere, eskualde bakoitzaren egoera sozioekonomikoarekin eta populazio egoiliarren bizi-baldintzekin ustez lotuta dauden euskal eskualdeen egitura produktiboaren osagaien inguruko zenbait jarraibide eskaintzen ditu txostenak, baita antzemandako bateratze- eta urruntze-prozesuen gainean lor daitezkeen ondorioak ere.

⁴ Halaxe da, esaterako, udalaren per capita BPGd-a.

- Bestalde, datuen eranskina bildu da, eta bertan jaso da sistematikoki beste horrenbeste fitxa monografikoren bidez aztertutako 52 adierazle bakoitzari buruzko informazioa. Fitxaren egitura berdina da adierazle guztietan, eta hauexek biltzen dira: adierazlearen definizioa eta lortu direnko iturriak; eskualde bakoitzari dagozkion daturik berrienak; eskualde bakoitzak EAeko batezbestekoarekiko duen egoera eta, hala denean, adierazle bakoitzak (esaterako, pobrezia edo langabezia) neurtzen dituen egoeren eraginpean izan daitekeen populazioa eskualde mailan banatzea eta informazio osoaren azterketaren gaineko ondorio nagusiak.
 - Azkenik, azterlan honetarako berariaz sortu den aplikazio informatiko interaktiboan begiratu daitezke eranskinean bildutako datuak eta tokirik ezagatik eranskineko fitxetan bildu ez diren beste batzuk. On-lineko datu-bankua da, eta bertan egin daitezke interaktibitate oso maila handiko taulak, grafikoak eta mapak, halako moldez non erabiltzaile bakoitzak erraz atera dezakeen interesa zaion informazioa, dela datu zehatz batetakoak, dela hainbat eskualdeetako datuen alderaketa, dela bilakaeraren grafikoak, etab. Erabilitako softwareari esker, era askotako formatutan atera eta deskarga daitezke datu-bankuetako informazioa, .csv formatua barne (zuzenean irekitzen da Exceltik), ondoren beste programa batzuetan erabiltzeko. Gainera, datuen deskarga irakurle espezifikoak egiteko modua ematen du programak, *Tableau Reader*. Doakoa da, eta euren ordenagailuetan instala dezakete erabiltzaileek.
- EGABen Gizarte Garapeneko Batzordeak 2014ko irailaren 17an onetsitako eta osoko bilkurak urriaren 3an berretsitako txostena.
 - Euskadiko EGABeko arduraduna: Arantza Unzurrunzaga.

2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA


2.1. Eskualdeen arteko desberdintasunak egitura demografikoari eta populazioaren mugimenduei dagokienez

2.1.1. Egitura demografikoa

2006 eta 2013 bitartean, EAEk 27,2 biztanle gehiago ditu aurretik bertan bizi ziren mila biztanleko, hots, populazioaren hazkundera %2,72koa izan da. Epealdi horretan, populazioaren hazkunderik handiena Gasteizen (66 biztanle gehiagoko 1.000 biztanleko) eta Bizkaiko Kostaldean (65,5) izan dira. Bilbon, berriz, populazioa galdu da (13 biztanle 1.000ko). Populazioa gutxitzera iritsi barik, populazioaren oso igoera txikiak izan dira Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Deba Garaian. Populazioaren hazkunderik txikiena, hortaz, Bizkaiko hiriburuan eta inguruko eskualdeetan metatzen da, Deba Garaia alde batera utzita.

Garrantzizkoa da nabarmentzea ere 2013an populazioaren zatirik handiena eskualde hauetan metatzen zela: Donostialdean (EAEko populazioaren %21,9 biltzen du eta eskualderik populatuena da, handiena ez bada ere), Ezkerraldean (%18), Bilbon (%15,9) eta Gasteizen (%12,7). Lau eskualde horietan bizi zen 2013an EAEko populazioaren bi herenetik gora. Populazioaren aldakuntzaren tasetan izandako aldaketak gorabeherak, ez da desberdintasunik antzematen 2006 eta 2013 bitartean EAE osoko eskualde bakoitzean populazioak duen pisuari dagokionez. Izan ere, eskualde guztietan 2006ko posizio erlatiboari dagokionez.

1. grafikoa. Populazioaren aldakuntza 1.000 biztanleko. EAE 2006-2013




Iturria: EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.

Populazioaren egiturari dagokionez eta adin-taldearen ikuspegitik, Tolosa-Goierra, Bizkaiko Kostaldea eta Durandaldea ziren 2013an 16 urtetik beherako populaziorik handieneko portzentajerik handienak zituztenak. Ezkerraldean, Bilbon eta Deba Barrenean, berriz, haurren populazioaren portzentajerik handienak daude. Nolanahi ere, eskualdeen arteko desorekak murriztak dira kasu honetan

(eskualdearen arteko tasak Tolosa-Goierriko batezbestekoaren %115 eta Bilboko %98aren bitartekoak dira).

EAE osoan %11,5 hazi da populazioaren pisua adin-talde horretan⁵, baina Gipuzkoako eskualdeetan igo da neurri handiagoan: hala, Tolosa-Goierrri 2006an ere 16 urtetik beherakoaren proportziorik handiena zuen eskualdea zen, eta adin-talde horretan pisu gehiena irabazi duen eskualdea da eta, beraz, ildo horretan eskualderik nabarmenetakoa da. Deba Barrenean, ordea, adin-talde horren portzentajerik txikienetakoa dugu, 16 urtetik beherakoaren pisu gehien irabazi duen eskualdea izanik ere. Bilbon, Eskuinaldean eta Donostialdean izan da 16 urtetik beherakoaren populazioari dagokion portzentajearen igoerarik txikiena.

2. grafikoa. 16 urtetik beherako pertsonen proportzioa. EAE 2013



Iturria: EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.

Bilbo da 2006 eta 2013 bitartean populazioa galdu duen eskualde bakarra eta, gainera, 65 urtetik gorakoaren portzentajerik handiena erregistratu du (%22), eta ondoren Deba Barrena, Ezkerria eta Deba Garaia daude. Gasteizen izan zen, ordea, populazioaren igoerarik handiena 2013. urtean, eta populazio nagusiaren pisu txikiagoa du (65 urtetik gorakoaren %18,4). Hala eta guztiz ere, eta alde horretan EAEn eskualdeen artean dauden desberdintasunak oso handiak ez direnez gero, lau eskualderik populatuenetan biltzen da 65 urtetik gorakoaren proportziorik handiena ere (nagusien populazio osoaren %70 ia).


2006tik 2013ra, %9,8 hazi zen populazio horren pisu erlatiboa EAE osoan⁶, eta bereziki handia izan da Eskuinaldean gertaturiko hazkundera (%21); 2006an populaziorik gazteena zuen. Gasteizen, Donostialdean eta Deba Garaian ere batezbestekoaren gaineko hazkundera izan da populazio horren pisuan. Eskualdeen arteko desoreketan izandako aldaketan ikuspegitik eta gai horri dagokionez, esan beharra dago, lehenik eta behin, 2013an ezin esan zitekeela desberdintasun handiak zeudela

⁵ Adierazle honek populazioak lurralde bakoitzeko populazioarekiko duen pisuaren bilakaera neurtzen du, eta ez igoera edo jaitsiera kopuru absolutuetan.

⁶ Aurreko kasuan moduan, adierazle honek populazioak lurralde bakoitzeko populazioarekiko duen pisuaren bilakaera neurtzen du, eta ez igoera edo jaitsiera kopuru absolutuetan.

(muturreko eskualdeen tasak EAeko babestekoaren %91 eta %112 bitartekoak dira). Gainera, nahikoa murriztu da eskualde-sakabanaketaren indizea –aipaturiko desoreken tamaina neurtzen du indizeak-.

3. grafikoa. 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa. EAE 2013



Oro har, eta espero zitekeen legez, 65 urtetik gorakoen portzentajerik handiena duten eskualdeetan biltzen dira ere 75 urtetik gorakoen portzentajerik handienak. Bilbo adierazle horretan ere buru da; izan ere, populazioaren %12,8 75 urtetik gorakoa da. Beste muturrean Eskuinaldea (%8,9) eta Gasteiz (%9,2) daude. Eskualdeen arteko desberdintasunak aurreko kasuan baino pixka bat handiagoak dira, baina txikiak dira hala ere beste adierazle batzuen aldean (muturreko tasak batezbestekoaren %84 eta %121 bitartekoak dira).


Nolanahi ere, populazio sektore horren pisuaren hazkundera, 2006 eta 2013 bitartean, handiagoa da (%20,5) 16 urtetik beherakoei edo 65 urtetik gorakoei dagokiena baino: hala, EAE osoan, 16 urtetik beherakoen pisua %11 hazi da aipaturiko epealdian eta 65 urtetik gorakoena, berriz, %98. 75 urtetik gorakoei dagokienez, %20koa izan da igoera, arestian aipatu denez. Populazio-talde horren hazkunderik handiena Aiaran, Ezkerraldean eta Deba Garaian izan da. Bizkaiko Kostaldean, berriz, populazioan duen pisua (%10ekoa) batezbestekoa baino askoz txikiagoa izan da.

Erreferentziako lurraldean urte bakoitzeko urtarilaren 1ean bizi diren 64 urtetik gorakoek 16 urtetik beherakoen populazioarekiko duten portzentajeari deritza zahartze-indizea. Nahiz eta Bilbok zahartze-tasarik handiena duen eskualdea izan (65 urtetik gorakoak 16 urtetik beherakoen %175 dira), Donostialdean eta Eskuinaldean baizik ez da hazi indize hori 2006 eta 2013 bitartean, zeren eta gainerako eskualdeetan murriztu egin baita zahartze-indizea (zenbait kasutan, oso jaitziera nabarmena izan da, Bizkaiko Kostaldean eta Deba Barrenean adibidez). Epealdi horretan izandako aldaketak alde batera utzita, nabarmentzekoa da, edozelan ere, Bilboren ondoren hauexek direla zahartze-indizerik handiena bildu duten eskualdeak: Ezkerraldea (%156,9), Deba Barrena (%148,8) eta Deba Garaia (%140,8). Zahartze-indizerik txikiena, aldiz Tolosa-Goierriin (%115,1), Durangaldean (%118,5) eta Bizkaiko Kostaldean (%120,1) izan dira.

Bestalde, erreferentziako lurraldean urte bakoitzeko urtarilaren 1ean bizi diren 16 urtetik beherakoen eta 64 urtetik gorakoen eta 16-64 urteko populazioaren arteko zatidurari deritzo mendetasun-tasa, ehunekoetan adierazia. Esanahi ekonomiko argia duen adierazlea da, zeren eta populazio inaktiboak balizko populazio aktiboarekiko duen batezbesteko erlatiboa adierazten baitu, eta nagusien populazioaren pisuak edo 16 urtetik beherakoen populazioaren pisuak zehazten du balioa, edo bien pisuak. Izan ere, adierazle horretan bi talde horiek balizko populazio aktiboarekiko duten pisuak konbinatzen direla-eta, eskualderik zaharretan ez dira erregistratzen mendetasun-tasarik handienak, ezta haurren pisurik handiena dutenetan ere. Ildo horretan, eskualde hauetan daude mendetasun-tasarik handienak: Deba Barrenean (%58), Tolosa-Goierri (%57,1), Deba Garaian (%56,1), Bilbon (%55,5) eta Donostialdean (%54,5). Mendetasun-tasarik txikienak, berriz, eskualde hauek dituzte: Gasteizek (%50,6), Eskuinaldeak (%51), Durangaldea (%51,7) eta Aiara (%51,8). Bestalde, nabarmentzekoa da mendetasun-tasarik handiena duten bost eskualdeen artean egotea Gipuzkoako lau eskualdeak. Nolanahi ere, sakabanaketa-tasarik txikiena duen adierazlea. Izan ere, EAEko batezbestekoaren %95 eta %108 bitarteko balioak dituzte (Gasteizek eta Deba Barrenean, hurrenez hurren).

2006. urtetik, gora egin du mendetasun-tasak eskualde guztietan, eta hazkunderik handiena Eskuinaldean (%22,1), Deba Garaian (%21), Gasteizen (%20,1) eta Aiara (%17,2) bildu da. Mendetasun-tasaren igoerarik txikienak, berriz, Bilbon (%11,1) eta Bizkaiko Kostaldean (%11,5) izan dira. Aipatzekoa da Eskuinaldean 64 urtetik gorakoen pisuaren igoerak eragin duela, gehienbat mendetasun-tasaren gorakada. Deba Garaian, berriz, 16 urtetik beherakoen pisu txikiagoak igoarazi du portzentajea.

4. grafikoa. Mendetasun-tasa. EAE 2013



Iturria: EINen datuekin eginikoa: Etengabeko Erroldaren Estatistika.


2.1.2. Populazioaren mugimenduak

Bilbo –EAEko hirugarren eskualderik populatuena eta zaharrena, ikusi dugunez– ugalkortasun-tasarik baxuena duena ere bada; izan ere, 35 jaiotza besterik ez ditu ugalkortasun-adinean diren 1.000 emakumeko 2012. urtean. EAE osoan, berriz, 41 dira, eta tasarik handiena duen eskualdean 50 (Tolosa-Goierri). Gainera, bereziki esanguratsua da ugalkortasun-tasarik txikiena duten bi eskualdeak Bilboren mugakideak diren Ezkerraldea eta Eskuinaldea izatea. Horrenbestez, populazio dentsitate handiena duen eta EAE osoko populazioaren %41 biltzen duen eremua ugalkor-

tasun-tasarik txikiena duena da. Aldi berean, ugalkortasun-tasarik handienak Gipuzkoako hiru eskualdetan bildu dira (Tolosa–Goierri, Deba Barrena eta Deba Garaia) eta, beraz, alde horretan lurraldeen banaketa bereziki argia zen 2012. urtean behinik behin (aldeak ez dira nabarmenak).

Bilakaeraren ikuspegitik, esan beharra dago 2008 eta 2012 bitartean gora egin duela ugalkortasun-tasak Aiaran (%12,3), Deba Barrenean (%8,2), Ezkerraldean (%6,9), Deba Garaian (%6,8), Gasteizen (%4,9), Eskuinaldean (%3,6) eta Durangaldean (%2,4). Behera egin du, ordea, eskualde hauetan: Bilbon (-%6,4), Tolosa-Goierri (-%4,8), Bizkaiko Kostaldean (-%1,7) eta Donostialdean (-%1,5). Aldaketa horien eraginez, lurraldeen arteko desberdintasunak gutxitu dira nolabait, lehendik ere oso handiak ez direnak, eta halaxe islatzen da eskualde-sakabanaketaren tasaren %12ko gutxipenarekin.

5. grafikoa. Galkortasun-tasa globala. EAE 2012




Iturria: Eustat. Jaiotzen Estatistika. EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.

Saldo negatibo txikiagoa izateagatik ere nabarmentzen da Bilbo. Izan ere, saldo begetatibo negatiboa du, eta bi eskualde gehiagotan baino ez dago joera negatiboa (Deba Barrenean eta Ezkerraldean). Hiru eskualde horietan, negatiboa da jaiotzen eta heriotzen kopuruaren arteko diferentzia 1.000 biztanleko (hots, heriotzak jaiotzak baino gehiago dira eta populazioa migrazio-saldo positiboagatik baizik ez da hazten, hala denean). Gainerako eskualdeetan, berriz, jaiotzen kopuruak heriotzen kopurua gainditzen du. Ildo horretan, saldo begetatiborik handiena Gasteizen (2,5) dago, eta ondoren Tolosa-Goierri (1,83) eta Aiaran (1,18); EAEko batezbestekoa 0,1 da. Mailarik txikiak, esana dugun legez, Bilbori (-2,52), Deba Barrenari (-1,98) eta Ezkerraldeari (-0,88) dagozkie. Bilakaeraren aldetik, saldo begetatiboa eskualde guztien murriztu zen 2008 eta 2012 bitartean, Deba Garaian izan ezik, non egonkor eutsiko dion, eta Aiaran, 0,3 puntu hazi baita. Bilakaera negatibo hori gertatu da EAE osoan, zeren eta epealdi horretan %4,8 hazi baita heriotzen kopurua, jaiotze kopurua %3,7 txikitu den bitartean.

Hazkunde-tasa begetatibo altua dela kontsideratzen da %4a gaindituz gero, ertaina %1 eta %3 bitartekoa bada eta txikia %1etik beherakoa bada, baina eskala hori ez da zentzu hertsian hartu behar. Ikuspegi horretatik, EAEko hiru eskualdetan baino ez daude hazkunde-tasa begetatibo ertainak. Gainontzekoetan, berriz, hazkunde-tasa txikiak edo, zuzenean, negatiboak. Zein neurritaraino den desberdina EAEko eskualdeen egoera eta Europar Batasuneko beste eskualdeetan dagoena? Eurostaten datuen arabera, EBren saldo begetatiboa 0,5ekoa izan zen 2012an. Saldo txikitat jo daiteke eta, EAEko zazpi eskualdetan, ratio hori gainditu zen 2012an. EAEko batez besteko ratioa (0,1)

bost aldiz txikiagoa da, ordea. Ildo beretik, gogoratu behar da erreferentziako herrialdeetan, Espainian edo Frantzia adibidez, nahikoa saldo begetatibo handiagoak izan direla (1,1 eta 3,8 hurrenez hurren). Espainiako autonomia erkidegoei dagokienez, hauexen artean dago saldo begetatiboa: Madrilgo Erkidegoko 4,14 eta Asturiasko -5,16.

6. grafikoa. Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko). EAE 2012




Iturria: Eustat. Jaiotzen Estatistika. EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.

Estatutik kanpora jaiotakoak, 2013an, erroldaturiko populazioaren %8,4 ziren. Pisurik handiena duten eskualdeak Gasteiz (%11,1), Bilbo (%10,2) eta Donostialdea (%8,4) dira, hots, hiru hiriburuak biltzen dituzten eskualdeak. Bestalde, atzerrian jaiotako populazioaren proportziorik txikiena Ezkerraldean (%6), Aiaran (%6), Deba Garaian (%6,5), Durangaldean (%7,6), Tolosa-Goierrin (%7,6) eta Deba Barrena (%7,9) ageri dira. Atzerrian jaio eta EAEn bizi diren pertsonen %71,2 lau eskualderik urbanizatuenetan daude erroldaturik (Donostialdea, Bilbo, Gasteiz eta Ezkerraldea), hots, eskualde horiek populazio osoarekiko duen portzentajea baino pixka bat handiago (%68,9).

Atzerrian jaiotako populazioaren pisu erlatiboa, 2006 eta 2013 bitartean, %5,1etik %8,4ra igaro da, hots, %65eko igoera⁷. Espainiako Estatuan jaio ez diren pertsonen populazioan duten pisuaren igoerarik handienak dituzten eskualdeak 2005ean pisurik txikiena zutenak dira (Deba Garaia eta Barrena, Ezkerraldea edo Aiara) Populazio horren pisuaren hazkundearen abiadura desberdinaren ondorioz, eskualdeen arteko desoreka txikiagoa dago adierazle honi dagokionez eta, ildo horretan, atzerrian jaiotako lurralde banaketa orekatuagoa dugu. Izan ere, eskualde sakabanaketaren tasaren aldakuntzak (2006ko 28,6tik 2013ko 19,1era) agerian uzten du lurralde arteko bateratze-prozesua dagoela adierazle honen inguruan. Hala eta guztiz ere, artean 2013. urtean, aldakortasunik handiena duten adierazleetako bat zen -eskualde bakoitzaren egitura demografikoari dagokionez-; batezbestekoaren %133 (Gasteiz) eta %72aren (Ezkerraldea eta Aiara) arteko tasak daude.

⁷ Aurreko kasuetan moduan, populazioak lurralde bakoitzeko populazioarekiko duen pisuaren bilakaera neurtzen du adierazle honek, eta ez igoera edo jaitsiera kopuru absolutuetan.

7. grafikoa. Espainiako Estatutik kanpora jaiotakoen proportzioa. EAE 2013




Alderaketa eginda esan daiteke ezen, 2012. urtean, atzerrian jaiotakoek Espainiako estatuan jaiotakoekiko zuten pisua %14,1ekoa zela, hain zuzen ere EAeko edozein eskualdetan erregistraturikoa baino askoz handiagoa. Hala ere, esan beharra dago, bestela, 2006 eta 2012 bitartean talde horren pisu erlatiboaren hazkundera %65ekoa izan zela Euskadin. Estatu osoan, berriz, %32 besterik ez zen handitu populazio horren pisua.

Migrazio-saldoari dagokionez, immigrazioaren ziozko sarreraren eta emigrazioaren ziozko irteeren arteko diferentziari dagokionez, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, saldo positiboa dela eskualde guztietan, eta Deba Garaian eta Deba Barrenean bildu da saldorik handiena (8,9 eta 7,4 hurrenez hurren); ondoren datoz Bizkaiko Kostaldea (6,7), Gasteiz (6,2) eta Durangaldea (5,7). Aiaran (1,06), Ezkerraldean (3,1) eta Donostialdean (3,6), ordea, migrazio-saldo positiboak dituzte, baina txikiagoak. Krisiaren ondorioz, behera egin du migrazio-saldoak, baina esana dugun legez, maila negatiboetara iritsi barik. EAE osoaren adierazlea 7,8koa zen 2008an eta 2012an, berriz, 4,5ekoa zen. Hala gertatu da, zeren eta immigrazioen kopuruaren jaitsiera (-%23,2) emigrazioen kopuruan izandakoa baino handiagoa izan baita (-%10). Ildo horretan, garrantzizkoa da esatea ezen, krisiaren aurreko urtea (2006) eta azken datuei dagokien urtea (2012) konparatuta ikusiko dugunez, gutxipena gertatu dela emigrazioaren kopuruan, eta murrizpen horri eusten zaio eskualde guztietan, Bizkaiko Kostaldean, Tolosa-Goierri eta Deba Barrenean.

Eskualdez eskualde, bilakaera negatiboa izan da guztietan Deba Barrenean (3,8ko igoera migrazio-saldotan) eta Deba Garaian izan ezik (2,6); izan ere, migrazio-saldorik txikiena duten bi eskualdeak izatetik adierazle horretako lehen tokiaz jabetzera igaro baitira 2012an. Jaitsierarik handiena Aiaran dago (-9,1): EAeko migrazio-saldorik txikiena zuen eskualdea bihurtu zen 2012. urtean. Hona hemen bilakaera negatiboak dituzten hurrengo eskualdeak: Gasteiz (-8,4), Bilbo (-4,1) eta Ezkerraldea (-3).

8. grafikoa. Migrazio-saldoa 1.000 biztanleko. EAE 2012




Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen estatistika.

2.1.3. Ikasketa maila

Eskualde bakoitzean bizi den populazioaren ikasketa mailari dagokionez, esan beharra dago elkarren ondoan dauden bi eskualdetan, Ezkerraldean eta Eskuinaldean, gertatu direla muturreko tasak, gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren portzentajearen aldetik: Eskuinaldean gaur egun ikasten ez duten hamar urtekoen eta gehiagokoek %68,9 ageri da. Ezkerraldean, berriz, portzentaje txikiagoa da, hain zuzen ere %50,9. Eskuinaldearen atzetik, hona hemen gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populaziorik handieneko eskualdeak: Bilbo (%60,1), Donostialdea (%59,6) eta Bizkaiko Kostaldea (%59,2). Ikasketa mailarik txikiak, Ezkerraldeaz gain, Tolosa-Goierri (%51,5) eta Deba Barrenean daude (%52,1).

EAE osoan, gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua %7,4 hazi da 2006tik, eta igoera izan da eskualde guztietan. Gehikuntza handiagoa izan da Aiaran (%11,8), Durangaldean (%10,4), Bizkaiko Kostaldean (%10) eta Gasteizen (%9,5). Igoerarik txikiena Bilbori (%3,8) eta Eskuinaldeari (%4,4) dagokie. Hala eta guztiz ere, 2006 eta 2011 bitartean ez da aldatu eskualde bakoitzaren posizio erlatiboa gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportzioaren arabera. Hala gertatu da gehienbat igoerak ez direlako nahikoak izan eskualde bakoitzaren posizio erlatiboa aldatzeko, nahiz eta igoerarik handienak abiapuntuan mailarik txikiak zituzten eskualdeetan (Ezkerraldea, Tolosa-Goierri eta Deba Barrena). Nolanahi ere, aztertutako beste adierazle batzuetan moduan, bateratze-prozesu nabarmena gertatu da adierazle honetan, eta, ondorioz, murriztu egin da eskualde-sakabanaketa 2006 eta 2011 bitartean.

9. grafikoa. Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa. EAE 2011




Iturria: EUSTAT. Populazio eta Etxebizitza Zentsua.

Interesgarria da eskualde bakoitzean lanbide heziketak edo bestela lanbide ikasketak batzuk egin dituztenen portzentajea aztertzea. 2011ko Populazio eta Etxebizitza Zentsuaren datuen arabera, lanbide heziketaren pisua handiagoa da eskualde industrialagoetan; joera hori antzematen da. Izan ere, lanbide heziketa duten pertsonen proportziorik handiena eskualde hauetan erregistratu da: Deba Garaian (%20,9), Aiara (%20,6), Deba Barrenean (%20,4), Durangaldean (%20) eta Tolosa-Goierri (%19,7). Proportziorik txikiena, berriz, Bilbon (%14), Eskuinaldean (%15,2), Bizkaiko Kostaldean (%16,7) eta Gasteizen dago (%16,8). Datuek ildo horretan erakusten dutenez, horrelako prestakuntza motaren prebalentziarik handiena Gipuzkoako eskualdeetan eta Bizkaiko barnealdean dago, eta txikiagoa Bizkaiko Kostaldean eta Gasteizko eskualdean.

Nabarmentzekoa da EAE osoan %12,8 hazi dela EAEn lanbide ikasketak dituzten pertsonen proportzioa 2006. urtetik, eta eskualde guztietan izan da igoera. Igoerarik handienak eskualde hauetan gertatu dira: Bizkaiko Kostaldean (%17,1), Tolosa-Goierri (%16,1), Gasteizen (%15,9), Aiara (%15,7) eta Durangaldean (%15,5). Bestalde, igoerarik txikiena Bilbon (%8,3) eta Eskuinaldean (%9,9) izan da. Nolanahi ere, gutxienez lanbide ikasketak dituztenen proportzioaren araberako eskualde mailako sailkapena ia ez da aldatu 2006 eta 2011 bitartean.

10. grafikoa. Lanbide ikasketak dituztenen proportzioa. EAE 2011



2.2. Egitura produktiboaren eta lan-merkatuaren inguruko eskualdekako desberdintasunak


2.2.1. BPGd-a eta lehiakortasuna

Txosten honetan azterturiko hamaika eskualdeetatik, Eskuinaldeak izan zuen 2010ean biztanleko BPGd-ik handiena –eta, beraz, EAEko hamaika eskualdeetatik aberatsena dela esan daiteke–; izan ere, 38.175 euroko per capita BPGd-a du biztanleko. Hau da, EBko batezbestekoaren %125 eta Espainiako batezbestekoaren %166 da (PPSetan neurtuta), eta Europako 33 erregiorik aberatsenen artean egongo litzateke, hain zuzen datuak ditugun 274 erregioetatik, honako hauen parean: Tirol, Anberes, Dusseldorf, Lonbardia, Kolonia, Aosta Bailara edo Ingalaterrako Berkshire, Buckinghamshire eta Oxfordshire konderrriak. Biztanleko BPGd-ik txikiena mugakidea den Ezkerraldeari dagokio, biztanleko 25.128 euroekin, hots, EAEko batezbestekoaren %84. Ezkerraldearen per capita BPGd-a EBko batezbestekoaren %108 eta Espainiako batezbestekoaren %109 da, Alsazia, Koblenz edo Uharte Balearrak eta Madeira erregioen parean.

Krisiaren ondorioz, euro korronteetan neurtuta, %4,2 jaitsi da per capita BPGd-a 2008 eta 2010 bitartean. Azken urte horretakoa da adierazle honetarako udal eta eskualde mailan dugun azken informazio eskuragarri. EAEko eskualdeetan izandako bilakaera oso desberdina izan da, ordea: eskualde gehienetan behera egin du BPGd-ak, bereziki Aiara (per capita BPGd handiena zuen eskualdean zen 2008an), Gasteizen eta Tolosa-Goierri, %8 eta %19 arteko jaitsierekin. Beste eskualde batzuetan, berriz, bi urteotan ekonomia ez aurrera ez atzera gelditu dela esan liteke, edo zenbait kasutan hazi egin dela: Izan ere, biztanleko BPGd-a %4,7 hazi da Eskuinaldean –krisiaren aurretik, per capita handiena zuen laugarren eskualdea zen– eta nahikoa egonkor eutsi zaio Bilbon, non jaitsiera %0,9koa izan baita. Gainerako kasuetan, hauexen arteko jaitsierak izan dira: Donostialdeko %1,8 eta Ezkerraldeko eta Deba Garaiko %5,6. Aldaketa horien ondorioz, esan daiteke EAEko eskualdeen arteko desberdinta-

sunak murriztu direla adierazle honi dagokionez, eta lurraldeen arteko nolabaiteko bateratze-prozesua gertatu da: Eskualdeen arteko desberdintasunek %6,5 egin dute behera; hala, sakabanaketa-tasa 14,1etik 13,7ra jaitsi da. Aldaketa hori alde batera utzita, ezin esan daiteke, inola ere, per capita BPGd-aren eskualde-sakabanaketa oso handia denik EAEn. Izan ere, Finlandia eta Suediako bezalako herrialdeetako erregioiko BPGd-aren sakabanaketa-indizeen baliokidea edo txikiagoa da⁸.

11. grafikoa. Per capita BPGd-a. Euroak. 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a


Bere lurralde-eremuan ezarritako faktore produktiboez (lantegiak, dendak, zerbitzu-enpresak...) lurraldean sortutako aberastasuna neurtzen du lanpostuko BPGd-aren adierazleak lanpostu bakoitzeko. Erreferentziako lurraldearen Barne Produktu Gordina (prezio arruntetan) zati lanpostuen kopuru gisa kalkulatzen da eta laneko produktibitatea neurtzen du. 2010ean (udal eta eskualde mailako informazioa dugun azken urtea), Durangaldeari dagokio lanpostuko BPGd-ik handiena (70.148 euro), eta ondoren datoz Tolosa-Goierri (68.414), Ezkerraldea (68.072) eta Bizkaiko Kostaldea (67.841). Zifrarik txikienak, berriz, Bilbon (57.680), Aiaran (59.063), Gasteizen (61.183) eta Donostialdean (61.883) daude.

2008. urtetik izandako bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da, atzeraldi ekonomikoaren baitan, produktibitateak behera egiteak izan lezakeen esanahia: lanpostu gutxiago desegiten ari direla BPGd-aren jaitsieraren aldean. Eskualdez eskualde, jaitsierarik handienak Aiaran (-%12,7), Tolosa-Goierri (-%5,7), Deba Garaian (-%2,5) eta Gasteizen (-%2,1) ditugu. Bestalde, lanpostuko BPGd-a igo egin da Eskuinaldean (%6), Durangaldean (%3,7), Donostialdean (%3,6), eta Bilbon (%3,4). Egonkor eutsi diote Ezkerraldeak (-%0,1) eta Deba Barrenak (%0,1).

Edozelan ere, ezin esan daiteke oso handiak direnik adierazle honetan eskualdeen artean dauden aldeak –batezbestekoaren %95 eta %115 bitartekoak dira– eta, gainera, pixka bat behera egin du EAEn epealdi horretan.

⁸ EUROSTATek EBko herrialdeetako biztanleko BPGd-aren eskualde-sakabanaketaren indizeak kalkulatzeko darabilen formula erabiltzen bada (NUTS 2 eta 3 erregioei buruzko datuekin), %10ekoa izango litzateke EAEn dagokion datua, sakabanaketa txikiena duten EBko beste herrialde batzuen BPGd-aren eskualde-sakabanaketaren antzekoak, edo pixka bat txikiagoak, Suediako eta Holandako esaterako. EBko herrialderik gehienetan %15 eta %25 bitarteko sakabanaketa-tasak daude.

12. grafikoa. Lanpostuko BPGd-a. Euroak. EAE 2010




Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a

Aurrerago ikusiko denez, egitura ekonomia zerbitzuetara, industriara edo lehen sektorerara bideratzeak lotura du, argi eta garbi, eskualde batean bizi den populazioaren bizi-baldintzak neurtzen dituzten adierazleekin. Industri sektoreak sortzen duen balio erantsi gordinaren (BEG) pisua neurtzen bada eskualde bakoitzean, desberdintasun nahikoa handiak ikus daitezke: Deba Garaiko eta Aiaraiko %46 eta Bilboko %5,5 bitartean. Bere BEGaren %88 zerbitzuen sektoretik datorkio Bilbori. Eskualde-sakabanaketarik –edo espezializatorik– handiena duten adierazleetako bat da, zeren eta lau eskualdetan –Aiara, Deba Garaian, Durangaldean eta Tolosa-Goierrin– EAEko batezbestekoaren %150etik gorako tasak baitituzte⁹. Hiru eskualdetan, berriz, Donostialdean, Eskuinaldean eta Bilbon, %80aren inguruan edo azpitik leudeke.

2008 eta 2010 bitartean, behera egin du industri BEGak EAEko eskualde guztietan, baina jaitsierarik handienak Bilbon (-%15,6), Durangaldean (-%15,6), Aiara (-%13,8) eta Donostialdean (-%12,6) bildu dira. EAEko batezbestekoa baino jaitsiera txikiagoa izan da, ordea, eskualde hauetan: Tolosa-Goierrin (-%7,1), Bizkaiko Kostaldean (-%7,4), Deba Garaian (-%8,8), Gasteizen (-%10,3), Ezkerraldean (-%10,3), Eskuinaldean (-%10,5) eta Deba Barrenean (-%10,8). Arestian esana dugunez, lurraldeen arteko desorekarik edo desberdintasunik handiena duten adierazleetako bat da eta, gainera, gero eta handiagoak dira. Eskala bat egin eta eskala horretako o zenbakiak eskualdeen arteko berdintasuna adieraziko balu, 42ra iritsiko litzateke adierazle honen sakabanaketa-tasa.

⁹ Izan ere, lau eskualde horietan metatzen da EAEko industri BEGaren %33 eta populazioaren %15 besterik ere.

13. grafikoa. Industriako Balio Erantsi Gordina. EAE 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a


Industri balio erantsiak eskualde bakoitzean duen pisuaren aldetik desorekak daudela esan badaitke, are handiagoak dira eskualde bakoitzaren ekonomiaren oinarrizko zenbait ezaugarri aztertuz gero, hala nola enpresa berrikuntzara bideratuta egotea. Bost enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa da alderdi hori neurtzeko erabilitako adierazlea, betiere Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Estatistika Organo Espezifikoak egiten duen Lanmerkatuaren Zentsuaren inkesta oinarri hartuta.

Inkesta horren datuen arabera, EAEko 5 enplegatuko edo gehiagoko establezimenduen %20,5ek egiten zuen EAEn berrikuntzako etengabeko jardueraren bat. Eskualdez eskualde, establezimendu berritzaile horien proportziorik handiena eskualde hauetan biltzen da: Deba Garaian (%35,9), Deba Barrenean (%29,5), Durangaldean (%28,7), Gasteizen (%22,1) eta Eskuinaldean (%22,1). Proportziorik txikiena, berriz, Tolosa-Goierrin (%13,7), Bizkaiko Kostaldean (%14,3), Aiaran (%14,4) eta Ezkerraldean (%17,1). Bilakaerari dagokionez, 2008. urtetik %8,4 hazi da 5 enplegatuko edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa EAEn. Igoerarik handienak Deba Garaian (%43,3), Deba Barrenean (%33,3), Donostialdean (%32,2), Durangaldean (%16,6) eta Eskuinaldean (%15,1) izan dira. 5 enplegatuko edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa, berriz, jaitsi egin da Tolosa-Goierrin (-%46,1), Bizkaiko Kostaldean (-%19,9) eta Bilbon (-%10,6)¹⁰.

Aldaketa horiek –zenbait kasutan, ikusi dugunez, oso handiak– areagotu egin dituzte krisiaren aurretik alderdi horretatik bazeuden desberdintasunak edo, hobeto esanda, hasierako uneetan. Adierazle horren sakabanaketa-tasa 20,7koa izan bazen, 31,5era hazi zen 2012an, hots, %50eko hazkundera.

¹⁰ Garrantzizkoa da kontuan hartzea adierazle honek enpresa mota horretako enpresen pisuak bi urteotan izan duen aldaketa neurtzen duela. Enpresa berritzaileen pisu handiagoa azaltzeko, lehenik eta behin horrelako enpresen kopuruaren gorakada izan behar da kontuan, termino absolutuetan, eta bestetik krisiaren testuinguruan berritzaileak ez diren enpresak deagertzeko joera handiagoa.

14. grafikoa. Berrikuntza egiten duten 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen proportzioa. EAE 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren Zentsua (Eskaria)


Baldin eta berrikuntza-indizea enpresa berritzaileek biltzen dituzten lanpostuen ikuspegitik egiten bada –eta ez, aurreko kasuen moduan, establezimendu berritzaileen ikuspegitik–, oso antzeko ondorioak dira. 5 enplegutako edo gehiagoko establezimenduetako lanpostuen %39,8k –establezimenduen %20aren aldean, zeren enpresarik handienak baitira berritzaileenak– egiten zuen 2012an berrikuntzako etengabeko jardura EAEn. Lanpostu horren proportziorik handiena Deba Garaian dago, hain zuzen ere 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen lanpostuen %70arekin. Eskualde horren atzetik daude beste industri eskualde batzuk ere: Deba Barrena (%51,8), Tolosa-Goierrri (%47,7) eta Durangaldea (%46,8). Proportziorik txikiak, berriz, Bilbon (%31,1), Ezkerraldean (%34,9), Donostialdean (%36,5) eta Bizkaiko Kostaldean (%39,4) ditugu. Bi eskualdetan soilik –Aiara eta Bilbo– murriztu da enpresa berritzaileen lanpostuen proportzioa.

2008 eta 2012 bitartean, pixka bat gora egin zuten adierazle honetan eskualdeen arteko desberdintasunek.

Bestalde, Lan-merkatuko Zentsuaren inkestako datuen arabera, guztizkoaren %15,71 dira finantzaketan edo altxortegian zailtasunak dituztela (handiak eta ertainak) dioten establezimenduak, baina krisiaren ondorioz nabarmen handitu da establezimenduen kopurua eta proportzioa: %3,4ko hazkunde, hots, %27,5 gehiago.

2012an, Gasteizen (establezimenduen %21,3) eta Ezkerraldean (%20,9) zituzten finantzaketa edo altxortegi zailtasun gehien. Proportziorik txikiak, berriz, eskualde hauetan ditugu: Aiaran (%9,9), Deba Garaian (%11,4), Bilbon (%12,5), eta Eskuinaldean (%13,4). Arlo horretako desberdintasunak handiak dira, eta tasa hauen artekoak dira: batezbestekoaren %135 Gasteizen eta %63 Aiaran. 2008. urtetik, Tolosa-Goierrri (%137,1) izan da finantzaketa edo altxortegi zailtasun gehien izan dituen eskualdea, eta ondoren datoz Durangaldea (%64,3), Ezkerraldea (%55,3), Donostialdea (%49) eta Gasteiz (%44,8). Adierazlea, berriz jaitsi egin da Bilbon (-%16,2) eta Aiaran (-%8,7).

15. grafikoa. Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa. EAE 2012




Iturria: Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren Zentsua (Eskaria).

Azkenik, eskualdeen egitura ekonomikoarekin eta lehiakortasunarekin loturiko adierazleei dagokienez, enpresen portzentajea aipatu beharra dago, hain zuzen ere eskualde bakoitzean nolabaiteko nazioartekotzea lortu dutenen portzentajea (EBko beste herrialde batzuetan diharduten establezimenduetan dituzten lanpostu guztien ehunekoa biltzen du adierazleak, Espainiako estatus aldea batera utzita). Datuak Lan-merkatuaren Zentsutik aterata daude, eta 2008 eta 2012. urteei dagozkie.

Inkesta horretako datuen arabera, industri jarduerarik handiena duten eskualdeak dira nazioartean presentzia handia dutenak hala nola Aiara (%41,6), Deba Garaia (%40,1), Tolosa-Goierrri (%37,9), Durandaldea (%36) eta Deba Barrena (%30,9). EB jarduera duten establezimenduetako lanpostuen proportziorik txikiena Bilbokoa izango litzateke (%9,4), eta ondoren Ezkerraldea (%14,4), Donostialdea (%18,6) eta Eskuinaldea (%20,8) datoz. Beraz, Donostian eta Bilbo Handian metatzen dira EBko merkatuetarako sarbide mailarik txikiak. Adierazleak 2008. urtetik izan duen bilakaerari dagokionez, %9,4 hazi da EB ezarritako establezimenduen lanpostuen proportzioaren igoera EAEn. Hazkunderik handienak eskualde hauei dagozkie: Gasteizi (%33,9), Aiarari (%24,1), Eskuinaldeari (%27) eta Tolosa-Goierrri (%20). Lanpostu horiek, ordea, pisua galdu dute gehien industrializatu eta nazioartekotu diren eskualdeetan hala nola Deba Garaian (-%14,7), Deba Barrenean (-%8,5) eta Durandaldean (-%2,7). Horrenbestez, lurraldeen arteko nolabaiteko bateratze-prozesua gertatu da alde horretatik, eta horrek galarazi egiten du eskualdeen arteko desberdintasunak nabarmen handiak izatea beste adierazle batzuen aldean. Garrantzikoa da nabarmentzea ere, beste alderdi batzuetan bezala, bateratze-prozesua gertatu dela gehienbat aurreko epealdian egoera hobean ziren eskualdeen egoerak okerrera egin izanagatik.

16. grafikoa. EBN presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa. EAE
2012



Iturria: Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren Zentsua (Eskaria)

2.2.2. Lan-merkatua


Eskualde baten egitura produktiboa eta lan-merkatuaren dinamismoa aztertzeko funtsezko adierazleetako bat jarduera-tasa da. Adierazle honi dagokionez, lehenik eta behin esan beharra dago homogeneotasun maila handia dagoela eskualdeen artean; izan ere, Gasteizko %75aren eta Ezkerraldeko %71,6aren arteko tasak daude, hots, elkarren artean 3,5, puntu besterik ez. Jarduera-tasarik handienak duten eskualdeak Gasteiz (%75,1), Deba Garaia (%74,3) eta Aiara (%73,7) dira. Tasarik txikiena, berriz, Ezkerraldean dugu (%71,6), eta ondoren Eskuinaldea (%71,8) eta Deba Barrena (%72,3) daude.

Bilakaeraren aldetik, bi osagai esanguratsu ikusten dira: alde batetik, gora egin du jardueratasak eskualde guztietan: Ezkerraldeko %4,7aren eta Gasteizko %2,2aren arteko igoyerak izan dira. Nabarmen egin du behera eskualde sakabanaketaren tasak (%33) eta, beraz, gutxitu egin dira krisiaren aurretik baziren eskualdeen arteko zenbait desoreka adierazle honi dagokionez, oso desoreka txikiak izanik ere.

EBko erregioei dagokionez, oro har handiak dira EAeko eskualdeen jarduera-tasak. 2011n, hain zuzen ere Populazio eta Etxebizitza Zentsua¹¹ erabiliz EAeko eskualde mailan adierazle honetan dugun azken informazioko urtean, %71koa zen batezbesteko jarduera-tasa 28ko EBN, baina EBk 2011rako biltzen dituen jarduera-tasei dagozkien 400 erregioetatik gutxienez 170k tasa handiagoak dituzte. Ildo horretan, jarduera-tasarik handiena duen EAeko eskualdea Tirol, Hannover edo Londres Handiaren pareko mailetan egongo litzateke. Ezkerraldeak, berriz, EBko batezbestekoak baino pixka bat tasa baxuagoak edukiko lituzke, esaterako Ipar Irlandaren edo Frantziako Hego-mendebaldearen parean (horren baitan sartzen da Ipar Euskal Herria ere). Azkenean, esan beharra dago ezen, batez beste, erregio horietan %2,2ko hazkundera izan dela jarduera-tasan 2006 eta 2011 bitartean. Hortaz, EAeko eskualderik gehienetan epealdi berean izandakoa baino pixka bat txikiagoa.

¹¹ Gogoratu behar da EUSTATEN PRAK enpleguari buruzko eskualde mailako datuak eskaintzen dituela, zenbatespenetan oinarrituta, soilik 2010era arte.

17. grafikoa. Jarduera-tasa. 2011



Iturria: Hau oinarri hartuta geuk eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak


Okupazio-koefizienteari edo enplegu-tasari dagokionez ere esan daiteke aldagarrtasun txikia dagoela eskualdeen artean. Nolanahi ere, egonkor eutsi zion 2006 eta 2011 bitartean. Hauexek dira okupazio-koefizienterik handienak dituzten eskualdeak: Deba Garaia (%65,6), Gasteiz (%63,9) eta Tolosa-Goierrri (%63,8). Koefizienterik txikiena, berriz, Ezkerraldekoa da (%59,6), eta ondoren Bilbo (%59,9) eta Eskuinaldea (%61,7). Nahiz eta eskualdeen arteko aldeak txikiak izan, nolani ere azpimarratu beharra dago egoerarik txarrena Eskuinaldearen eskualde mugakideetan dagoela (Ezkerraldea eta Bilbo). Izan ere, esana dugunez, EAEko populazioaren %40 bizi da bertan, eta Gipuzkoako Deba Barrena egongo litzateke ondoren.

Azken urteetan izandako aldaketei dagokionez, esan behar da 2006. urtetik %5 jaitsi dela okupazio-koefizientea EAEn, eta igoera orokorra eta antzekoa izan da horietan eskualde guztietan. Murrizpenik handiena Gasteizen (-%6,3), Durangaldean (-%6), Ezkerraldean (-5,7%) eta Deba Barrenean daude (-%5,5). Jaitsiera EAEko batezbestekoa baino txikiagoa izan da, ordea, Eskuinaldean (-%3,1), Donostialdean (-%4), Tolosa-Goierrin (-%4,1) eta Deba Garaian (-%4,2). Eskualdeen posizioa aldatuz joan da pixkanaka, beraz, eta lurraldeen arteko desoreken tamaina ere ezer gutxi aldatu denez gero, oso txikia dela esan daiteke.

EBri dagokionez, 28ko EBko batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa izango litzateke EAEko eskualdeen langabezi tasa edo okupazio-koefizientea (%64,1ekoa 2011n). Ikuspegi horretatik, sailkapenik hobereana duen eskualdea –Deba Garaia, %65arekin– EBko batezbestekoaren inguruan egongo litzateke, honako erregio hauekin batera, adibidez: Ile de France, Londres edo Frantziako Hego-mendebaldea, baina oso urrun beste erregio batzuetatik, %81eko okupazio-tasa duen Zurichetik. Bestalde, Greziako edo Errumaniako zenbait eskualderen antzeko mailetan legoke Ezkerraldea, baita Espainiako, Esloveniako edo Poloniako beste batzuen parean ere. Era berean, EBk 2020rako ezarritako helburura iristeko 15 puntu baino gehiago falta zaizkio (lanean aritzeko adinean den populazioaren %75), baina egia da ere kasu honetan 2020ko estrategiaren xedea 20-64 urteko populazioari dagokio. Azkenik, Europarekiko alderaketak bukatzeko, esan beharra dago Europako herrialderik gehienetan askoz handiagoak direla enplegu-tasaren arloan eskualdeen artean dauden desorekak EAEko hamaika eskualdeen artean ditugunak baino. EB mailan, batez besteko desbideratzea 14,6koa da, EAEko eskualdeetako 2,7aren aldean, eta zenbait herrialdetan

baino ez daude EAeko eskualdeen antzeko mailak, Danimarkan (2,0), Suedian (3,1) Holandan (3,2)¹². Europako herrialdeetan ere murriztu dira nolabait okupazio-tasen gainean lurraldeen artean dauden desorekak 2006 eta 2011 bitartean.

18. grafikoa. Okupazio-koefizientea. 2011



Iturria: Hau oinarri hartuta geuk eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

2011ko populazio eta etxebizitzaren zentsutik ateratako jarduera-tasekin eta okupazio- edo enplegu-tasekin gertatzen ez den bezala, EAeko enpleguari buruzko inkesta nagusiak (PRA) soilik 2010erako ematen dituzenez eskualde mailako eskualde horien gaineko datuak, Lanbidetik eskuratu dira langabeziari buruzko datuak, eta Lanbiden langabetu gisa erregistraturikoen duten portzentajeari dagokio Lanbideak eskualde bakoitzerako zenbatetsitako guztizko populazio aktiboaren gainean. Alde horretatik, eskualdeen artean dauden diferentziak askoz handiagoak dira jarduera-tasaren aldetik daudenen aldean. Halaxe izan daiteke iturri eta metodologia desberdinak erabili direlako, baita epealdi ezberdinei dagozkien datuak erabili direlako ere¹³.


Langabezi tasarik handiena Ezkerraldeari dagokio (%19,3), ondoren Bilbori (%18,8) eta Gasteizi (%16,8). Gainontzeko eskualdeak EAeko batezbestekoaren azpitik daude, baina langabezi tasarik txikiena eskualde hauetan ditugu: Deba Garaian (%12,1), Bizkaiko Kostaldean (%12,8), Tolosa-Goierri (%12,9) eta Eskuinaldean (%13,3). Bilakaeraren aldetik, igoera nabarmena ageri da 2006. urtetik hona langabezi tasan eskualde guztietan, salbuespenik gabe. EAE osoan, %103,2koa izan da igoera, eta eskualdez eskualde, gehikuntzarik handienak Durangaldean (%142,9), Gasteizen (%130), Deba Garaian (%124,6) eta Bilbon (%112,3) bildu dira. Bestalde, EAeko batezbestekoaren azpitik igo da erregistraturiko langabezi tasa Donostialdean (%83,5), Eskuinaldean (%90,1), Aiara (%93,4), Deba Barrenean (%97,2), Tolosa-Goierri (%97,5) eta Bizkaiko Kostaldean (%83,1).

¹² Emaizta horiek interpretatzean, ez da ahaztu behar EAeko eskualdeen artean dagoen sakabanaketa (Europako hainbat herrialdetako erregioekin).

¹³ Eskualdez eskualdeko jarduera-tasari eta okupazio-tasari buruz eskuragarri dugun azken datua 2011koa da. Erregistraturiko langabeziaren urteko azken datua, berriz (abenduaren 31n), 2013. urtekoa da. Bestalde, laginketako inkestetakoak dira jarduerari eta enpleguari buruzko datuak; langabezikoak, ostera, erregistraturiko langabeziari dagozkie.

Arestian esana dugunez, adierazle honi dagokion eskualde-sakabanaketa okupazio eta jardueraren gaineko adierazleetan bildutakoak baino handiagoa da. Edozelan ere, aurretik zeuden desorekak gutxitu egin dira epealdi horretan, oso modu apalean bada ere, zeren eta hazkunderik handienak hasieran langabezi tasa oso handiak zituzten eskualdeetan (Bilbo) nahiz 2006an posizio erlatibo hobe zuten eskualdeetan gertatu baitira (Deba Barrena, Durangaldea edo Gasteiz).

19. grafikoa. Erregistraturiko langabezi indizea. EAE 2013




Iturria: Lanbide, enpleguko euskal zerbitzua

EAEko gazteen langabezia, EBko herrialde guztietan bezala, handiagoa da populazio osoarena baino. Eskualdeen arteko desorekak, gainera, askoz handiagoak dira populazio osorako erregistraturiko langabeziari dagozkion datuak baino. Aurrerago azalduko dugunez, 2006 eta 2010 bitartean jaitsi egin da sakabanaketa-tasa –hortaz, eskualdeen arteko bateratze-prozesua gertatu da–, baina gazteen langabezi tasak oraindik ere Ezkerraldeko %46aren eta Aiaraiko %7,2koaren artean daude (eskualde horri dagozkion datuak zuhurtziaz hartu behar dira, erabilitako laginketaren tamaina txikia dela eta). Grafikoan ikusten denez, gazteen langabezi tasarik handienak Ezkerraldean (%46,8), Bizkaiko Kostaldean (%42,9), Bilbon (%41) eta Donostialdean (%33,9) daude. Tasarik txikiak, berriz, eskualde hauetan ageri dira: Aiara (%7,2), Deba Barrenean (%16,2), Deba Garaian (%21,9) eta Tolosa-Goierrin (%22,6).

2006. urtetik, gora egin du gazteen langabezi tasak eskualde guztietan, Aiara izan ezik. Langabezi tasaren igoerarik handiena Ezkerraldean (36,4 puntu), Bilbon (30,9), Donostialdean (27,6) eta Bizkaiko Kostaldean (%27,1) izan dira. Arestian esana dugunez, oraindik ere bereziki handiak badira ere, eskualdeen arteko desorekak %29,55 murriztu dira gazteen langabezi tasari dagokionez 2006 eta 2011 artean, eskualde sakabanaketaren tasaren aldakuntzak agerian uzten duenez.

20. grafikoa. Gazteen langabezi tasa. EAE 2011



Iturria: Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

Okupazio, jarduera eta langabezi tasekin batera, lurralde jakin bateko lan-merkatuaren egoera ebaluatzeko, Gizarte Segurantzaren afiliazioen kopurua izan ohi da kontuan.¹⁴ Gizarte Segurantzaren afiliazioaren datuek ematen duten egoera, beharbada aipaturiko mugak direla medio, ez dator bat aurretik azaldutako jarduera, okupazio eta langabeziaren datuekin. Tasarik txikienak, ordea, Ezkerraldean (521,5ekoa 1.000 biztanleko) dago, eta ondoren Bilbon (469), Gasteizen (442,6) eta Deba Garaian (432,3). Hala ere, tasarik txikienak Ezkerraldean (252,3), Bizkaiko Kostaldean (279,6), Deba Barrenean (334,2) eta Tolosa-Goierri (346) ageri dira. Ildo horretan, harrigarria da ikustea Tolosa-Goierri moduko eskualde batean, EAEko langabezi tasarik txikienak izanik, afiliazioen proportziorik txikiena erregistratzen dela. Gasteizen edo Bilbon, aldiz, batezbestekoa baino langabezi tasa badago ere, batezbestekoaren gainetik daude Gizarte Segurantzaren afiliatioetan. Itxurazko kontraesan horien balizko azalpenak emateko, honako hauek aipa litezke: egitura demografiko desberdina (ez da ahaztu behar adierazleak lotu egiten dituela afiliatioak eta egoiliarren guztizko kopurua, eta ez eskualde bakoitzeko populazio aktiboa); eskualde bakoitzeko ezkutuko enpleguaren prebalentzia handiagoa edo txikiagoa eta zenbait eskualdetan Gizarte Segurantzaren afiliatu gabeko talde landunen presentzia handiagoa.


Edozelan ere, nabarmentzekoa da ere 2008. urtetik %10,4 murriztu direla afiliatioak 1.000 biztanleko EAEn, baita eskualde guztietan jaitsiera orokorrak izan direla ere, neurri desberdinean izan bada ere: jaitsierarik handienak Aiaran (-%16,7), Ezkerraldean (-%16,7), Durangaldean (-%13,3) eta Tolosa-Goierri (-%13) daude. Bizkaiko Kostaldean, Eskuinaldean eta Deba Garaian, berriz, txikiagoa izan da bost urteetan metaturiko gutxipena.

Okupazioarekin, jarduerarekin edo langabeziarekin gertatu ez den bezala, krisiak lurraldeen arteko desoreka areagotu du adierazle honetan, eta hazi egin da, gutxi bada ere, 2006an erregistraturiko eskualde sakabanaketa (nahikoa handia zen, txosten honetan aztertutako beste eremu batzuen

¹⁴ Adierazle honek ere baditu mugak, zeren eta ez baititu biltzen Gizarte Segurantzaren afiliatioak, beste mutualitate batzuetan kotizatzen duten funtzionarioenak. Datua interpretatzeko, kontuan izan behar da, gainera, Gizarte Segurantzak ez duela erabiltzen kontzeptu bateratua afiliatuaren banakapen geografikoaren aldetik: bere konturako langileekin langilearen etxearen helbidea erabiltzen da erreferentziatzat. Inoren konturako langileekin, berriz, afiliatioa atxikitzen deneko kotizazio-kontuaren inskripzioari dagokion helbidea erabiltzen da, hots, desberdina da lantokiaren kokapenaren arabera.

aldean). Eskualdeen arteko alde handiago hori, gehienbat, 2008 eta 2013 bitartean izandako ebolu-
zio txarragoatik gertatu da, hasieran egoera okerragoan zeuden eskualdeetan.

21. grafikoa. Gizarte Segurantzako laneko alden afiliazioak (1.000 biztanleko.). EAE 2013



Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra


Nahiz eta pobrezia eta, bereziki haurren pobrezia, eragiten duten kausetan maiz emakumeen enpleguaren garrantzia aipatu¹⁵, hain zuzen ere eusteko eta prebentziorako osagaia den aldetik, hauxe erakusten dute txosteneko datuek, aurrerago ikusiko dugunez: uste denaren kontra, emakumeen langabezia nagusi den eskualdeetan ageri dira pobrezia tasarik handienak eta, oro har, eskasia mailarik handienak. Ildo horretan, datuek agerian uzten dute hiru hiriburu-tako eskualdeetan biltzen dela emakumeen langabeziaren pisurik handiena, eta ondoren Ezkerraldean. Zerbitzuen sektoreak pisu handiagoa izatea da eskualdeon ezaugarri nagusia eta, beharbada, emakume langileen lana eta bizitza pertsonala uztartzeko erraztasun handiagoengatik edota emakumeak lanmerkatuan sartzearen aldeko kultur jokabideak izateagatik. Emakumeen enpleguaren pisurik txikiena Aiara, Durangalde eta Tolosa-Goierrriko eskualde industrializatuenean ageri da, baina joera horretatik aparte dago Deba Garaia. Izan ere, industrializazio maila handia izan arren, batezbestekoaren inguruko mailak ditu adierazle honetan.

2008. urtetik, %4,2 hazi da emakumeek enpleguan EAEn duten pisua –seguru asko enplegua askoz gehiago desegin delako tradizioz gizezkoak nagusi diren sektoreetan hala nola industrian eta eraikuntzan– eta haren pisu erlatiboa handitu egin da eskualde guztietan, Bizkaiko Kostaldean (-%6,8) eta Aiaran (-%0,4) izan ezik. Igoerarik handiena, ordea, Deba Barrenean (%12,9), Ezkerraldean (%11,7), Deba Garaian (%12,9) eta Gasteizen (%6,4) dago. Garrantzizkoa da nabarmentzea adierazle honek ez duela neurtzen emakumeen enplegua kopuru absolutuetan, baizik eta eskualde bakoitzeko guztizko enpleguan duen pisu erlatiboaren igoera.

Eskualde bakoitzean duen posizio erlatiboari dagokionez, ez da aldaketa handirik ikasten 2008 eta 2012 bitarteko epealdian. Alabaina, eskualde sakabanaketaren tasaren aldakuntzak erakusten duenez, eskualdeen arteko desberdintasunak %13,9 murriztu dira epealdi horretan, zeren eta emakumeen enpleguaren pisua gehiago handitu baita enplegu hori txikiagoa zeneko zenbait eskualdetan (hala nola Deba Barrenean, Durangaldean edo Ezkerraldean).

¹⁵ Buchel, et al. Is mother's employment an effective means to fight family poverty? Empirical evidence from seven European countries, LIS WP, 363, 2003.

22. grafikoa. Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa. EAE 2012




Iturria: Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren Zentsua (Eskaria).

Soldatako enplegu finkoaren edo mugagabearen pisuaren aldetik eskualdeen artean dauden desberdintasunei dagokienez, oro har txikiak direla esan behar da: Deba Garaiko kasu atipikoa alde batera utzita, guztizko enpleguaren %74aren eta %54aren artekoak dira, hots, EAEko batezbestekoaren %85aren eta %116aren artekoak. Deba Barrenaren kasu atipikoa dela aipatu da zeren eta, ageriko izaera industrial duenez gero, kontratu mugagabeen prebalentzia handiagoa espero baitzitekeen. Bi alderdi aipatu behar dira horri dagokionez: alde batetik, metodologiaren ikuspegitik, soldatapeko enplegua baizik ez da biltzen adierazle horretan eta kooperatibistak ez dira bertan sartzen. Hori dela-eta, adierazleak ez luke behar bezala bilduko kooperatiben mugimendurik indartsuena duten eskualdeen egoera. Bestalde, datuetan ez da erlazionatzen eskualdeetan ezaugarri espezifikoak dituen enplegu mugagabearen prebalentzia handiagoa; izan ere, tasarik handiena duten hiru eskualdeak nahiz tasarik txikiena dutenak elkarrengandik bereizten dira, argi eta garbi, ezaugarri nagusien aldetik.

Edozelan ere, esan behar da 2008. urtetik %2,1 handitu dela soldatapeko enplegu finkoaren pisua EAEn, eta eskualde guztietan izan dira gehikuntzak, Bilbon (-%1,3) eta Bizkaiko Kostaldean (-%1,1) izan ezik. Gehikuntzarik handiena Durangaldean (%5,6), Aiaran (%4,9), Donostialdean (%3,7) eta Gasteizen (%2,6) ageri da. Soldatapeko enplegu finkoaren proportzioa handitu egin da atzeraldi ekonomikoan, seguru asko, lanpostu gehiago desegin direlako aldi baterako lanpostuetan. Hala, 2008 eta 2012 bitartean, %7,8 jaitsi da soldatapeko lanpostu finkoen kopurua EAEn. Aldi baterako soldatapeko lanpostuetan, berriz, %23,7 jaitsi da. Eskualde bakoitzak duen posizio erlatiboari dagokionez, ez da izan aldakuntzarik soldatapeko enplegu finkoaren proportziorik handiena duten eskualdeetan, eta ezin esan daiteke eskualdeen arteko bateratze- edo urruntze-mugimendu bereziki nabarmenik gertatu denik.

23. grafikoa. Soldatako finkoaren enpleguaren pisu erlatiboa. EAE 2012




2.2.3. Enpresa-sarea eta -dinamismoa

Eskualde bakoitzeko enpresa-sareari eta -dinamismoari dagokionez, eskualderik urbanizatuena dira –Bilbo eta Donostialdea, bereziki– establezimendu kopururik handiena dutenak erroldaturiko 1.000 biztanleko. Bilakaeraren ikuspuntutik, esan beharra dago 2008. urtetik %13,5 jaitsi dela establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko EAEn. Ratio honen bilakaera negatiboa izan da eskualde guztietan, Aiaran izan ezik, non antzeko mailari eutsi zaion (%0,2). Eskualdez eskualde, jaitsierarik handienak Donostialdean (-%17), Bilbon (-%15,2) eta Ezkerraldean (-%14,2) daude.

Nabarmentzekoa da, adierazle honi dagokionez, 2008 eta 2013 bitartean gutxitu egin direla lurraldeen arteko desberdintasunak edo desorekak, eta eskualde-sakabanaketaren tasa %21,9 murriztu da. Eskualdeen sakabanaketa txiki hori gertatu da, gehienbat, 2008an egoera hobean ziren eskualdeen okertze handiagotatik. Izan ere, jaitsierarik handienak Donostialdean Bilbon izan ziren: 2008. urtean –eta, jaitsierarik gorabeherak, 2013an ere bai– establezimenduen dentsitate handieneko eskualdeak dira.


24. grafikoa. Establezimendu kopurua 1.000 biztanleko. EAE 2013



EAEko establezimenduen 1.000 biztanleko lanpostuen kopurua neurtzen bada, nabarmen aldatzen da egoera. Kasu honetan, establezimenduetako enplegu mailarik handiena dutenak Eskuinaldea (493, mila biztanleko) eta EAEko erdialdean eta hegoaldean daudenak dira: Deba Garaia (488), Aiara (436) eta Gasteiz (324), Bilborekin batera (423). Tasarik txikienak, berriz, Bizkaiko Kostaldean (282) eta Ezkerraldean (290) daude, eta ondoren Gipuzkoako Deba Garaia (356) eta Tolosa-Goierri (369) datoz.

Establezimenduen kopuruan legez, jaitsiera handia gertatu da 2008 eta 2013 bitartean (%10ekoa) establezimenduen kopuruan. Ratio horrek eskualde guztietan egin du behera, eta jaitsierarik handienak eskualderik populatuenetan gertatu dira: Ezkerraldean (-%12,5), Bilbon (-%11,5), Gasteizen (-%11,5) eta Donostialdean (-%11,5). Jaitsiera txikieneko eskualdeak, berriz, Eskuinaldea (-%5,2), Bizkaiko Kostaldean (-%5,8), Deba Garaia (-%9,1), Aiara (-%10,1) eta Tolosa-Goierri (-%10,3) dira. Bestalde, ezin esan daiteke, alde horretatik, eskualdeen arteko bateratze-prozesuko mugimendurik gertatu denik, zeren eta murrizpena nahikoa antzekoa izan baita horien artean.

25. grafikoa. Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko. EAE 2013




Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

Nahiz eta establezimenduen batez besteko tamaina hasiera batean garrantzi txikikotzat jo daitekeen, hainbat arrazoi direla medio sartu dira adierazle multzo honetan: lehenik eta behin, industri enpleguarekin duen erlazioagatik. Izan ere, adierazle garrantzizkoa da ikuspuntu askotatik. Bigarrenik, lan-tokien tamainak erlazio argia du erlazio ekonomikoen eta produktiboen funtsezko elementuekin hala nola negoziazio kolektiboarekin edo laneko harremanen indibidualizazio handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Espero zitekeen moduan, establezimendurik handienak Arabako eta Aiarako eskualde industrializatueta kokatzen dira, baina establezimenduen batez besteko tamainaren sailkapeneko hirugarren tokian Eskuinaldea dago. Batez besteko plantillarik txikieneko establezimenduak Bizkaiko Kostaldean, Donostialdean eta Eskuinaldean daude.

Bilakaeraren aldetik, 2008. urtetik %3,2 handitu da EAeko establezimenduen batez besteko tamaina, seguru asko establezimendu txikiagoen ixte-tasa handiagoaren ondorioz. Eskualdez eskualde, azken sei urtean txikitu egin da establezimenduen batez besteko tamaina Aiaran (-%10,3), Durangaldean (-%2,6), Gasteizen (-%2,3) eta Bizkaiko Kostaldean (-%0,1). Gainerako eskualdeetan, gora egin du lanpostuen batez besteko kopurua establezimenduko, batez ere Donostialdean (%6,6), Eskuinaldean (%5,7) eta Bilbon (%4,3). Lurralde historikoen mailan, Araban txikitu egin da establezimenduen batez besteko tamaina (-%2,7). Bizkaian, berriz, handitu egin da (%3,2), eta batez ere Gipuzkoan (%6,6). Eskualde-sakabanaketaren tasa %10,3 jaitsi da 2008. urtetik 2013. urtera arteko epealdian, hots, murriztu egin dira eskualdeen arteko desberdintasunak enpresa-establezimenduen batez besteko tamainaren aldetik, zeren eta jaitsierarik handiena batez besteko tamainarik handiena zuen eskualdean gertatu baita (Aiara). Donostialdean, berriz, 2008an batez besteko tamainarik txikiena zuen eskualdean hain zuzen, batez besteko tamaina txikitu bakarrik ez %6,6 hazi ere egin da: establezimenduko 4 lanpostutik 4,3 lanpostura.

26. grafikoa. Establezimenduen batez besteko tamaina. EAE 2013




Aurrerago ikusiko dugunez, eskualde bakoitzeko egitura produktiboak eta, zehazki, eskualde bakoitzeko sektore ekonomikoetara duten orientazioak oso lotura zuzena dute eskualdeon egoera globalarekin eta haien bizi-kalitatea neurtzen duten adierazleekin. Alderdi hori neurtzeko erabil-tako oinarritzko adierazlea industri sektoreko lanpostuen proportzioa da.

EAEko industri sektoreko lanpostuen %21,3ko pisua izanik, hiriburuetako eskualdeek dute (Gasteizen izan ezik, %25,02koa baitu) industri enpleguaren pisurik txikiena, eta bereziki nabarmentzen dira Bilbo, Donostialdea eta Eskuinaldea. Bilboren kasua oso berezia; industri sektoreko¹⁶ enpleguaren %4 du, beharbada bere lurralde dimentsio txikiak zaildu egiten dutelako horrelako enpresak finkatzea. Edozelan ere, populazioaren oso zati handia biltzen duten hiru eskualde horietako bakoitzean ez da gainditzen da industri enpleguaren %20. Barnealdeko eskualdeetan, aldiz, bereziki Gipuzkoan (baina Durangaldean eta Aiaran ere bai), %35etik gorako tasak dituzte. Nabarmentzekoa da Aiara bailara, industri sektoreko enpleguaren ia %50 biltzen du.

2008. urtetik hona, %11,3 murriztu da EAEn industri enpleguaren pisua, eta bilakaera negatiboa izan da eskualde guztietan. Industri enpleguaren proportzioa neurri handiagoan txikitu da Bilbon (-%26,8), Ezkerraldean (-%19,8), Bizkaiko Kostaldean (-%16,1), Deba Barrenean (-%14,1) eta Deba Garaian (-%14). Jaitsierarik txikiena, aldiz, Eskuinaldean(-%1,4) gertatu da, eta ondoren Tolosa-Goierri (-%4,1) eta Aiaran (-%4,5). 2008 eta 2013 urte artean, %8,1 handitu dira eskualdeen arteko desberdintasunak industri sektorearen pisuaren aldetik –berez nahikoa pisu handia–, eskualde sakabanaketaren tasaren aldakuntzaren arabera, gehienbat hasieran industri sektorearen pisu handia zuten hainbat eskualdetako murrizketa handiagoagatik. Beste adierazle batzuen aldean, garrantzizkoa da esatea, beraz, aurretik zeuden desorekak nolabait areagotu direla.

¹⁶ Bilboko populazio osoaren ia %16 biltzen du, baina EAEko industri enplegu osoaren %3,7 besterik ez du. Industri enplegua EAEko batezbestekoaren %21 baino ez da Bilbon, Aiarako batezbestekoaren %229aren aldean.

27. grafikoa. Industri sektoreko lanpostuen proportzioa. EAE 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

Pentsa liteke eskualde edo gune geografiko jakin baten garapen ekonomikoak zerikusia duela ez bakarrik industri sektorearen pisu handiagoarekin edo txikiagoarekin, baizik eta, bereziki, industri enpresa handien presentziarekin. Izan ere, ekonomikoari eragiteko elementuak izan daitezke, zuzeneko eta zeharkako lanpostuak sortuz, eta ondasunen eta zerbitzuen enpresa hornitzaile txiki eta ertainak sorrarazi ditzake bere inguruan. Antzekoak dira alde horretako egoera eta industri sektoreko lanpostuen proportzioak agerian uzten dutena, baina zenbait desberdintasun antzematen dira aurreko adierazlearekiko. Ildo beretik, nabarmentzekoa da erkaketa eginez Deba Garaia egoera hobea: 106 lanpostu ditu 1.000 biztanleko 250 langiletik gorako industrietan. EAE osoko batez bestekoa, berriz, 20,8 lanpostukoa da. Aurreko adierazlean EAeko batezbestekoaren %222an kokatzen da Deba Garaia. Kasu honetan, berriz, %511ren inguruan dago, hots, EAE osoaren batez bestekoa baino bost aldiz handiagoa. Antzeko zerbitu gertatzen da Aiaran, eta bere egoera, alde horretatik, urrutiago dago nabarmen aurreko adierazleari dagokion batezbestekotik.


Deba Barrenak kontrako egoera du hain zuzen ere. Industriaren pisu nahikoa duen eskualdea izanik (enpleguaren %36 industriaren sektorean sortzen da, aurretik esana dugunez), industri enpresa handietako enplegu proportziorik txikienetakoa duen eskualdea da gutxi industrializaturik dauden Bilborekin, Donostialdearekin eta Ezkerraldearekin batera.

2013an eskualdeen artean zeuden desberdintasunak alde batera utzita, esan beharra dago enpleguak horrelako enpresetan duen pisua murriztu egin dela EAeko eskualde guztietan¹⁷, baina jaitsiera bereziki argiak izan dira Bilbon (-%53,3), Ezkerraldean (-%46), Durangaldean (-%35,5) eta Deba Garaian (-%32). Jaitsiera txikiagoa izan da, ordea, Eskuinaldean (-%1,1), Deba Barrenean (-%7,2), Aiaran (-%14,6), Bizkaiko Kostaldean (-%16), Tolosa-Goierri (-%17,6) eta Gasteizen (-%22,8). Bestalde, garrantzizkoa da adierazte adierazle horrek duela, epigrafe honetan aztertutako guztien artean, eskualde-sakabanaketarik handiena, hots, eskualdeen arteko bateratzerik txikiena duena, azken urteotan eskualdeen arteko desorekak nolabait gutxitu badira ere. Izan ere, beste adierazle batzuetan gertatzen den legez, 2008 eta 2013 bitartean behera egin dute eskualdeen arteko desberdintasunek adierazle honetan: %5,1eko jaitsiera eskualde sakabanaketaren tasan. Eskualdeen arteko

¹⁷ Garrantzizkoa da gogoraraztea adierazle honek 1.000 biztanleko neurtzen duela enplegu kopurua. Aurrekoak, aldiz, industri sektoreko enpleguen proportzioa neurtzen zuen. Enplegu mota honetako pisu erlatiboa galtzeak ez du zerikusirik termino absolutuetan neurturiko enpleguaren jaitsierarekin.

desberdintasun hori gertatu da zenbait eskualdetako jokaera txarragoagatik (Deba Garaian, esaterako), zeren 2008an tasa handiagoak baitzizuten adierazle honetan.

28. grafikoa. 250 enplegatu edo gehiagoko industriako enplegua 1.000 bizt. EAE 2013




Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

EAEko eskualdeen artean badira desberdintasunak –eta, datuen arabera, gero eta gehiago- teknologia maila handiko enpresek egitura produktibo orokorrean duten pisuan (teknologia handiko sektoreetan, 1.000 biztanleko lanean diharduten pertsonen kopuruaren arabera neurtua). Deba Garaiak du tasarik handiena adierazle honetan (268,7), eta ondoren datoz Deba Barrena (204), Tolosa Goierri (170,9) eta Durangaldea (152,1). Hortaz, horrelako enplegu mota EAEko erdigunean kokaturiko eskualdeetan metatzen da. Adierazle honen tasarik txikienak, berriz, mugako eskualdeetan ageri dira: Ezkerraldean (94,8), Eskuinaldean (103,3), Bilbon (104,5) eta Donostialdean (113,7). Hortaz, lurraldeen arteko diferentziak nahikoa handiak dira, eta Deba Garaiko batezbestekoaren %200aren eta Ezkerraldeko %78aren arteko tasak daude.

2007. urtetik, %0,4 hazi da teknologia maila handian 1.000 biztanleko lanean dihardutenen kopurua eta, beraz, alde horretan ez aurrera ez atzera daudela esan liteke. Epealdi honetan, bilakaera berezia ikusten da eskualdeen artean. Hala, igoera handiak ageri dira Deba Barrenean (%36,8), Donostialdean (%23,5), Deba Garaian (%17), Ezkerraldean (%4,1) eta Aiara (%3,9), eta jaitsierak gainerako eskualdeetan, bereziki handiak Eskuinaldean (-%26,2), Bizkaiko Kostaldean (-%19,5) eta Tolosa-Goierri (-%14,7). Bilakaera horren ondorioz, 2007 eta 2011 bitartean, handitu egin dira eskualdeen arteko desberdintasunak teknologia maila handiko enpleguaren aldetik. Hala, %23,2ko igoera izan da eskualde-sakabanaketaren tasa.

29. grafikoa. Teknologia handiko sektoreen langileen kopurua, 1.000 biztanleko. EAE 2011



2.3. Eskualdeen arteko desberdintasunak populazioaren bizi-baldintzen aldetik


2.3.1. Errenta eta pobrezia

Aurreko atalean, eskualde bakoitzaren per capita BPGd-a aztertu dugu, EAEko eskualde bakoitzaren aberastasun maila baloratzeko. Epigrafe honetan, beste datu-iturri eta adierazle batzuen bidez aztertuko da aberastasuna –familien errenta mediana baliokidea, inkestako datuen bidez, eta batez besteko errenta pertsonala, euskal ogasunek sortzen duten informazio fiskala baliatuz- eta, bestalde, pobrezia mailak ere aztertzen dira, edo bestela esanda, errenta baliagarriaren banaketan dagoen ezberdintasuna.

Batez besteko errenta pertsonalari dagokionez, ezin esan daiteke desberdintasun oso nabarmenik dagoenik eskualdeen artean, ezta nabarmen aldatu direnik ere (baina bi urtekoa besterik ez da kontuan hartu den bilakaerako epealdia). 2011n, EAEko batezbestekoaren gaitetik zeuden (batez besteko 19.715 euroko errenta pertsonala urtean) Eskuinaldea (23.233), Deba Garaia (20.896), Tolosa-Goierrri (20.636), Donostialdea (20.399), Gasteiz (20.206), Bizkaiko Kostaldea (19.909), Aiara (19.787) eta Bilbo (19.787). EAEko batez besteko errenta pertsonalaren azpitik daude Ezkerraldea (16.816), Durangaldea (19.071) eta Deba Barrena (19.515). Muturreko tasak dituzten bi eskualdeak EAEko batezbestekoaren %118aren eta %85aren artekoak dira, hurrenez hurren.

2009. urtearen aldean, %0,4 hazi da batezbesteko errenta pertsonala EAEn. Eskualdez eskualde, igoyerak izan dira Aiara (%3,3), Tolosa-Goierrri (%3,1), Gasteiz (%2,4), Bizkaiko Kostaldean (%2,1), Deba Barrenean (%0,8) eta Ezkerraldean (%0,5). 2009koaren antzeko maila eutsi zaie Donostialdean (%0,3), Durangaldean (-%0,3) eta Ezkerraldean (-%0,3), eta jaitsiera gertatu da errentaren mailan Bilbo (-%1,5) eta Deba Garaia (-%0,7) eskualdeetan. Bilboren kasuan, esanguratsua da zein bilakaera gertatu den soilik bi urteren buruan errenta pertsonalik handieneko eskualdeen artean egotetik errentarik txikienak dituzten eskualdeen taldera izatera.

30. grafikoa. Batez besteko errenta pertsonala. Urteko euroak. EAE 2011



Iturria: Hau oinarri hartuta geuk eginikoa: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiarren estatistika

Oro har, eskualdeek errenta pertsonalarekiko duten posizio erlatibo bera dugu lanaren diru-sarreraren ondoriozko errenta pertsonala aztertzean. Eskuinaldea eta Deba Garaia dira, kasu hone-tan, tasarik handienak dituztenak. Ezkerraldeak eta Durangaldeak, ordea, laneko errentarik txikie-nak dituzte. Guztizko errentaren kasuan legez, eskualde-sakabanaketa txikia da, eta ezer gutxi aldatu da aztertutako epealdian. Datu horietatik harago (eranskinean zehazki bilduak), komeniga-ria da aztertzea guztizko errentatik zein portzentaje datorren lanetik eskualde bakoitzean. Alde horretako diferentziak oso txikiak dira –baita aurreko urtearekiko aldaketak ere-, eta Durangaldeko %66aren eta Deba Barreneko eta Bilboko %60aren artekoak dira.


Batez besteko errentaren adierazle baliokide hori ez dator bat aurretik aztertutako errentako adie-razleekin alderdi askotan: alde batetik, bere iturria ez da erregistro administratiboa (halakoak dira zergen aitortpenak), baizik eta populazioaren laginketa esanguratsuan oinarritutako inkesta; bes-talde, adierazle hori famili unitate osoari dagokio, eta familien tamaina eta familien baitako eko-nomiak kontuan hartzen duen baliokidetza-eskala aplikatzen da (ikus eranskinak). Gainera, datuak 2012koak dira, ez 2011koak. Azkenik, hileko datuak dira, ez urtekoak. Desberdintasun horiek gora-behera, egoerak agerian uzten du adierazleen egoera oso antzekoa dela, eskualde bakoitzak duen posizio erlatiboari, aztertutako bi urteen artean gertaturiko aldaketei eta eskualde sakabanaketa txikiari dagokienez behinik behin.

2012. urtean, EAEko errenta mediana baliokidea 1.494,9€-koa zen pertsonako eta hileko, eta horrek esan nahi du populazioaren %50ak zuela zifra horretatik gorako errenta baliokidea eta gainerako %50ak errenta txikiagoa. Eskualdez eskualdea, errenta mediana baliokiderik handiena Deba Garaian dago (1.637€), eta ondoren Aiara (1.610,1€) eta Deba Barrenean (1.583,5€). EAEko batez besteko errentarik azpitik soilik Ezkerraldea (1.305,9€) eta Durangaldea (1.449,6€) daude.

2008aren aldean, errenta mediana baliokidea %1,4 hazi zen 2012an EAEn. Hala ere, joera desberdina dago eskualdez eskualde. Igoera handiak ageri dira Deba Barrenean (%9,3), Aiara (%8,5), Donos-tialdean (%7,2) eta Deba Garaian (%5,7). Bilakaera negatiboa dago, aldiz, Eskuinaldean (-%11,5) eta Durangaldean (-%2,7). 2008koaren antzeko kopuruei eusten zaie Bilbon (%0,1), Ezkerraldean (-%0,3) eta Tolosa-Goierrin (-%0,4).

Ezkerraldean izan ezik (EAEko batezbestekoaren %87aren errenta mediana baliokidea du), gainerako eskualdeetan EAEko batezbestekotik pixka bat urruntzen direla esan liteke. Gainera, esan beharra dago 2008 eta 2012 bitartean %13,8 murriztu direla eskualdeen arteko desberdintasunak errenta mediana baliokidean. Sakabanaketa txiki horretarako lagungarria izan da Eskuinaldean erregistraturiko okertzea; izan ere, 2008an errenta mediana baliokiderik handiena zuen eskualdea zen. Bestalde, eragina izan dute Donostialdearen eta Deba Barrenaren hobekuntzak, 2008an 10. eta 9. tokian baitzeuden.

31. grafikoa. Errenta mediana baliokidea. Euroak/hilean. EAE 2012



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Politiketako Saila Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI)

Familiaren errentaren inguruan eskualdeen artean ikusten diren diferentzia txikiak (aitorturiko errenta fiskalaren, errenta mediana baliokidearen edo BPGd-aren kopuruetan neurtua biztanleko) ez datoz bat, argi eta garbi pobrezia adierazleetan eskualdeen artean dauden desberdintasun nabarmenekin. Alde horretatik, pentsa liteke ezen, eskualde bakoitzaren batezbesteko errenta esku-ragarriaren antzekoa izanik, desberdintasun garrantzitsuak gertatzen direla eskualdeen artean banaketaren aldetik.


Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoko egiten duen pobrezia errearen adierazleak –Pobrezia eta Gizarte Beharren Inkestak lortu (PGBI)– pobrezia bi hurbilpen edo dimentsio uztartzen ditu: Mantentze-pobrezia, famili unitatearen ohiko beharrak betetzeko nahikoa diru-sarrerak jasotzeko buruzkoa, eta metatze-pobrezia, familiak behar izan ditzakeen ekipamenduekin eta ondarearekin lotua; bi dimentsioetan txiroak diren familiei dagokie pobrezia erreala, edo nahikoa posizio onarekin dimentsio batean beste dimentsioan dituen gabeziak konpontzerik ez duten familiei.

2012an, pobrezia errearen tasarik handienak Bilbon (%9,5), Gasteizen (%6,2), Ezkerraldean (%5,8) eta Eskuinaldean (%5,1) zeuden. EAEko pobrezia errearen batezbesteko tasatik hurbilago (%4,2), Gipuzkoako Donostialdea (%4,1) eta Tolosa-Goierri (%4,5) daude. Baxuenak, berriz, hauexei dagozkie: Deba Garaia (%2,0), Deba Barrenari (%2,2), Aiarari (%2,2), Durangaldeari (%2,4) eta Bizkaiko Kostaldeari (%2,9).

Pobrezia-tasa handiagoa eta populazio handia dutela-eta, oro har, hiri izaera handiagoko eskualdeetan metatzen da pobrezia errearen bizi den pertsona kopururik handiena: Bilbo (%27,6), Ezkerraldea (%19,8), Donostialdea (%16,8) eta Gasteiz (%15,1). Lau eskualde horietan metatzen da pobrezia

errealaren kasu guztien %79,4, eta EAeko populazio osoaren %68 biltzen dute. Era berean, esan beharra dago Bilboren, Ezkerraldearen eta Eskuinaldearen eskualde mugakideetan biltzen dela EAeko pobrezia errealaren kasu guztien %55, baina populazioaren %40 baino ez dira. Ildo horretan, Bilboko pobrezia errealaren kasuek bikoiztu egiten dute bere pisu demografikoaren arabera egokitu beharreko kopurua, baldin eta pobrezia errealaren tasa berak izango balira EAeko eskualde guztietarako.

32. grafikoa. Pobrezia errealaren tasa. EAE 2012



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI).

Adierazleak 2008 eta 2012 bitartean izan duen bilakaerari dagokionez, pobrezia errealaren tasaren igoerarik handiena Gipuzkoako Tolosa-Goierri eta Deba Garaiko eskualdeetan bildu da; nolana ere, batezbestekoaren azpitik jarraitzen dute. Eskuinaldean ere gertatu da hazkunde nabarmena, halako moldez non 2012an pobrezia-tasarik handiena duten lau eskualdeen artean kokatu baita. 2008 eta 2012 bitartean, berriz, behera egin du pobrezia errealaren tasak Durangaldean eta, pixka bat, Aiara bailaran.


Arestian esana dugunez, desberdina da, ageri-agerian, hainbat eskualdek pobrezia errealaren tasaren aldetik duten egoera: EAE osoko batezbestekoaren %18oaren eta %37aren arteko tasak ditugu. Hala eta guztiz ere, 2008 eta 2012 bitartean bateratzeko joera izan du pobrezia errealaren tasak hainbat eskualdetan, eta %18 jaitsi da eskualde-banaketaren tasa epealdi horretan. Sakabanaketa txikiago horretan eragina izan zezaketen abiapuntuan posizio erlatibo ona zuten eskualdeetan erregistraturiko pobrezia tasaren igoerek, Tolosa-Goierri, Deba Garaia edo Bizkaiko Kostaldean adibidez.

Pobrezia ez du eragin berdina gizarte taldeetan eta adin-tarteetan. Ildo horretan, azterlan ugari agerian utzi dute zein neurritan hazten ari den nabarmen haurren pobrezia Europa osoan eta EAEn ere bai - edo zehatzagoak izateko, seme-alabak dituzten familien pobrezia. Azterlan horietan agerian geldituenez, pobrezia arrisku nagusiak pertsona nagusiengandik gazteengan edota seme-alaba txikiak dituzten pertsonengan mugitzen ari da eta, hainbat arrazoi direla medio, gizarte babeserako euskal zerbitzua ez da hain eraginkorra haurren pobrezia aurre egiterakoan seme-alabarik ez dutenen edo adinekoen pobrezia baino¹⁸. 2012an, EAEn bizi diren 14 urtetik behera-

¹⁸ ikusi Haurren pobrezia Euskadin, (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, 2013).

koen %9,5 pobrezian bizi da. Haurren pobrezia-tasari handienak eskualde hauei dagozkie: Bilbo (%16), Gasteiz (%14), Ezkerraldea (%12,8) eta Tolosa-Goierri (%10,8). Haurren pobrezia-tasari txikiena, berriz, Deba Garaian (%2,6), Bizkaiko Kostaldean (%3,2), Deba Barrean (%3,3) eta Aiaran (%3,5) dituzte. Egoera horiek lurraldeen artean duten metaketaren aldetik, nabarmentzekoa da, populazio osoaren pobrezia errealarekin gertatzen zen legez, hiru eskualde mugakidek – Ezkerraldeak, Eskuinaldeak eta Bilbok- biltzen dutela haurren pobrezia-tasari guztien %55, baina populazioaren %40 besterik ez dute.

33. grafikoa. Haurren pobrezia-tasa. EAE 2012



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia-tasa eta Gizarte Desberdintasun Indizea (PGDI).

2008koaren aldean, %2,2 hazi da haurren pobrezia-tasa, eta igotzen izan dira honako eskualde hauetan: Tolosa-Goierri (10,8 puntu portzentual), Gasteizen (4,5), Ezkerraldean (%4,4) eta Deba Garaian (%2,6). 2008 eta 2012 bitartean, berriz, behera egin du haurren pobrezia errealaren tasak Durangaldean (-2,9 puntu portzentual), Bizkaiko Kostaldean (-1,1) eta ia berdina eusten zaio Deba Barrean (-0,3), Donostialdean (0) eta Bilbon (0,3).

Pobrezia-tasari gainontzeko adierazleekin gertatzen den bezala, eskualdeen arteko desberdintasunak oso handiak dira: EAE osoko batezbestekoaren %16,8aren eta %27,7aren arteko tasari ageri dira. Hala ere, nabarmentzekoa da 2008 eta 2012 bitartean EAEko eskualdeen arteko desberdintasunak behera egin dutela haurren pobrezia-tasari dagokionez; izan ere, eskualde-sakabanaketaren tasa %24,3 jaitsi da. Sakabanaketa txikiagoa gertatu da, gehienbat, 2008an egoera hobean zeuden eskualdeetan izandako okertzeagatik.


Ongizaterik ezaren tasa, PGBI era bildua, mantentze-pobrezia-tasari dagokio, eta hala deritzo dirubaliabide nahikorik ez dagoenean epe laburrean gizarte jakin batean beharrezkotzat jotzen diren gastuei aurre egiteko, hain zuzen ere gizarte horretako bizi-moduan, ohituretan eta ohiko jardueretan parte hartu ahal izateko. Ongizaterik ez izateko arriskuan daude, aipaturiko epealdian, gizarte jakin batean espero diren gutxiengoko ongizate mailak izateko aipaturiko mugatik beherako diru-sarrerarik ez duten familia guztiak. Arestian aipaturiko pobrezia errealaren tasari pobrezia-tasari bizi-

pen errealari dagokie nolabait, eta diru-sarrera baxuen adierazlea, berriz, prekaritatea edo diru-sarrera baxuak dauden egoerei dagokie, ez ezinbestean pobrezari lotuta¹⁹.

2012an, eskualde hauek dute ongizaterik ezaren tasarik txikiena: Aiara (%3,5), Bizkaiko Kostaldeak (%6), Tolosa-Goierri (%6,7) eta Deba Barrenak (%6,9). Tasarik handienak, berriz, Bilbo (%13,6), Ezkerraldeari (%12,4) eta Gasteizi (%10,8) dagozkie. 4 eskualdetan metatzen da –Ezkerraldean, Bilbon, Donostialdean eta Gasteizen– ongizaterik ezaren kasu guztien %75,5, baina EAEko populazio osoaren %68 biltzen dute. 2008. urtearen aldean, ongizaterik ezaren tasaren igoerarik handiena Deba Garaian (%342,1) eta Durangaldean (%194,3) dugu, bien abiapuntua ongizaterik ezaren tasa nahikoa baxua izanik. Igoerarik handieneko hurrengo eskualdeak Gasteiz (%63,6), Ezkerraldea (%59,6), Tolosa-Goierri (%42,6) eta Deba Barrena (%40,8) dira. 2008 eta 2012 artean, berriz, nabarmen egin du behera ongizaterik ezaren tasak Aiara (-%43,5) eta pixka bat Bilbon (-%1,4).

Pobrezia gainontzeko adierazleekin gertatzen den bezala, oraindik ere oso handiak badira ere (muturreko tasak EAEko batezbestekoaren %35aren eta %135aren bitartekoak dira), murriztu egin dira ongizaterik ezaren tasaren desorekak krisian EAEn. 2008 eta 2012 bitartean, %37,5 murriztu dira ongizaterik ezaren tasaren desberdintasunak eskualdeen artean, eskualde sakabanaketaren tasaren aldakuntzak erakusten duenez. Aldaketa hori gertatu da, gehienbat, 2008an ongizaterik ezaren tasa txikiagoak zituzten hainbat eskualdetan izandako okertze handiagotatik.

34. grafikoa. Ongizate ezaren tasa erreal. EAE 2012



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI).

2.3.2. Gizarte prestazioak eta gastu publikoa


EAEn, langabetu gisa inskribaturiko pertsonen %52,7k jasotzen zuen, 2013an, langabeziagatiko prestazioen eraginkortasun horizontalari buruzko adierazlean kontsideraturiko langa-

¹⁹ Kalkulatzen da era eta oinarriko kontzeptu metodologikoak ezberdinak izan arren, EINEk eta EUROSTATEk erabiltzen duten diru-sarrera txikien edo pobrezia erlatiboko arriskuaren adierazlearen antza du, eta erreferentziako lurraldeko errenta mediana baliokidearen %60tik beherako errentak dituzten familien ehunekoari dagokio.

beziagatiko prestazioren bat²⁰ (langabeziaren laguntzako prestazioa, laguntzako subsidarioa edo gizarteratze errenta aktiboa). Eskualdez eskualde, proportziorik handiena Donostialdeari dagokio (%59,2), eta ondoren Bizkaiko Kostaldeari (%58), Deba Garaia (%55,7) eta Tolosa-Goierri (%55,3) eta Ezkerraldeari (%53,8). Langabeziagatiko prestazioaren estalduratasarik txikienak, berriz, hauexek dituzte: Bilbok (%45,6), Aiara (%50), Ezkerraldeak (%51,1), Gasteizek (%52,1), Durangaldeak (%53,2) eta Deba Barrenak (%53,7).

Langabezi tasak azken urteetan etengabe gora egin izanaren ondorioz, %13,3 hazi da 2006 eta 2013 bitartean prestazio horietako bat jasotzen duten langabetuen proportzioa EAE osoan. Tasaren gutxipenik handiena Gasteizkoa izan da (-%17,9), eta ondoren, hauexetan: Bizkaiko Kostaldean (-%16,9), Bilbon (-%15,5) eta Ezkerraldean (-%14,6). Murrizpenik txikiena, berriz, Aiaran gertatu da (-%0,8). Ezin esan daiteke alde horretan eskualdeen arteko desberdintasun handirik dagoenik; EAEn batez bestekoaren %112 du Donostiak eta txikienak, Bilbok, batezbesteko horren %86. Ildo horretan, aldaketa nahikoa handia gertatu da, zeren eta, 2006an, askoz handiagoak baitziren eskualdeen arteko desberdintasunak langabeziagatiko prestazioen estaldurari dagokionez.

35. grafikoa. Enpleguagatiko prestazioaren eraginkortasun horizontala. EAE 2013



Langabeziagatiko prestazioekin batera, diru-sarrerak bermatzeko sistema nagusia Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) inguruan dago bideratuta. Langabeziagatiko prestazioekin gertatzen ez den bezala, eskualdeen arteko desberdintasun nabarmenak ditu DBEren estaldura-tasak, lehenik eta behin eskualdeen arteko pobrezia prebalentziaren gaineko aldaketak eraginda. Edozelan ere, DBE jasotzearen inguruan eskualdeen artean dagoen aldakortasuna oso nabaria da, zeren eta batezbestekoaren %166aren (Bilbon) eta %49aren (Deba Garaia)²¹ bitartekoa baita. Ez da egin adie-

²⁰ Ez da erabili langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasa, adierazlea ez nahasteko, SEPEk izen horrekin erabiltzen duena eta modu berean kalkulatu ez dena.


²¹ Pentsa liteke eskualdeen arteko desberdintasunak gertatzen direla batetik eskualde bakoitzean pobrezia duen prebalentzia ezberdinagatik, eta bestetik 'non take up' deritzon efektuagatik, hots, diru-prestazioen balizko hartzaileek diru-prestazio horiek ez eskuratzea. PGDIren arabera, DBEren balizko onuradunen %30ek gutxi gorabehera ez du errenta hori jasotzen pobrezia errealean egon arren, eginiko zenbatespenen arabera. Efektu hori gertatzen da beste prestazio batzuetan edo beste herrialde batzuetan ere, non arazoak askoz arreta handiagoa jaso duen hedabideetan eta politikan.

razle honen bilakaeraren gaineko azterketarik, zeren eta datuen iturriak, Lanbidek, ez baitzuen kudeatzen prestazio hori gure informazioari dagozkion urteetan.

Hauexek dira prestazio honen jasotzaileen proportziorik handieneko eskualdeak: Bilbo (43,8 titular 1.000 biztanleko) eta Ezkerraldea (32,2). Beste muturrean, berriz, Deba Garaia (12,9) eta Tolosa-Goierri (15,3) daude. Gainerako eskualdeetan EAeko batezbestekoaren inguruko tasak daude, Aiara 20,1aren eta Gasteizko 25,3aren artekoak. Oro har, langabeziak gehien ukitu dituen eta pobrezia-tasarik handiena duten eskualdeetan ageri da 1.000 biztanleko DBEren jasotzaile kopururik handiena ere.

Garrantzizkoa da nabarmentzea DBEren estaldura handiena duten eskualdeek dutela pobrezia-aren prebalentzia handiagoa, nahiz eta adierazle hau kalkulatzeko familien diru-sarrerara gisa zenbatu DBE. Hots, pobrezia-tasak handiagoak dira DBEren estaldura handiagoa bada ere. Hortaz, pentsa liteke ezen, prestaziorik ez dagoenean –eragin berezia du horrek bi eskualde horietan-, pobrezia-tasak askoz ere handiagoak izango direla eskualde horietan eta EAeko gainerako beste lurraldeekiko diferentzia askoz handiagoa.


36. grafikoa. DBEren jasotzaileen kopurua (1.000 biztanleko)



Prestazio ekonomikoak jasotzea alde batera utzita, EAeko eskualdeetan egiten den udal gastua aztertuz gero ikus daitekeenez, alde batetik eskualdeen arteko desberdintasunak nahikoa handiak dira eta, bestetik, orain artean ikusitakoarekin zerikusi gutxi duen antolamendua. Izan ere, biztanleko udal gastu arruntik handiena egiten da hiriburuak dauden eskualdeetan, Gasteiz buru dela. Udal gasturik txikiena Deba Barrenari eta Tolosa-Goierri dagokie. Bertan dago udalerrien kopururik handiena, gehienak txikiak, baina ez dago udal atomizazio hori konpentsatzeko populazio gun handirik, Gasteizekin gertatzen den moduan.

2006 eta 2011 bitartean, %17,7 hazi da udalen biztanleko gastu arrunta euro korranteetan EAEn, eta igoerarik handienak Donostialdekoa (%20,7), Ezkerraldekoa (%20,7) eta Durangaldekoa (%20,2) dira, eta txikiena Aiara dago (%6). Eskualde sakabanaketaren tasa ez da oso altua, eta egonkor eutsi dio 2006 eta 2011 bitartean.

37. grafikoa. Udalen biztanleko gastu arrunta. Euroak. EAE 2011




Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren aurrekontuaren estatistikak.

Biztanleko udal gastu arrunta aztertu barik herri administrazioek eskualde bakoitzean Gizarte Zerbitzuetan biztanleko egiten duten gastua aztertuz gero, nabarmen handiagoak dira eskualdeen arteko desberdintasunak. Adierazle honi dagokionez, biztanleko gastua Tolosa-Goierriko 1.103 euroen eta Eskuinaldeko 557 euroen artekoa da. Tolosa-Goierriekin batera, gasturik handiena egiten duten beste eskualde biak Gasteiz –Gasteizko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak gastu handiagoa egiten dutelako- eta Ezkerraldea daude -seguru asko eskualde horretako GLLn eta DBEn eginiko gastu handiagoagatik-.

Bilakaeraren aldetik, esan beharra dago 2006 eta 2011 bitartean %62,2 hazi dela Gizarte Zerbitzuetako urteko gastua biztanleko EAEn, eta igoera handiagoak izan dira 2006an biztanleko gizarte gastu txikiagoa zuten eskualdeetan: Eskuinaldea (%293,1), Aiara (%151,5), Ezkerraldea (%137,9) eta Deba Barrena (%97,7). Igoerarik txikiena, berriz, Deba Garaian (%16,8), Tolosa-Goierri (%28,3) –hala ere, biztanleko gizarte gasturik handiena duen lehen eskualdea izateri eusten dio-, Gasteizen (%36) eta Bilbon (%37,3) izan da. Aldaketa horien ondorioz, adierazle honetan hasieran mailarik txikiena zuten eskualdeetako gizarte gastuaren igoera handiagoa dela-eta, 2011n %49,4 murriztu dira 2006n eskualdeen artean zeuden desberdintasunak.

38. grafikoa. Gizarte Zerbitzuetako gastua biztanleko. Euroak. EAE 2011



2.3.3. Osasuna eta segurtasuna

Ondoren aztertuko diren adierazleak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak bost urtean behin egiten duen Euskal Autonomia Erkidegoaren Osasunaren Inkestatik (EAEOI) lortu dira, eta beste eskualde-banaketa bat erabili du. Hitzaurrean azaldu denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Osasunaren Inkestak osasun-eskualdeetan banatzen ditu bere emaitzak, eta bost eskualdetan zatitzen ditu EAE osoa: Araba, Gipuzkoako Mendebalde, Gipuzkoako Ekialdea, Bizkaiko Barnealdea, Ezkerraldea/Enkarterriak, Uribe eta Bilbo. Nolanahi ere, eskualde-banaketa bera ez bada ere, funtsezkoa izan da EAEko lurraldeen arteko desorekei buruzko azterketan sartzea EAEOIk eskaintzen dituen zenbait adierazle, populazioaren egoeraren eta bere ingurunean antzematen duten segurtasun irudipenaren gainekoak.

Osasunaren lehen adierazlea nor bere osasunaz duen irudipena da. Osasunaren ikerketen arloan askotan erabili izan den adierazlea, pertsonen helburuko osasun egoerarekin duen erlazioa dela-eta. Azterketa egiteko, bere osasuna “Ona” edo “Oso ona” dela deritzen populazioaren portzentajea da, populazio osoaren gainean. Nork bere osasunaz duen irudipena da osasunari buruz erabilitako neurririk errazenetakoa da, eta zerbitzuen erabilerarekin eta heriotza-tasarekiko erlazioa azterlan askotan ezarri izan da. Nahiz eta item bakarraren bidez bildutako neurria izan, baliagarria da osasunaren neurri orokor gisa, eta gaixotasunarekin eta osasunaren balorazio subjektiboaren osagaiekin lotuta ageri da.


2013an, Bilbok eta Ezkerraldeak zuten osasun onaren prebalentziarik txikiena. Datu horren garrantzia azpimarratu behar da, zeren eta bi eskualdeok funtsean bat datoz txostenaren gainerako ataletan erabilitako eskualde-banaketarekin, eta ikusten denez, eskualde horietan biltzen da, hain zuzen ere –ikusitako dugunez, zahartze, langabezi eta pobrezia maila handiagoak dituzte– osasun onaren prebalentziaren txikiena. Osasun onaren prebalentziarik handiena, aldiz, Araban (populazioaren %82,9) eta Gipuzkoako Ekialdean (%81,5) dago. Nolanahi ere, oso txikiak dira, eta batezbestekoaren %97aren eta %104aren arteko tasak dituzte.

2007. urtetik hona izan den bilakaera positiboa izan da Ezkerraldean / Enkarterrietan (%13,1), Araban (%8,4), Gipuzkoako Mendebaldean (%7,5), Gipuzkoako Ekialdean (%4,7) eta Bilbon (%1,1). Osasun onaren prebalentzia jaitsi egin da, ordea, Barnealdean (-%5) eta Uriben (-%1,3).

Datu horietan, Barnealdearen osasun-eskualdearen bilakaera negatiboa nabarmentzen da; izan ere, EAeko osasun onaren prebalentziarik onena duen eskualdea izatetik bigarren datu-rik txarrena duen eskualdea izatera igaro da. Alabaina, osasun onaren prebalentzia eta horren bilakaera aztertzerakoan, kontuan izan beharko da populazioaren adinaren banaketarekin duen erlazioa, zeren eta, oro har, zenbat eta adin handiagoa orduan eta okerragoa da herritarrek beren osasun egoeraz duten irudipena.

Gainera, esan behar da ezen, 2007 eta 2013 bitartean, nabarmen egin dutela behera eskualdeen arteko desberdintasunek herritarrek beren osasunaz duten irudipenari dagokionez, eta %52,6 murriztu da eskualde sakabanaketaren tasa. Sakabanaketa txikiago hori gertatu da Barnealdeko eta Uribeko eskualdeetan erregistraturiko okertzeagatik: lehen eta bigarren tokian zeuden 2007. urtean. Gainera, Ezkerraldeak / Enkarterrian eta Gipuzkoako Mendebaldean izandako hobekuntzek ere eragina izan dute, osasun onaren prebalentziaren aldetik posizio okerragoa baitzuten hasieran.

39. grafikoa. Osasun onaren prebalentzia (%). EAE 2013



Iturria: Osasun Saila. EAeko osasunaren inkesta.


Lurraldeen arteko desorekak pixka bat handiagoak dira antsietate eta depresio arazoaren prebalentziaren aldetik. EAEOIren datuen arabera, EAeko bost pertsonatik batek aipatzen zituen antsietate eta depresio sintomak 2013an, hots, %29,9 igoera 2007koaren aldean. Osasun-eskualdeen arabera, antsietate eta depresio prebalentziarik handiena Uribe eskualdean dugu (populazioaren %22,6), ondoren Bilbon (%22,4), Gipuzkoako Ekialdean (%20,3) eta Ezkerraldean / Enkarterrian (%19,9). Prebalentziarik txikiena, berriz, Araban (%16,1) eta Bizkaiko Barnealdean (%17,6). Arestian esana dugunez, sintoma horien prebalentziaren gaineko desberdintasunak nahikoa handiak dira, EAE osoaren %81aren eta %113aren arteko tasekin.

2007. urtetik honako gorako eboluzioa izan da antsietate eta depresio sintomen prebalentzian eskualde guztietan. Igoera portzentaje handia dute Uribek (%93ko hazkundea) eta Barnealdeak (%81,4). Nabarmentzekoa da ere Bilbon izandako igoera (%37,4) populazio osoan duen pisua dela eta. Bestalde, Ezkerraldeak du igoerarik txikiena (%2,6), nahiz eta 2007an EAeko prebalentziarik handiena izan.

Oraindik baden sakabanaketa handia gorabehera, 2007 eta 2013 bitartean murriztu egin dira desberdintasunak eskualdeen artean antsietate eta depresio arazoaren prebalentziaren aldetik. Hala,

adierazle horren eskualde-sakabanaketaren tasa %48,5 jaitsi da. Eskualdeen arteko bateratze-prozesu hori gertatu da hasieran egoera okerragoa zuten eskualdeen egoerak okerrera egin due-lako, hala nola Ezkerraldean / Enkarterrian eta Gipuzkoako Mendebaldean, baita lehenago egoera hobean zeuden eskualdeetako antsietate eta depresio sintomen prebalentziaren igoeratik ere, Barnealdean eta Uriben adibidez.

40. grafikoa. Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%). EAE 2013



Iturria: Osasun Saila. EAEko osasunaren inkesta.


Bizkaiko eskualdeetan osasun arazo kronikoen²² prebalentzia handiagoa dago, zeren eta, Bilbon behinik behin, horrelako arazo moten prebalentzia handiagoa baitu (%54), zahartze-egitura demografikoagatik. Bilboren atzetik, ehunekorik altuenak eskualde hauei dagozkie: Barnealdeari (%48,1), Ezkerraldeari / Enkarterriari (%47,7) eta Gipuzkoako Ekialdeari (%47,4). Arazo kronikoen prebalentziarik txikiena, berriz, Araban dago (%39,1), eta ondoren Gipuzkoako Mendebaldean (%42,5) eta Uriben (%46). Nahikoa handiak dira sintoma horien prebalentziaren gaineko desberdintasunak, eta EAE osoari dagokionaren %84aren eta %117aren arteko tasak daude, baina adierazle horretan eragin handia izan dezakete eskualdeen arteko adinaren egiturako desberdintasunek.

2007. urtetik honako bilakaeran ikusten den bezala, %6ko igoera izan da arazo kronikoen prebalentzian. Araban soilik murriztu da adierazlea (-%9,9); gainerakoetan, berriz, handitu egin da. Igoeraren ehu-neko handia ageri da Uriben (%23,3koa), Bilbon (%19,7) eta Barnealdean (%12,6). Hazkunde txikiagoa dago Ezkerralde (%4,1), Gipuzkoako Ekialde (%1,5) eta Gipuzkoako Mendebaldean (%0,5).

2007 eta 2013 artean, gora egin dute eskualdeen arteko desberdintasunek arazo kronikoen prebalentzian (eskualde sakabanaketaren tasa %42,9 hazi da). Sakabanaketa handia gertatu da, gehienbat, hasieran arazo kronikoen prebalentzia handiagoa zuten eskualdeen okertzeagatik.

²² Osasunaren Inkestan kontuan hartzen dira, besteak beste, hipertentsioa, hiperkolesterolemia, asma, migranak, anemia, artrosia, bizkarreko mina, depresioa, etab.

41. grafikoa. Arazo kronikoen prebalentzia (%). EAE 2013




Iturria: Osasun Saila. EAEko osasunaren inkesta.

EAEoik ere EAEko populazioak bizitzeko dituen ohituren inguruko oso datu interesgarriak eskaintzen ditu, adibidez, elikaduraren, ariketa fisikoa egitearen edo alkohol eta tabako kontsumoaren gainekoak. Txosten honetarako erabili den adierazleari esker, epe luzerako arrisku maila handiko alkohol kontsumoa egiten duen populazioaren proportzioa neurtu da eskualde bakoitzean. Horrelako kontsumo motaren prebalentziarik handiena duen eskualdea Uribe da (%25,8) –gainera, depresio eta antsietate arazoaren prebalentziarik handieneko eskualdea ere bada–, eta ondoren Gipuzkoako Mendebaldea (%23,7) eta Barnealdea (%20,6) daude. Arrisku maila handiko alkohol kontsumoaren prebalentziarik txikiena, berriz, Ezkerraldean dago (%14,7), eta ondoren Araban (%18,2), Gipuzkoako Ekialdean (%18,8) eta Bilbon (%19,1). Handiak dira arrisku handiko kontsumoaren prebalentziaren desberdintasunak, eta EAEko batez bestekoaren %74aren eta %130aren arteko tasak daude.

%5,3 jaitsi da 2007. urtetik arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia EAEn, baina bi eskualdetan, Uriben eta Barnealdean, %26,5eko eta %19,8ko igoera handiak izan dira, hurrenez hurren. Jaitsierarik handiena, berriz, Arabak izan du (-%21,6), eta ondoren Ezkerraldeak (-%18,3), Gipuzkoako Ekialdeak (-%17,5) eta Bilbok (-%5,9), baina adierazle hori 2007koaren parean dago Gipuzkoako Mendebaldean.


2007 eta 2013 bitartean, nabarmen handitu dira eskualdeen arteko desberdintasunak arrisku maila handiko alkohol kontsumoaren prebalentziaren aldetik, eskualde sakabanaketaren tasaren %48,3ko igoerak agerian uzten duenez. Adierazle horren tasan eskualdeen artean dagoen distantzia handi hori gertatu da, alde batetik, hasieran epe luzerako arrisku maila handiko alkohol kontsumoaren prebalentziaren tasa handiagoak zituzten zenbait eskualdetan, eta bestetik, 2007an prebalentziarik txikiena zuten eskualdeetan izandako hobekuntzagatik.

42. grafikoa. Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebal. (%). EAE 2013



Azkenik, EAEOIn bildu da, osasunarekin hertsiki lotuta ez dagoen adierazlea ez bada ere, bere etxebizitzaren inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituzten pertsonen portzentajea jaso da, eskualde bakoitzari dagokiona. Adierazle hau denaz bezainbatean, bereziki nabarmentzen da Bilboko osasun-eskualdearen –inkestaturiko pertsonen %42ak delinkuentzia antzematen du bere etxebizitzaren inguruan- eta, gainerakoan artean dagoen distantzia, non Bizkaiko %13aren eta Uribeko %22aren arteko portzentajeak dauden. Izan ere, mapak agerian uzten du zein neurritan den Bilbo salbuespena, EAeko gainerako eskualdeen nahikoa homogeneotasunaren aldean nabarmentzen dena.

43. grafikoa. Bere etxebizitzaren inguruan delink. antzematen dutenen %. EAE 2013




2.3.4. Etxebizitza

Lau adierazle oinarri hartuta neurtzen dira etxebizitzari buruzko beste adierazle batzuk – populazioaren ongizatearekin estuki lotutako beste arloetako bat eta, ikusiko dugunez, eskualdeen arteko nahikoa desberdintasun handiak erakusten dituen: hutsik dauden famili etxebizitzaren proportzioa, etxebizitza nagusien erosotasun-indizea, Etxebiden jasotako etxebizitza eskabideak eta eskualde bakoitzeko zentsuan agerrarazitako babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua 1.000 biztanleko.

Hutsik dauden etxebizitzaren portzentajerik handieneko eskualdea Tolosa-Goierri da (%15,8), eta ondoren Bizkaiko Kostaldea (%13,9), Deba Garaia (%13,6), Aiara (%13,6), Deba Barrena (%13,3) eta Durangaldea (%13,3) datoz. Adierazle honen tasarik baxuenak, berriz, Bilbon (%9,4), Ezkerraldean (%9,5) eta Eskuinaldean (%10) daude. Adierazle honek nolabaiteko aldakortasuna du eskualdeen artean: EAE osoari dagokionaren %83aren eta %138aren arteko tasak daude. Ildo horretan, oro har hutsik dauden etxebizitzaren proportzioa txikiagoa da hiri izaera handieneko eskualdeetan. Adierazle honen eskualde-sakabanaketaren tasa 16,1 da.

44. grafikoa. Hutsik dauden famili etxebizitzaren proportzioa




Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsua.

Populazio eta Etxebizitza Zentsutik ateratzen da hutsik dauden famili etxebizitzaren erosotasun-indizea, eta famili etxebizitza nagusien ezaugarriak instalazioak eta zerbitzuak laburbiltzen ditu. Hala, bada, etxebizitzak duen edo izan dezakeen erosotasun edota ongizate mailarako hurbilpena da. Etxebizitzak erosotasun txikia duela kontsideratzen da indizea 50 puntuetara iristen ez denean, erosotasun ertaina 50 eta 75 puntu bitartekoa denean eta erosotasun handia zifra hori gainditzen duenean. 2011rako Zentsuaren datuen arabera, EAeko famili etxebizitza nagusien batez besteko erosotasun-indizea 72 puntukoa da (gehienez 100 puntu dira). Adierazle horrekin bat etorriz, Gasteizek du bere etxebizitzaren erosotasun mailarik handiena (78,4), eta ondoren Deba Garaiak (75,2) eta Eskuinaldeak (73,7). Erosotasun-indizearen batezbesteko puntuaziorik txikiena, berriz eskualde honetako etxebizitzei dagokie: Eskuinaldea (67,5), Deba Barrena (69,6), Bizkaiko Kostaldea (70,2), Tolosa-Goierri (70,5) eta Bilbo (70,8). Ez da aldakortasun handirik antzematen eskualdeen artean adierazle honi dagokionez, zeren eta EAE osoaren %94aren eta %101aren arteko tasak baitaude.

Erosotasun-Indize %0,3 baizik ez da jaitsi 2006. urtetik, eta bilakaera negatiboa izan da eskualde guztietan, Deba Garaian (2,7) eta Gasteizen (1,7) daude. Jaitsierarik handienak, berriz, Eskualdeari (-%1,7), Tolosa-Goierri (-%1,6) eta Bilbori (-%1,3) dagozkie. Nahiz eta, esana dugun legez, eskualdeen arteko aldakortasun handia izan ez, 2006 eta 2011 bitartean gora egin dute eskualdeen arteko desberdintasunak adierazle honi dagokionez, eta %19,4 hazi da eskualde-sakabanaketaren tasa.

45. grafikoa. Famili etxebizitza nagusien erosotasun-Indizea. EAE 2011




Bestalde, etxebizitzaren behar handiena duten eskualdeak Bilbo eta Donostialdea dira, edo Etxebizitza Eskualdeko 1.000 biztanleko etxebizitza-erabilpenaren kopururik handiena bildu diren eskualdeak behintzat.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak igorritako datuen arabera, EAEn 41 etxebizitza babesturiko 41 eskabide daude errolaturiko 1.000 biztanleko 2013. urtean. Bilbok du etxebizitza babesturiko beharrik handiena (53,2 eskabide 1.000 biztanleko), eta ondoren Donostialdeak (48,4), Eskualdeak (45,5) eta Ezkerraldeak (43,2). Gainerako eskualdeak EAEn batezbestekoaren azpitik daude, eta eskabideen ratorik txikiena Aiaran (25), Tolosa-Goierri (25,6), Deba Garaian (28,5), Durangaldean (28,7) eta Deba Barrenean (29) dago. Nahikoa handiak dira eskualdeen arteko desberdintasunak adierazle honetan, eta batezbestekoaren %129aren (Bilbon) eta %61aren (Aiara) arteko tasak daude.

Datu horietatik ondoriozta daitekeenez, etxebizitza babesturiko eskaririk handiena hain zuzen ere populazio dentsitate handieneko lau eskualdeetan dugu (Bilbo, Eskualdea, Donostialdea eta Ezkerraldea).

2006. urtetik, %69 jaitsi da babesturiko etxebizitzaren eskabideen kopurua 1.000 biztanleko. Eskualdez eskualde, bilakaera desberdina antzematen da, eta babesturiko etxebizitzaren eskaria handitu egin da Bilbon (%26,3), Eskualdean (%12,8), Ezkerraldean (%12,8) eta Bizkaiko Kostaldean (%7,4). Gainerakoetan, berriz, behera egin du. Hauexek dira adierazle honetako jaitsierarik handienak izan dituzten eskualdeak: Gasteiz (-%49,4), Deba Garaia (-%40,5), Aiara (-%37,6).

46. grafikoa. Etxebiden jasotako etxebizitza eskabideak (1.000 biztanleko). EAE 2013




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Eskualdeen arteko desberdintasun handiak daude babes ofizialeko etxebizitzaren aldetik ere, eta agerian nabarmentzen da Gasteizen dagoen zuzkidura handia. Izan ere, bigarren zuzkidurarik handiena duen eskualdearen hirukoitza da ia-ia.

Kasu berezia dugu eskualde horretan, 2006ko lurzorua legeria berria aplikatuta azken 10 urteetan BOEren ekoizpen handiarekin, etxebizitza babestua garatzeko eta 2003. urtea baino lehen EAEn zegoen etxebizitza babestuaren deskalifikazio orokorrarekin batera.²³ Horregatik guztiagatik dugu aldagarritasun handia eskualdeen artean, zeren eta EAEko batezbestekoaren %47aren eta %259aren arteko tasak baititugu. Adierazle honen eskualde sakabanaketa 60,8 da, aztertutako adierazle guztietatik handienetakoa hain zuzen ere. Erregistraturiko babes ofizialeko etxebizitzaren banaketa geografikoari erreparatuta berriz ere agerian gelditzen denez, zuzkidurarik handiena Gasteizen dago, bertan baitago kokatuta EAEko 3 BOEko 1 ia.

²³ Izan ere, garrantzizkoa da zenbait nabardura egitea adierazle honen edukiaren eta balioaren gainean. Kontua izan behar da, batetik, babes ofizialeko etxebizitzaren parkea aldatuz joan dela, ez bakarrik etxebizitza berriak sartu izanagatik baizik eta zenbait kasutan deskalifikazioa eskatzean izandako bajengatik ere (oso ohikoa zen aurreko aldietan eta bereziki Higiezinetan, eta askotan etxebizitza libretzat hartzen ziren eta, beraz, ez ziren BOEren egungo stockean erregistratzen). Bestalde, eskualde bakoitzeko babes araubidearen menpeko lurra izateak asko baldintzatzen du adierazle hau. Hala ere, adierazle hau mantentzea aukeratu da, zeren eta eskualde bakoitzeko babes publikoko etxebizitza-parkearen inguruko egungo egoera jasotzen baitu.

47. grafikoa. Babes ofizialeko etxebizitza kopurua (1.000 biztanleko). EAE 2013



2.4. Eskualde bakoitzaren bereizitasunak

Jarraian, aztertutako eskualde guztien bereizitasunak azalduko dira.²⁴

a) Deba Garaia

Erabilitako adierazleen arabera, Deba Garaia da ongizate mailarik handienetakoa duten eskualdeetako bat. Hala ere, ikuspuntu demografikotik, beste eskualde batzuetan baino gutxiago igo da bertako populazioa, nahiz eta ugalkortasun-tasarik handieneko eskualdeetako bat izan eta saldo begetatiboa oso txikia izan, ia zerokoa. Gainera, lan-merkatuaren egoera ona badu ere, Estatutik kanpora jaiotakoen proportziorik txikiena duenetako bat da. Hori gorabehera, migrazio-saldorik handienetakoa izan zuen 2012an.

Egitura ekonomikoari dagokionez, biztanleko establezimenduen kopurua baxuenen artean dago eta, hala ere, establezimendu horien lanpostuen kopurua handien artean kokatzen da. Horrek agerian uzten du enpresa handien kopuru nahikoa txikian oinarrituriko egitura produktiboa duela eskualdeak. Izan ere, establezimenduen batez besteko tamainarik handiena duen eskualdea da. Deba Garaia EAeko tokirik gorenean dago industri sektoreko lanpostuen proportzioari dagokionez, Aiararen atzetik, eta lehena da funtseko adierazle batean: industri enpresa handietako lanpostuen kopurua. Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa ez da handia, ordea, eta soldatapeko enplegu mugagabearen pisurik txikiena duen eskualdea izategatik nabarmentzen da, seguru asko eskualde horretan pisu handiagoa duelako kooperatibetako enpleguak (ez soldatapekoa). Eskualdearen lan-merkatua ondo dabil, 2011/12ra arte behinik behin: Jarduera-tasarik handiena duen bigarren eskualdea da Deba Garaia, okupazio-tasarik handiena eta langabezi tasarik txikiena daukana, baita teknologia maila handiko sektoreetako landunen proportziorik handiena duena ere. Ez da nabarmentzen, ordea, Gizarte Segurantzaren afiliazioen kopuru handiagatik.

²⁴ Agiri honen 1. eranskinean, eskualde bakoitzaren adierazleen multzoa bildu da.

Deba Garaiak EAEko bigarren per capita BPGd-ik handiena du, Eskuinaldearen atzetik, eta berrikuntza eta EBko presentzia maila handiak ditu. Gainera, enpresak finantzatzeko arazo gutxi ditu, beste eskualde batzuen aldean behinik behin. Produktibitatearen ikuspuntutik, ordea, bitarteko egoera du, seguru asko soldata maila handiagoak direla medio. Eskualdeko lan-merkatuaren funtzionamendu onak errenta handiagoetan du isla (dela batezbesteko errenta pertsonalaren²⁵ dela batezbesteko errenta baliokidearen aldetik neurtuta²⁶) eta pobrezia-tasa nahikoa txikietan (bereiziki pobrezia erreala neurtzen bada; ongizaterik eza baizik ez bada kontuan hartzen, egoera ertaina baino ez du). Nolanahi ere, diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomiko gutxien eskatzen den eskualdea da, pobrezia maila txikiagoagatik nahiz, beharbada, langabeziagatik prestazioen estaldura handiagoagatik. Etxebiden etxebizitza eskaririk txikiena egiten duten eskualdeetako bat ere bada, eta babes ofizialeko etxebizitzaren zuzkidurarik handienetakoa.

Bilakaerari dagokionez, adierazle demografikoek gehien hobetu duen eskualdea da: %4,1 jaitsi da zahartze-indizea, ugalkortasun-tasa %6,8 handitu eta, Deba Barrenarekin batera, migrazio-saldoa hobetu duen eskualde bakarra da. Alabaina, adierazle ekonomikoek dagokionez, funtsezko adierazleek bilakaerarik okerrera izan duten eskualdeetako bat da beharbada, seguru asko krisiaren testuinguruan nekez hobetu zitzakeen mailak zituelako hasiera batean: industri sektorearen eta per capita BPGd-aren pisua nabarmen jaitsi den eskualdeetako bat da (eta jaitsiera handia izan da eskualdeko enpresen fakturazioan), baita EBN presentzia duten enpresen portzentajea ere. Hala ere, 2006 eta 2013 bitartean langabezia batezbestekoaren azpitik hazi den eskualdeetako bat izan da, eta bere errenta batezbestekoaren oso gainetik hazi da. Nahiz eta pobrezia neurri handian hazi den eskualdean, oso maila txikiak zituen krisiaren hasieran, eta pobrezia errealararen tasarik txikiena duten eskualdeetako bat oraindik ere (ongizaterik ezaren aldetik duen posizio erlatiboak okerrera egin du epealdi horretan, ordea). Edozelan ere, eta eskualdearen egoerari dagokionez, garrantzizkoa da esatea azterturiko adierazleek 2013ra arte ematen dutela informazioa eta, beraz, ez dutela biltzen ondorengo aldaketek inguruko ekonomia eta enpresa sarean izan zezaketen eragina.

b) Aiara

Nahiz eta bere egoera hain ona ez izan, alboko Deba Barrenaren ezaugarri asko ditu Aiara. Azterturiko hamaika eskualdeetatik populaziorik txikiena duena da, eta demografiaren ikuspuntutik, ezaugarri nagusi bat du: EAEko batezbestekotik hurbil dago ia adierazle guztietan, salbu eta, nolahi ere, migrazio-saldo txikian eta bertako udalerrietan erroldaturiko etorkinen kopuru txikian.

Egitura ekonomikoaren aldetik, batezbestekotik gorako tamaina duten establezimenduak dira nagusi, baita industri sektorearen oso pisu nabarmena ere, baimena emakumeen partaidetza osoa txikia da lan-merkatuan. Teknologia maila handiko sektoreen enpleguaren pisua ez da handia, ezta enpresa berritzaileena ere. Hala ere, EBN presentzia duten enpresen proportzioa handia da, ordea. Enplegu mugagabearen mailak oso handiak dira, EAEko handienak. Egoera ona du jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren aldetik, baina oro har Deba Garaikoa baino okerragoa. Produktibitate mailak ere txikiak dira.

Per capita BPGd nahikoa handia da (hamaika eskualdeetatik laugarrena), eta batezbesteko errenta baliokidea handien artean dago (baina ez batezbesteko errenta pertsonala). Edozelan ere, pobrezia errealararen tasarik eta ongizaterik ezaren tasarik txikiena duten eskualdeetako bat da eta, beraz, DBEren estaldura txikia du, baita Etxebideko eskabideen maila txikia ere. Gainera, Bizkaiko Kostaldearekin batera, abstentzionismorik txikieneko eskualdeetako bat da.

Zelako bilakaera izan du krisian Aiaraen egoerak? EAEkoa baino neurri handiagoan hazi da populazioa, neurri batean atzerritarren pisuaren igoera handiagoagatik, baita ugalkortasun-tasan igoerarik handiena izan duten eskualdea izan delako ere (%12,3). Industri sektoreko lanpostuen proportzioak

²⁵ Batez besteko errenta pertsonala: 18 urte eta gehiagoko errentaren batura zati 18 urte eta gehiagoko kopurua.

²⁶ Errenta mediana baliokidea: familien errenta baliokideen bitarteko balioa. Horiek kalkulatzeko, familien sarrera guztiak zati familiaren tamaina baliokidea egin behar da (familiako kideen haztapen desberdina da 14 urtetik beherakoa izatearen edo ez izatearen arabera).

behera egin du pixkanaka, eta langabezi tasa batezbestekoaren azpitik hazi da. Hala ere, Ezkerraldearekin batera, Gizarte Segurantzaren afiliazioen kopuruaren jaitsierarik handiena izan duten eskualdeetako bat da. Gainera, per capita BPGd-aren jaitsiera nabarmena izan du –batezbestekoa baino bost aldiz handiagoa ia-, eta produktibitateak ere beherakada handia izan du. Alabaina, batezbesteko errenta pertsonal eta errenta mediana baliokidea batezbestekoaren gainetik hazi dira, eta pobreak ez du ia aldaketarik izan (-0,1 puntu). Datu horiek ikusita, eskualdeko jarduera ekonomikoaren jaitsiera handia gorabehera (per capita BPGd-ak adierazten duenez), ez da horrenbeste lanpostu desegin beste eremu batzuekin alderatuta.

c) Deba Barrena

Nahikoa zahartuta dagoen eskualdea da, eta mendetasun-tasarik altuena da, baina ugalkortasun-tasa handia ere badu. Saldo begetatibo negatiboa dauka, eta migrazio-saldoa, 2012an, EAeko handiena zen.

Eskualde industrializatua ere bada, baina industri txikiak ditu, eta teknologia maila handiko sektoreetako lanpostuen pisu handia du, baita EBn presentzia handia ere, batez ere berrikuntzaren alde-tik. Jarduera teknologiarara eta berrikuntzara bideratuta egote horrek ez du islarik, ordea, jarduerata-tasa handietan, ezta enplegu tasa onetan ere (bitarteko mailetan dago, ez handietan). Langabezi tasa (%14,9), bestalde, EAeko batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa da (%15,9). Gizarte Segurantzaren afiliazioetan ere tasa baxuak ditu, eta batez ere, aberastasun maila baxuagoak (per capita BPGd-aren edo errenta pertsonaren ikuspuntutik neurtzen bada behinik behin, baina ez errenta mediana baliokidearen ikuspegitik). Nolanahi ere, pobrezia-tasa baxuak ditu. Eskualdearen hutsunerik handienetakoa, dirudienez, etxebizitzaren arloan datza: egoerarik txarrean dauden etxebizitza-parkeen artean dago (ildo horretan, etxebizitzaren erosotasun-indizek txikiak duen eskualdea da), eta babes ofizialeko etxebizitzaren zuzkidurarik txikienetakoa du. Udal gastua ere EAeko baxuena da.

Bilakaeraren aldetik, eskualde honetan nabarmenezkoa da, besteen aldean, 16 urtetik beherakoan igoerarik handiena eta adinekoen pisuaren igoera txikia, baita ugalkortasunaren hazkunde handia ere (ugalkortasun-tasarik handiena duen eskualdea da, Aiarakoaren atzetik). Horren guztiaren ondorioz, zahartze-indizearen jaitsiera nabarmena eduki du, baina 2013an, artean, hirugarren eskualderik zahartuena zen. Etorkinen pisu erlatiboa gehien hazi den eskualdea ere bada, industri enplegua neurri handiagoan murriztu duena eta pobreakaren igoerarik txikiak izan dutenetako bat. Eskualdeko langabezia EAeko batezbestekoaren antzeko proportzioa hazi da, hots, bikoiztu egin da 2006ko kopuruaren aldean.

d) Bilbo

Bilbo kasu berezia da EAeko eskualdeen artean. Alde batetik, udalerririk bakarrarekin osaturiko eskualde bakarra da, txikiak –alde handiarekin- hedaturaz eta, argi eta garbi, populazioaren dentsitate handiak duena. Gainera, Ezkerraldearekin batera, egoerarik konplikatuenetakoa du funtsezkotzat jotako adierazle kopururik handienetan: Populazioaren aldakuntza, zahartzea, ugalkortasuna, immigrazioa, okupazioa, langabezia, industri enplegua, pobrezia, DBEren estaldura, Etxebizitza-jasotako etxebizitza-eskabideak...

Demografiaren aldetik, Bilbo da aztertu diren hamaika eskualdeetatik kontsideraturiko epealdian biztanleak galdu dituen bakarra, eta nabarmen zahartutako eskualdea da (haurren portzentajerik txikiak dutenetako bat da eta adinekoen portzentajerik handienetakoa bat du, hau da, batezbestekoaren %127 den zahartze-indizea dauka). Ugalkortasun-tasa ere txikiak du, baita saldo begetatiboa ere, negatiboa hain zuzen ere. Halako zahartze-mailak gertatu dira atzeritarren immigrazio maila handiak izan arren. Hala ere, Eskualdearen atzetik, ikasketa mailarik handienetakoa duen eskualdea da.

Zerbitzuen sektorean espezializaturiko eskualdea da, eta emakumeen enpleguaren pisu handia dauka. Enplegu maila txikiak ditu, baita langabezi tasarik handienetakoa ere (Gizarte Segurantzaren afiliazioan batezbestekotik gorako mailak izan arren). Nahiz eta errenta mailak EAeko batezbestekotik hurbil egon (erabilitako adierazlea edozein delarik ere), pobrezi eta ongizaterik ezaren tasak nabarmen handiagoak dira. Hori dela-eta, pentsa liteke problema espezifiko duela eskualde honek aberastasunaren banaketari dagokionez. Gainera, langabeziagatiko prestazioen estaldurarik txikienetakoa du. Horrek lotura izan dezake, beste faktore batzuen artean, DBEren estaldurarekin; izan ere, EAeko batezbestekoaren %166 da. Gainera, norberaren osasunaren eta segurtasunaren inguruan nabarmen mailarik txarrenak dituzten eskualdeetako bat da beste eskualdeen artean (zalan-tzarik gabe, zahartuago dagoelako).

Estaldua horrek antzeko bilakaera izan du eskualdean eta EAE osoan krisian, baina badira salbuespenak: EAeko batezbestekorik gainera jaitzi da ugalkortasun-tasa, eta gainera, jaiotzen kopurua gehien jaitzi den eskualdea da (-%13,4); langabezia gehien hazi den eskualdeetako bat, eta kopuru erlatiboetan industri enplegua gehien hazi dena. Hala eta guztiz ere, EAEn baino gutxiago murriztu da biztanleko BPGd-a, eta produktibitateak gora egin du (beharbada lanpostuak desegiten direlako gehienbat). Bestalde, batezbesteko errenta pertsonaren jaitzierarik handiena ere izan du Bilbok (-%1,5). EAE osoan bezainbeste hazi da pobrezia errearen tasa, baina ongizaterik ezarena gutxitu egin da. Delinkuentzia arazoak antzematen dituzten pertsonen ehunekoa ia hirukoiztu egin da 2007 eta 2013 bitartean, baina ñabardura bat egin beharra dago: bi epealdiotako datua ez da guztiz konparagarria, bata eta bestea lortzeko metodologia desberdina erabili baita. Azkenik, nabarmentzekoa da Bilbo dela Etxebideko babesturiko etxebizitza eskabideen kopurua gehien hazi den eskualdea (%26,3), eta, hala, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaririk handiena duen eskualdea bihurtu da.

e) Bizkaiko Kostaldea

Demografiaren aldetik, populazioaren igoera handia da Bizkaiko Kostaldearen ezaugarri nagusia, baita gazteen pisu handia ere. Zahartze-indize txikia eta mendetasun ertaina ditu, haurren populazioaren pisua dela medio. Establezimenduen batezbesteko tamaina EAeko txikiena da, eta ezin esan daiteke eredu produktiboa bereziki bideratuta dagoenik industri sektorerara, berrikuntzara, teknologiarara edo nazioartekotzera, baizik eta, seguru asko, bere kokapen geografikoagatik zerbitzuetara eta turismora gehiago bideraturiko eskualdea dela. Jarduera-tasa nahiz okupazioari eta langabeziari dagozkionak EAeko batezbestekora hurbiltzen direla esan daiteke, baina maila txikiagoa du Gizarte Segurantzaren afiliazioan. Per capita BPGd-a EAeko baxuenen artean dago, eta horrek zerikusia izan lezake enpresa handien presentzia txikiagoarekin. Errenta pertsonala eta errenta mediana baliokidea tarteko mailetan kokatzen dira. Pobrezia errearen tasak ere batezbestekoaren inguruan kokatzen dira, baina ez ongizaterik ezarenak: EAek baxuenen artean daude. DBEren estaldura maila ere EAeko batezbestekoaren azpitik dago, eta oso urrutik Bilbon edo Ezkerraldean jaso denetik.

Bilakaeraren aldetik, eboluzio demografiko positiboa izan du eskualdeak zahartze-indize handiari dagokionez (-%9), baina negatiboa izan da bai migrazio-saldoa, bai ugalkortasun-tasa. Langabezi tasa EAeko batezbestekoaren azpitik hazi da. Per capita BPGd-a, berriz, EAeko batezbestekoaren antzeko proportzioan jaitzi da. Bestalde, Bizkaiko Kostaldeko batezbesteko errenta pertsonala %2,1 hazi da eta, beraz, eskualderik gehienek baino eboluzio positiboagoa du adierazle honek. Azkenik, pobrezia-tasa EAerena baino gehiago hazi da.

f) Donostialdea

Donostialdearen ezaugarri nagusia barne aniztasuna da, baina seguru asko, berau osatzen duten azpieskualdeetan benetako ezaugarriak estaltzen ditu. Izan ere, estalita gelditzen dira, neurri ba-

tean, Donostia hiriaren eta Oarsoaldea, Bidasoa edo Urola Kostaren artean dauden desberdintasunak, eskualde berean bateratu baitira.

Hala ere, bitarteko egoeran dagoen eskualdea da adierazle askoren aldetik. Adierazle demografikoei dagokionez, Donostialdearen egoeran soilik nabarmentzen da hiru hiriburuetan Estatutik kanpora jaiotakoen portzentajerik txikiena duelako. Eredu produktiboari dagokionez, gainerako hiriburuetan bezala, handia da establezimenduen dentsitatea, eta batezbesteko tamaina txikia. Donostialdea industri sektorearen pisu txikiagatik ere nabarmentzen da, baita emakumeen enpleguaren pisu handiagatik ere, zerbitzuetara bideraturiko eskualdeetan gertatzen den legez. Jarduera-tasa eta okupazio- eta langabezia-tasa ertainak ditu, baita per capita BPGd-a eta errenta pertsonala ere, bereziki laneko errenten ondoriozkoa. Pobrezia-tasa eta ongizaterik ezaren tasa ere batezbestekotik hurbil daude (pixka bat txikiagoak), eta etxebizitzaren erosotasun-indizea ere bai. Donostialdearen berezitasunik agerikoena gizarte zerbitzuetako gastu oso txikia da, eta Etxebideko etxebizitza-eskabideen eskariaren maila EAeko batezbestekoaren %118aren baliokidea da, BOE zuzkidura handia badu ere beste eskualdeen aldean.

Donostia hiriburuaren datu espezifikoei erreparatuz, nabarmentzekoa da demografiaren egoera txarragoa, zahartze-indizea handiagoan islatzen denez (159,4koa du, Donostialdearen 130,9aren aldean), baita ugalkortasun-tasa txikiagoa (37,4koa, Donostialdearen 41,7aren aldean) eta -0,5eko migrazio-saldo negatiboa ere Donostiaren kasuan (Donostialdearen 3,6ko saldo positiboaren aldean). Donostia hiriak, aldiz, bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren portzentaje handiagoa du (%67,5koa, Donostialdearen %59,7aren aldean). Adierazle ekonomikoei dagokionez, ordea, Donostiak bere eskualdeak baino egoera hobea du, oro har, batez ere langabezi tasan (%12,7), per capita BPGd-an edota batezbesteko errenta pertsonalean. Sektoreen banaketari dagokionez, Donostiak industriaren pisu txikia du (%4,3), zerbitzuetara eta turismora bideratuta dagoelako. Donostialde osoan, berriz, %16,4koa da industriaren pisua. Era berean, nabarmentzekoa da ezen, Donostia hiriburu aparteko eskualde gisa aztertzen bada, eskualde horrek EAE osoko babesturiko etxebizitzaren eskaririk handiena izango lukeela, Bilboren beraren aurretik.

Bere adierazleen bilakaerari dagokionez, eta eskualdeen azterketara itzuliz, zahartze-indizean igoezarik handiena izan duen eskualdea da (%3,8), neurri handi batean hiriburuak izan duen %5,7ko igoezarik eraginda. Bere ugalkortasun-tasa %1,5 jaitsi da -baina kasu honetan, Donostia hiriburuaren datua positiboa izan da- eta bere migrazio-saldoa ere negatiboa izan da. Langabezi tasa Donostian EAeko batezbestekoaren azpitik hazi da, eta per capita BPGd-aren bilakaera batezbestekoa baino hobea izan da. Batezbesteko errenta pertsonalak EAeko batezbestekoaren antzeko bilakaera izan du, baita pobrezia-tasak ere.

g) Durangaldea

Durangaldea EAeko barnealdeko eskualde industrializatuen taldean sartzen da, eta oro har, bere tasak ez daude oso urruti batezbestekotik. Demografiaren aldetik, aztertutako epealdian gehien hazi diren eskualdeen artean dago; haurren populazioaren proportzio handia eta adineko gutxi. Hori dela-eta, hamaika eskualdeetako zahartze-indize txikiena du, eta mendentasun-tasa txikiagoa ere bai.

Industri sektoreko 100 lanpostuetatik 21eko batezbestekoa izanik, Durangaldea %36ko portzentajea du, hots, EAeko batezbestekoaren %183, eta batezbestekoaren gainetik dago industri establezimendu handietako lanpostuen portzentajearen aldetik. Bere industri izaerarekin bat etorrita, emakumeen langabezi tasa txikia da (mugakidea den Aiara eskualdeak baino ez du tasa txikiagoa). Teknologia maila handiko sektoreetako enplegu maila, nazioartekotze maila eta berrikuntza maila ere batezbestekoaren gainetik daude (baita enpresen finantzaketa arazoaren presentzia ere). Okupazio eta langabezi mailak EAeko batezbestekoaren antzekoak dira.

Eskualde honen per capita BPGd-a handienaren artean dago (batezbestekoaren %117), eta lanpostuko BPGd handiena izateagatik nabarmentzen da. Horrek agerian uzten du eskualdeko enpresa sarea

osatzen duten enpresen fakturazio bolumen handia, industri izaerakoa hain zuzen ere. Alabaina, batezbesteko errenta pertsonala txikienetakoa da, baita errenta mediana baliokidea ere. Horrenbestez, eskualdeko BPGd-ak ez du islarik bertan bizi direnen errentaren batezbesteko mailan, bere pobrezia errearen tasa EAeko laugarren txikiena bada ere.

Zelako bilakaera izan dute oinarrizko adierazleek eskualde honetan azken urteotan? Oro har, adierazle garrantzitsuenek okertzeko joera izan dela erakusten dute datuek. Alde batetik, atzerriarren pisua gehien hazi den eskualdeetako bat da Durangaldea; ez da ezinbestean datu negatiboa, eta, nolana ere, atzerrian jaiotakoen proportziorik txikiena duten eskualdeetako bat da. Gainera, behera egin dute migrazio-saldoak eta ugalkortasun-tasa globalak. Datu demografiko positibo bakarra eskualdeko zahartze-indizearen jaitsieraren eskutik letorke. Industri enplegua neurri handiagoan jaitsi den eskualdeetako bat ere bada, eta enplegu mugagabea gehien hazi den eskualdea ere bai (hots, seguru asko neurri handiagoan aldi baterako enplegua desegin delako). Okupazio-koefizientea %6 jaitsi da, EAeko %5aren aldean, eta langabeziaren igoerarik handiena izan duen eskualdea izan da 2006 eta 2013 bitartean, eta Aiararen eta Ezkerraldearen atzetik, Gizarte Segurantzaren afiliazio-tasaren jaitsierarik handiena izan duena. Produktibitatea handitu deneko EAeko lau eskualdeetako bat ere bada Durangaldea (lanpostuko BPGd gisa neurtua). Gainera, errenta mediana baliokidea murriztu den lau eskualdeetako bat da, eta ongizaterik ezaren maila neurri handiagoan gutxitu duenetako bat (ez pobrezia errearena).

h) Gasteiz

Gasteiz eskualde heterogeneoa da, non Gasteiz udalerrria eta Mendialdeko, Lautadako eta Arabako Errioxka udalerrriak sartzen diren. Gasteizko eskualdeak EAeko populazioaren %12,7 biltzen zuen 2013an.

Nolana ere, 2006 demografiaren aldetik gehien hazi den eskualdea da eta adinekoen portzentajerik txikiena daukana. Adingabeen kopurua ere altua ez denez gero, EAeko mendetasun-tasarik txikiena du. Gasteiz, gainera, saldo begetatiborik handiena eta Estatutik kanpora jaiotakoen proportziorik handiena izateagatik nabarmentzen da (2006. urtean hala zen, eta maila hori abiapuntu hartuta, atzerriarren pisua gutxien hazi den eskualdea da, Bilboren atzetik).

Hiriburuetan kokaturiko hiru eskualdeetatik industri enpleguaren pisurik handiena duena da Gasteizko eskualdea, bereziki industri enpresa handietako enpleguarena. Hala eta guztiz ere, emakumeen enpleguaren pisu handia du, baita soldatapeko finkoko enpleguarena ere. EAeko batezbestekoak baino pixka bat tasa handiagoak ditu jardueran eta okupazioan, baina langabezi tasa handiagorekin. Bitarteko errenta mailak izanik ere, pobrezia errearen eta ongizaterik ezaren maila handiak ditu, baita DBEren estaldura oso altua ere. Eskualde honen beste bereizgarri bat udal gastu handia da, baita erakundeek Gizarte Zerbitzuetan eskualdean egiten duten gastu handia ere.

Hala ere, eskualdearen oinarrizko bereizgarrietako bat babes ofizialeko etxebizitzaren zuzkidura handia da, inbertsio publikoaren eta zerbitzuen zuzkiduraren aldetik. Edozelan ere, esan beharra dago Gasteizek eta gainerako eskualdeek babes ofizialeko etxebizitzaren zuzkidura duten desberdintasuna, neurri handi batean, babesturiko etxebizitza garatzeko lurrik ezaren eta 2003. urtea baino lehen babesturiko etxebizitza deskalkifikatzeko jarduketaren ondorioa dela.

Gasteiz hiriaren datu espezifikoei erreparatuz gero, eskualde osoarekin alderatuta, esan beharra dago ez dela alde nabarmenik antzematen demografikoa datuetan (ez da harrizkoa hala izatea bere populazioaren pisu espezifikoa dela medio). Arlo ekonomikoan, industri enpleguaren pisua pixka bat handiagoa da eskualdean (%25) hiriburuan baino (%21,8). Langabezi tasa pixka bat handiagoa da hiriburuan, baina ez dago alde handirik batezbesteko errenta pertsonalaren (pixka bat handiagoa hiriburuan) aldetik, eta per capita BPGd-a pixka bat handiagoa da eskualdean. Bereziki aipagarria da Gasteizko babes ofizialeko etxebizitzaren zuzkidura; izan ere, 1.000 biztanleko 95,6ko tasa du, eta horrexegatik dago EAeko lehen tokian Gasteizko eskualdea (86,4) adierazle honetan.

Bere adierazleen bilakaerari dagokionez, bilakaera positiboa izan du bere zahartze-indizean (-%1,4) eta gora egin du ugalkortasun-tasak (%4,9). Migrazio-saldoa, berriz, %8,4 murriztu da 2008 eta 2012 bitartean. Arlo ekonomikoan, langabezi tasaren igoerarik handiena izan du Gasteizek, eta langabeziarik handiena zuen hirugarren eskualdea zen 2013an. Per capita BPGd-aren bilakaera negatiboa izan da, baina batezbesteko errenta pertsonala EAeko batezbestekoaren gainetik handitu da. Pobreziari dagokionez, igoera handia izan da Gasteizen, eta bigarren tokian kokatu da pobrezia-tasarik handien mailan, Bilboren atzetik. Bestalde, Etxebideko babesturiko etxebizitza eskabi-deen kopuruaren murrizpenik handiena eskualde honetan izan da (-%49,4), seguru akso hark duen babesturiko etxebizitzaren zuzkidura handiagatik. Hala, babesturiko etxebizitzaren EAeko eskaririk handiena zuen eskualdea zen Gasteiz 2006an, eta BOEren zuzkiduraren igoerari esker, eskaririk txikiena duena bilakatu da.

i) Eskuinaldea

Bilboren atzetik, Eskuinaldea da azterturiko hamaika eskualdeetatik txikiena, baina EAeko populazio osoaren %8 hartzen du. Bestalde, eskualderik aberatsena da, per capita BPGd-aren aldetik nahiz batezbesteko errenta pertsonalaren aldetik (baina ez errenta mediana baliokidea kontuan hartuz gero).

Eskualdeak demografiaren aldetik duen egituraren ezaugarri nagusia adinekoen populazioaren ez oso pisu handia da, bereziki adinik handiena dutenena, baita hurren populazioaren pisu txikia eta, beraz, mendetasun-tasa oso txikia ere. Ugalkortasun-tasa txikia eta EAeko ikasketa mailarik handiena izateagatik ere nabarmentzen da. Industri sektorearen pisua EAeko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta langabezi tasarik txikienetako bat ere badu. Bestalde, pobrezia-tasa EAeko batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa da. Gainera, Gizarte Zerbitzuetan gasturik txikiena egiten den eskualdea da, eta babesturiko etxebizitzaren zuzkidurarik txikiena duena. Hori dela-eta, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaririk handiena duen hirugarren eskualdea da.

Bilakaeraren aldetik, EAeko igoerarik handiena izan du zahartze-indizean, eta ugalkortasun-tasa txikiagoa da orain. Migrazio-saldoa ere %2,8 jaitsi da. Eskuinaldeak langabezi tasaren igoerarik erlatiborik txikienetakoa du, Donostialdearekin edo Bizkaiko Kostaldearekin batera, eta EAeren antzeko bilakaera du batezbesteko errenta pertsonalari dagokionez. Gainera, per capita BPGd-a igo den eskualde bakarra da; %4,7ko igoera, EAE osoaren %4,2ko jaitsieraren aldean. Pobrezia-tasa, ostera, gainerako eskualdeen antzera hazi da, eta Eskuinaldea EAeko batezbestekoen inguruan kokatzen da pobrezia mailetan. Babesturiko etxebizitzaren eskaria handia den Bizkaiko lau eskualdeetako bat da (Eskuinaldea, Bilbo, Ezkerraldea eta Bizkaiko Kostaldea). EAeko gainerakoetan, aldiz, murriztu egin da.

j) Ezkerraldea

Ezkerraldea, lehen euskal industrializazioaren paradigma izan zena, gaur egun zerbitzuen eskualdea da, eta agerian ditu oraindik ere jasandako desindustrializazioaren orbanak, baita EAeko gainerako eskualdeen aldean bere egoera ekonomikoa berdintzea lortu ez duen nahitaezko birmoldaketaren orbanak ere. Azterlan honetan kontsideraturiko 17 adierazleak kontuan izanik (ikusi hurrengo puntua), Ezkerraldea bi muturretako egoeretako batean legoke adierazle horietatik zortzitan.

2006. urtetik populazioa jaitsi ez bada ere, neurri txikienean hazi den eskualdea da (populazioa galdu duen Bilbo alde batera utzita). Hurren populazioaren pisua oso txikia da eta adinekoena oso handia. Hori dela-eta, EAeko goiko tokian dago, Bilboren atzetik, zahartze-indizearen aldetik. Ugalkortasun-tasa txikia eta saldo begetatibo negatiboa ditu, eta Estatutik kanpora jaiotako pisurik txikiena duen eskualdea da. Nabarmentzekoa da ere gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen portzentaje handiena izateagatik.

Bere egitura produktiboaren ezaugarri nagusiak establezimenduen kopuru txikia, industri sektorearen pisu txikia (nazioartekotze maila baxuak, sektore teknologikoaren espezializazioa eta berrikuntza), produktibitate handia eta emakumeen enpleguaren nahikoa pisu handia dira, hain zuzen ere zerbitzuen sektorea nagusi den eskualdeetan gertatzen den legez. Lan-merkatuaren datuak negatiboak dira, eta jarduera- eta enplegu-tasak oso txikiak. Izan ere, EAEko lehen tokian dago langabezian, bereizki gazteen langabezian. Aberastasun mailarik txikiena duen eskualdea da, edo biztanleko BPGd txikiena duena behinik bethin, eta batez besteko errenta pertsonala eta errenta mediana baliokide txikiak ditu. Gainera, pobrezia-tasarik handiena duten eskualdeen artean dago.

EAEko Osasunaren Inkestaren Ezkerraldearen konfigurazioa bat dator neurri handi batean gainerako adierazleetarako erabili denarekin eta, beraz, eskualdearen egoera gainerako osasun-eskualdeen egoerak alderatu daitezke osasunaren arloan. Ikuspuntu horretatik, ez du bereizki egoera txarra, ez norberak bere osasun onari buruz duen irudipenari dagokionez, ez antsitate eta depresio arazoei dagokienez, ez osasun arazo kronikoetan. Gainera, arriskuko alkohol kontsumo tasarik txikienak dituen eskualdea da.

Bilakaeraren aldetik, per capita BPGd-aren jaitsiera pixka bat handiagoa izan da eskualde honetan, baina ez langabezi tasak ez pobrezia tasak ez dira neurri handiagoan igo (alderantziz, pobrezia tasak nahiz ongizatearik ezari dagokiona, krisia baino lehen handiak zirenak, gainerako eskualdeetan baino askoz gutxiago hazi dira. Hori dela-eta, beste arlo batzuetan tasarik handienak izan arren, txikiagoa da orain gainerako eskualdeekiko distantzia).

k) Tolosa-Goierrri

Tolosa-Goierrri barnealdeko gainerako eskualde industrializatuen oso antzeko ezaugarriak ditu eta, Deba Garaiarekin eta Eskuinaldearekin batera, aztertutako adierazleetan emaitzarik onenak dituzten eskualdeetako bat da. Demografiaren aldetik, haurren populazio handiari esker nabarmentzen da, eta adinekoen pisua handia izan barik, oso zahartze-indize baxua du. Ugalkortasun-indizearik handiena duen eskualdea da eta, gainera, Gasteizekin batera, saldo begetatiborik handiena daukana. Datuek erakusten dutenez, egoera demografiko positibo hori garatu da enpleguan eta per capita BPGd-an emaitza positiboan eta EAEko gziarte zerbitzuetako gasturik handieneko testuinguruan garatu da. Hezkuntzari dagokionez, bigarren mailako edo maila handiagoko ikasketak dituztenen portzentaje txikia du. Hirugarren eskualdea da industri sektoreko lanpostuen ikuspegitik, eta espezializazio teknologikoaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen maila handiak ditu.

Langabezi tasarik txikienetakoa duten eskualdeetako bat da gainera. Gainerakoen aldean bereizki eskualde aberatsa izan barik (per capita BPGd-a EAEn %105aren baliokidea da), pobrezia tasak eta, batez ere, ongizaterik ezaren tasa, batezbestekoa baino txikiagoak dira, DBEren estaldura-tasa oso txikiekin. Biztanleko gasturik txikiena egiten dutenen artean daude Eskualdeko udalak eta, hala ere, biztanleko gizarte zerbitzuetako gastua EAE osoko altuena da.

Bilakaerari dagokionez, zahartze-tasa nahiz ugalkortasun-tasa murriztu dira eta, hala eta guztiz ere, EAE osoko zahartze-indize txikiena eta ugalkortasun-tasarik handiena duen eskualdea da Tolosa-Goierrri. Atzerritarren presentzia EAEko batezbestekoaren gaineratik handitu da, migrazio-saldoa %3,1 jaitsi bada ere. Tolosa-Goierrri industri enpleguaren pisua gutxien jaitsi den eskualdeetako bat da (-%4,1), eta langabezi tasa gutxien hazi den eskualdea ere bada. Per capita BPGd-ak jaitsiera nabarmena izan du, baina ez batezbesteko errenta pertsonala, %3,1 hazita. Pobrezia tasak igoera nabarmena izan du, EAEko bigarren mailarik txikiena baitzuen abiapuntu. Babesturiko etxebizitzien eskabideen kopurua %21,4 jaitsi da eskualdean; izan ere, 2006an ere babes ofizialeko etxebizitzien eskaririk txikiena zutenetakoa bat zen.

2.5. Adierazleen sakabanaketa eta eskualdeen arteko bateratze-prozesua

2.5.1. Eskualde Sakabanaketaren Tasaren definizioa eta interpretazioa (EST)

Txosten honetan aztertutako adierazle bakoitzean, Eskualde Sakabanaketaren Tasa (EST) kalkulatu da, eskualdeen arteko desberdintasun-maila neurtzeko eta, aldi berean, krisiaren egungo testuinguruak eskualdeen arteko bateratze-prozesuan islatu den zehazteko edo, alderantziz, desberdintasunak areagotu diren.

Eskualde-sakabanaketaren Tasa da aztertutako adierazleak eskualde bakoitzeko dituen bali-oen aldakuntzaren koefizientea, eta hura kalkulatzeko formulak desbideratze estandarra adierazten du batezbesteko aritmetiko gisa:

$$TDC = \frac{\sigma}{\bar{x}} \cdot 100$$

Eskualde Sakabanaketaren Tasa, oro har, otik 100era aldatuko da, baina zenbait probabilitate-banaketatan 100etik gorako balioa izan dezake. Zeroren berdina den sakabanaketa-tasak eskualde guztien arteko berdintasun osoa ekarriko luke aztertutako adierazlean. Muga gisa, esan beharra dago ezen, batezbesteko aritmetikoa otik oso hurbil dagoen kasuetan, Eskualde Sakabanaketaren Tasak esanahia galtzen duela zati batez, zeren eta oso balio handiak eman baititzake, ezinbestean datuen sakabanaketa handiak ez dakartenak. Horrexegatik, zerotik hurbileko batezbestekoa duten adierazleen Eskualde Sakabanaketaren Tasa aztertuko da txosten honetan.

Azken finean, Eskualde Sakabanaketaren Tasari ezker, hainbat arlotako kohesio maila zehaztu daiteke (demografikoa, ekonomikoa edo soziala, kasuan kasuko adierazlearen arabera) EAEko eskualdeen artean. Gainera, oinarria izan daiteke politika publiko bereziak definitzeko eta ebaluatzeko, lurraldeen arteko desoreka mailarik handiena duten eremuetan esku hartze aldera.

2.5.2. Eskualdeen arteko desberdintasunei buruzko azterketa

Eskualde Sakabanaketaren Tasa honetan adierazitako eskualdeen arteko desberdintasunak aztertzerakoan, ekonomia-sareari dagozkio eskualdeen arteko desberdintasunik handienak dituzten 10 adierazleak (zehazki, industri sektoreak duen pisua eta enpresen nazioartekotzea), demografia (populazioaren aldakuntza eta migrazio-saldoa), etxebizitzaren gaineko politika, (babesturiko etxebizitzak etxebizitza-parke guztiarekiko duen portzentajea), pobrezia maila (haurrena eta orokorra) eta lan-merkatua (gazteen langabezi tasa). Hots, arlo horietan dira desberdinenak elkarren artean EAEko eskualdeak.

5. taula. Eskualde Sakabanaketa Tasarik handiena duten adierazleen sailkapena

Sailkapena	Adierazleak	EST
1	>=250 enplegatutako industri establezimenduetako lanpostuak (1.000 biztanleko)	89,4
2	Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	71,7
3	Babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua (1.000 biztanleko)	60,8
4	Haurren pobrezia tasa erreala	60,5
5	Pobrezia erreala tasa	51,6
6	Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	46,3
7	Industri BEGaren pisua	42,0
8	Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)	41,4
9	Haurren langabezi tasa	40,6
10	EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa	38,9
11	Bere etxebizitza inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituen populazioaren %	37,9
12	Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kopurua (1.000 okup.)	35,1

5. taula. Eskualde Sakabanaketa Tasarik handiena duten adierazleen sailkapena

Sailkapena	Adierazleak	EST
13	DBEren hartzaileen kopurua (1.000 biztanleko)	34,6
14	Ongizaterik ezaren tasa	32,0
15	5 enplegatuko edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa	31,5
16	Etxebiden jasotako etxebizitza-eskabideak (1.000 biztanleko)	26,9
17	Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa	22,7
18	5 enplegatuko edo gehiagoko establ. berritzaileetako lanpostuen proportzioa	22,7
19	Gizarte Zerbitzuetako gastua biztanleko	22,0
20	Gizarte Segurantzaren laneko altaren afiliazioak (1.000 biztanleko)	19,8
21	Estatutik kanpora jaiotakoaren proportzioa	19,1
22	Establezimenduen batez besteko tamaina	17,1
23	Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia (%)	16,9
24	Establezimenduen lanpostuen kopurua 1.000 biztanleko	16,6
25	Hutsik dauden famili etxebizitzaren proportzioa	16,1
26	Erregistraturiko langabezi indizea	15,6
27	Per capita BPGd-a	13,7
28	Zahartze-indizea	13,3
29	Lanbide ikasketak dituztenen proportzioa	12,3
30	Soldatako enplegu finkoaren pisu erlatiboa	12,0
31	Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa	11,8
32	75 urteko eta gehiagokoaren proportzioa	11,2
33	Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%)	11,2
34	Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko	10,6
35	Udalen biztanleko gastu arrunta	9,7
36	Arazo kronikoen prebalentzia (%)	9,7
37	Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa	8,9
38	Ugalkortasun-tasa globala	8,3
39	Laneko batez besteko errenta pertsonala	7,5
40	Batez besteko errenta pertsonala	7,3
41	65 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioa	7,1
42	Langabeziagatiko prestazioen eraginkortasun horizontala	6,8
43	16 urtetik beherakoaren proportzioa	6,7
44	Lanpostuko BPGd-a	6,1
45	Bitarteko errenta baliokidea	5,5
46	Mendetasun-tasa	4,6
47	Etxebizitzaren erosotasun-indizea	3,9
48	Okupazio-koefizientea	2,7
49	Osasun onaren prebalentzia (%)	2,4
50	Jarduera-tasa	1,4
--	Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia	--
--	Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko)	--

Oharra: Ez dute daturik batezbestekoa o-tik hurbil duten adierazleek (saldo begetatiboa eta emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia).

Eskualdeen arteko desberdintasunik txikiak, berriz, honako adierazle hauetan ditugu: jardueratan, osasun onaren prebalentzian, okupazio-koefizientean, etxebizitzaren erosotasun-indizean edo mendetasun-tasan. Esanguratsua da errenta pertsonalaren, produktibitatearen edo ugalkortasun-tasa globalaren moduko alderdietan dagoen aldagarritasun urria.

Eskualde Sakabanaketaren Tasen bilakaera berriari erreparatuta ikusten denez, azken urteetan eskualdeen artean bateratze-prozesua gertatu zeneko adierazleen kopuru handi bat dago, baina horietako askotan eskualdeen arteko desberdintasunak murriztu dira hasieran egoera hobean zeudenen okertze handiagoagatik.

**6. taula. Eskualde sakabanaketaren tasaren bilakaera
(eskualdeen arteko baterakuntza handienetik txikienera)**

<i>Adierazleak</i>	<i>EST. Ald. %</i>
Osasun onaren prebalentzia (%)	-52,6
Gizarte Zerbitzuetako gastua biztanleko	-49,4
Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%)	-48,5
Ongizaterik ezaren tasa	-37,5
Estatutik kanpora jaiotakoaren proportzioa	-33,3
Jarduera-tasa	-33,3
Gazteen langabezi tasa	-29,5
65 urteko eta gehiagokoaren proportzioa	-25,0
Haurren pobrezia errearen tasa	-24,3
Mendetasun-data	-23,2
Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko	-21,9
Bere etxebizitzaren inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituen populazioaren %	-21,8
Langabeziagatiko prestazioen eraginkortasun horizontala	-19,7
Pobrezia errearen tasa	-18,0
Lanpostuko BPGd-a	-16,5
Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa	-14,3
Emakumeen langabeziaren pisu erlatiboa	-13,9
Bitarteko errenta baliokidea	-13,8
Zahartze-indizea	-13,1
Ugalkortasun-tasa globala	-12,1
Establezimenduen batez besteko tamaina	-10,3
EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa	-9,6
Per capita BPGd-a	-6,5
>=250 enplegatuko industri establezimenduetako lanpostuak (1.000 biztanleko)	-5,1
75 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioa	-3,7
Erregistraturiko langabezi indizea	-2,8
Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa	-1,6
Okupazio-koefizientea	-0,6
Udalen biztanleko gastu arrunta	-0,5
Batez besteko errenta pertsonala	0,0
16 urtetik beherakoaren proportzioa	2,2
Laneko batez besteko errenta pertsonala	2,4
Establezimenduetako lanpostuen kopurua 1.000 biztanleko	3,0
Industri BEGaren pisua	4,0
5 enplegatuko edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa	5,4
Lanbide ikasketak dituzten pertsonen proportzioa	6,2
Gizarte Segurantzako laneko altaren afiliazioak (1.000 biztanleko)	6,2
Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	8,1
Soldatako enplegu finkoaren pisu erlatiboa	8,8
Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)	14,7
Etxebiden jasotako etxebizitza-eskabideak (1.000 biztanleko)	18,1
Etxebizitzen erosotasun-indizea	19,4
Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kopurua (1.000 okup.)	23,2

**6. taula. Eskualde sakabanaketaren tasaren bilakaera
(eskualdeen arteko baterakuntza handienetik txikienera)**

Adierazleak	EST. Ald. %
Arazo kronikoen prebalentzia (%)	42,9
Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia (%)	48,3
5 enplegatuko edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa	52,1
Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia	--
Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko)	--
Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	--
DBEren jasotzaileen kopurua (1.000 biztanleko)	--
Hutsik dauden famili etxebizitzaren proportzioa	--
Babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua (1.000 biztanleko)	--

Oharra: Ez dute ESTren aldakuntza daturik aztertutako epealdiaren hasierako edo amaierako urtean ESTrik ez duten adierazleak.

Iturria: Geuk eginikoa.

Eskualdeen arteko bateratze-prozesurik handiena gertatu deneko 10 adierazleen artean, hauexek daude: osasunarekin lotutakoak (osasun onaren eta antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia), gizarte babesa (Gizarte Zerbitzuetako gastua), prekarietatea eta pobrezia (bereziki haurren), demografia (mendetasun-tasa eta 65 urtetik gorakoaren proportzioa), immigrazioa (atzerrian jaiotakoaren proportzioa) eta lan-merkatua (gazteen langabezi tasa).

Antsietate eta depresio arazoaren prebalentziaren adierazlean eskualdeen artean dagoen sakabanaketari dagokionez, okertze orokorra gertatu da eskualdeen artean, eta are handiagoa da hasieran egoera hobean zeudenen artean; horrexegatik gertatu da bateratze-prozesua. Pobrezia eta ongizaterik ezaren tasei dagokionez, antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta igoera handiak gertatu baitira hain zuzen ere hasieran pobrezia eta ongizaterik ezaren tasarik handienak zituzten eskualdeetan. Era berean, atzerrian jaiotako pertsonen presentzia eskualdeen artean berdintzeko joera izan da; izan ere, igoerarik handienak populazio horretan hasieran presentzia txikiena zuten eskualdeetan gertatu dira. Gazteen langabezi tasari dagokionez, deigarria da eskualdeen arteko diferentzia handitu izana, noiz-eta erregistraturiko langabezi tasarekin hala jazo ez denean. Berriz ere gertatu da eskualdeen arteko bateratze-prozesua adierazle horrek jokabide okerragoa izan duelako hasieran gazteen langabezi tasa txikiena zuten eskualdeetan.

Beste muturrean, gora egin dute eskualdeen arteko desberdintasunek oso eremu ezberdinetan hala nola enpresetako berrikuntzan eta teknologian, osasunaren arazo kronikoen prebalentzian, arrisku maila handiko alkohol kontsumoan, etxebizitzan (erosotasun-indizea eta etxebizitza babesurako eskabideak) eta migrazio-saldoan.

Teknologia maila handiko sektoreetako landunen kopuruari dagokionez, gora egin dute eskualdeen arteko desberdintasunek hasieran egoera hobean zeuden industri eskualdeetako adierazlearen hobekuntzagatik hala nola Deba Garaian, Deba Barrean edo Aiaran, baita abiapuntuko egoera txarragoa duten beste batzuen okertzeagatik, ere, Bilbon adibidez. Migrazio-saldoari dagokionez, badirudi logikoa dela atzeraldi ekonomikoaren testuinguru batean pertsonen mugikortasuna handitzea enplegua aurkitzeko, eta halaxe berresten da datuak ikusita, zeren eta migrazio-saldoaren murrizpenik handiena langabezi tasarik handiena duten eskualdeetan gertatu baita hain zuzen ere, hots, Ezkerraldean, Bilbon, Gasteizen eta Aiaran.

Laburbilduz, EAeko eskualdeek bateratzeko joera izan dute osasunaren edo pobrezia ikuspuntutik, baina egitura ekonomikoaren adierazleek jokaera desberdina izan dute: erregistraturiko langabeziaren indizearen sakabanaketak edo batez besteko errenta pertsonalaren edo BEGaren pisuarenak apenas izan dute aldaketarik (eskualdeen profila ez da aldatu atzeraldiagatik alderdi horretan). Teknologia maila handiko sektoreetako landunen kopurua, berriz, gehien hazi direnen artean dago.

Edozelan ere, garrantzizkoa da gogoratzea eskualdeen arteko bateratze- edo urruntze-prozesuaren azterketa behin-behinekoa dela atzeraldi ekonomikoaren testuinguruan, zeren eta bizkorregia izango bailitzateke pentsatzea 2013. urtera arteko datuekin atzeraldi horren ondorio guztiak gauzatu izana. Izan ere, zenbait eskualderen industri izaerak, dirudienez, krisiaren ondorioak moteldu ditu krisiaren hasierako urteetan, baina oraindik ezin baztertu daiteke krisiak eskualde horietan ondorio atzeratua izatea. Era berean, adierazleen sakabanaketaren aldaketak baloratzerakoan, kontuan izan behar dira adierazle bakoitzak epealdietan dituen desberdintasunak.

2.6. EAeko eskualdeen arteko desoreken gaineko etengabeko panela

2.6.1. Panelaren osaera

Eginiko txostenaren helburuetako bat da lurraldeen artean antzemandako desoreken etengabeko jarraipena ematea, betiere azterturiko adierazleak etengabe eguneratuz. Ikuspuntu horretan, adierazle bakoitzak egun duen egoera eta krisia hasi zenetik izandako bilakaera aztertu ondoren, badirudi logikoa dela garrantzizkoen eta esanguratsuen iritzitako adierazleak aukeratzea eta eguneratze-sistema bat ezartzea. Sistema horri esker, alde batetik eskualde bakoitzak adierazle nagusien inguruan duen bilakaera zein den jakin daiteke, eta bestetik, zein neurritan mantentzen diren txosten honetan identifikaturiko bateratze- eta urruntze-prozesuak.

Horretarako, adierazleen panel bat egin da, eta etengabe eguneratuko da, estatistika-iturri originalek datu berriak eskaini ahala.

Panela osatzen duten adierazleak hautatzerakoan, honako adierazle hauek izan dira kontuan :

- Garrantzia. Azterturiko 52 adierazle horietatik eskualde bakoitzaren bizi-baldintzak eta egitura produktiboa deskribatzerakoan garrantzizkoen iritzitakoak identifikatzen saiatu gara.
- Eskualde-banaketa. EAeko 11 eskualdeetan banakatuta eskaini daitezkeen adierazleak erabiltzea aukeratu da, eta lehentasunez erabili izan dira honako txosten honetan. Hori dela-eta, ez dira sartu Osasunaren Inkestaren ondoriozko adierazleak, ezta soilik lurralde mailan edota beste eskualde-banakapenarekin eskaintzen diren balizko beste adierazle batzuk ere.
- Eguneratzeko maiztasuna. Eguneratzeko maiztasuna da panela osatzen duten adierazleak aukeratzeko dugun oinarritzko elementuetako bat. Zenbait adierazle iturri batetik baino gehiagotik lor daitezke eta zenbait adierazleren aldizkakotasuna alda liteke etorkizunean. Hala ere, urtero argitaratzen direnak biltzea aukeratu da, edo bi urterik behin agertzen direnak behinik behin, lau urtean edo bost urtean behin eguneratzen direnak alde batera utzita.
- Datuen sorburua. Txosten honetan azterturiko adierazleek oinarritzko bi iturri dituzte: Populazioaren laginketa esanguratsuetako inkestak eta erregistroko datuak; panela definitzeko, ahal dela, erregistroko datuak lehenetsi dira, azterturiko eremuen egoera fidagarritasun handienarekin biltzen dutelakoan.
- Dimentsio-aniztasuna. Adierazleak hautatzerakoan, ahaleginak egin dira nolabaiteko aniztasun tematikoari eusteko, hain zuzen ere txosten honetan azterturiko dimentsio guztiei buruzko adierazleak bilduta adierazleen panelean.
- Konparagarritasuna. Ahaleginak egin dira, bestalde, beste herrialde edo erregio batzuetan bildutako adierazleak sartzeko, gehienbat beste adierazle-sorta batekoak direnak, esate baterako Europa 2020 Estrategia edo EcoEuskadi 2020 Estrategia.
- Banakapenak. Eskualde bakoitzeko populazio osoaren gaineko adierazleak eskaintzen dira. Hala ere, zenbait kasutan eskualde bakoitzaren egoera aztertzekoan kontuan

izan beharko liratekeen banakapenak adierazten dira, baita biltzea komeni izango litzatekeen adierazle gehigarri edo garapen adierazle oro ere.

Irizpide horiek abiapuntu hartuta, hauek dira panela osatuko luketen adierazleak –lehenik eta behin²⁷-:

²⁷ Lehen proposamena da, eta eguneratzen denean aldatu edo egokitu liteke.

<i>Dimentsioak eta adierazleak</i>	<i>Azken iturria</i>	<i>Iturria</i>	<i>Aldizkakotasuna</i>	<i>Oharra</i>	<i>Banakapen eta datu erlazionatuak</i>
Egitura demografikoa					
1. Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	2013	EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.	Urtekoa	Urteko adierazlea da, eguneratzen erraza eta udal mailan eskuragarri. Horri esker, eskualde-banaketatara egokitu daiteke. Gainera, funtsezko elementua biltzen du ustez populazioa jaitziko den testuinguru batean, eta eskualdeen dinamismo ekonomikoarekin eta sozialarekin du lotura. Bestalde, erregistroko adierazlea da, eskualde edo nazio mailako beste errealitate batzuekin konparagarria. Panelean, urte arteko aldakuntzarik berriena ageri da eta, ez, txostenean bezala, 2006 eta 2013 bitarteko aldakuntza.	Ez
2. 75 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.	Urtekoa	Aurrekoaren antzeko arrazoibidea da, zeren eta urtero eta udal mailan eskuragarri dagoen adierazlea baita. Zahartze-adierazle konbentzionalarekin dago lotuta argi eta garbi, baina neurri handiagoan dago lotuta gizarte eta osasun arreta maila handiagoko egoerekin. Aurreko kasuan bezala, erregistroko adierazlea da, eskualde edo nazio mailako beste errealitate batzuekin erraz konparatzeko modukoa.	75 urtetik gorako kopuruaren hazkundea (kopuru absolutuetan)
3. Mendetasun-tasa	2013	EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.	Urtekoa	Aurrekoen berdina	Ez
Populazioaren mugimenduak					
4. Ugalkortasun-tasa globala	2012	EUSTAT. EAeko jaiotzen estatistika. / EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.	Urtekoa	Euskadiren jaiotze-tasa txikia dela-eta, etengabeko jarraipena behar da arlo honetan. Aurreko kasuen legez, erregistroko adierazlea da, eskualde edo nazio mailako beste errealitate batzuekin erraz konparatzeko modukoa (baina zenbait kasutan, EcoEuskadi 2020 estrategia adibidez, jaiotze-tasa lehenesten da).	Ez
5. Estatutik kanpora jaiotako proportzioa	2013	EIN: Etengabeko Erroldaren Estatistika.	Urtekoa	Aurreko adierazleen antzeko argudioa da Kasu honetan, Estatutik kanpora jaiotako proportzioak lotura du eskualde bakoitzeko gazteak erakartzeko ahalmen handiagoarekin, aniztasun handiagoarekin, etab.	Estatutik kanpora jaiotako kopuruaren hazkundea (kopuru absolutuetan)
BPGd-a eta lehiakortasuna					
6. Per capita BPGd-a	2010	EUSTAT. Udal BPGd-a	Bi urtekoa	Funtsezko datua da, erregistrokoa eta eskualde eta nazio mailako beste errealitate batzuekin konparagarria. Adierazle honen eragozpenik handiena nolabaiteko atzerapenez eguneratzen dela da eta, gaur arte, bi urterik behin baino ez da argitaratzen.	Ez

<i>Dimentsioak eta adierazleak</i>	<i>Azken urtea</i>	<i>Iturria</i>	<i>Aldizkakotasuna</i>	<i>Oharra</i>	<i>Banakapenak eta datu erlazionatuak</i>
Lan-merkatua					
7. Okupazio-koefizientea	2011	Lan-merkatuaren Zentsua (EJ)	Urtekoa (lau urtetik hiru urtean)	Okupazio-koefizientea edo enplegu-tasa funtsezko adierazlea da, beste adierazle batzuetan bildua, hala nola Ecoeuskadi 2020an edo Europa 2020an. Hiri iturri ezberdin daude gutxienez adierazle honetan: - Lan-merkatuaren Zentsua, lau urterik hiru aldietan egiten dena eta eskualde mailako datuak eskaintzen dituena; - EUSTATen PRAK ere eskualde mailako zenbatespenak eskaintzen ditu adierazle honetarako (ez hain sarri eguneratua); - EUSTATen Populazio eta Etxebizitza Zentsuak ere ematen du informazio hori bost urtean behin. Nahiz eta txostenean azken iturri horretara jo, LMZ oinarri hartuta egin litezke adierazle honen eguneratzeak.	Sexua eta adina. Landunen kopuruaren hazkundera, kopuru absolutuetan
8. Erregistraturiko langabezi tasa	2013	Lanbide.	Urtekoa	Adierazle honek abantaila handi bat du: etengabe eguneratzen da eta erregistroko datuetatik dator, baina eskualde bakoitzeko populazio aktiboaren zenbatespena oinarri hartuta.	Sexua eta adina
Enpresa sarea eta dinamismoa					
9. Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	2013	EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa	Urtekoa	Adierazle garrantzitsua da, populazioaren bizi-baldintzekin duen erlazioagatik. Urtero eguneratzen da.	Ez
10. Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko	2013	EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa	Urtekoa	Argi eta garbi eskualde bakoitzeko enpresa dinamismoarekin du lotura. Urtero eguneratzen da.	Ez
Errenta eta pobrezia					
11. Batez b. errenta pertsonala	2011	EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika	Biurtekoa	Hau ere adierazle garrantzitsua da, baina atzerapenez eguneratzen da eta soilik bi urterik behin ematen da informazioa.	Pertsona nagusiaren sexua eta adina Errent. metaketa (Gini)
12. Pobrezia errearen tasa	2012	PGDI. Enplegu eta Gizart Pol. Saila (EJ)	Laurtekoa	Funtsezko adierazlea da, baina orain artean lau urterik behin eguneratu da. Hala ere, baliteke EJK hemendik aurrera bi urterik behin eguneratzea adierazlea. Europa2020 estrategiaren baitan, beste metodologia baten bidez eguneratzen diren eta pobreziarekin lotuta dauden beste adierazle batzuk daude, baina iturri beretik lortzen dira (ARPE tasa, pobrezia erlatiboa, oinarrizko gauzak ez izatea, etab.).	Pertsona nagusiaren sexua eta adina Populazioaren adina Gauza materialik eza ARPE tasa Pobrezia erlatiboa

<i>Dimentsioak eta adierazleak</i>	<i>Azken urtea</i>	<i>Iturria</i>	<i>Aldizkakotasuna</i>	<i>Oharrak</i>	<i>Banakapen eta datu erlazionatuak</i>
Gizarte prestazioak eta gastu publikoa					
13. DBEren hartzaileen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	Lanbide.	Urtekoa	Nahiz eta teorikoki pobrezi tasen antzeko dimentsioa estaltzen duen, beste ikuspegi bat darabil, eta errazago eguneratu daiteke.	Ez
14. Udalen gastu arrunta biztanleko	2011	EUSTAT. Sektore publikoko aurrekontuen estatistikak.	Urtekoa	Adierazle garrantzitsua da hau ere, erraza eguneratzen, herritarren zerbitzuak eskuragarri izateari begira.	Ez
15. Gizarte zerbitzuetako gastu publikoa biztanleko	2011	Gizarte Zerbitzuetako gastu publikoa. Enplegu eta Gizarte Pol. Saila (EJ)	Urtekoa	Eskualde jakin batean egon daitezkeen arazoak nahiz udalek gastu handiagoa izateko duten baliagarritasuna adierazten du. Urtero eguneratzen da, baina bi urteko atzerapenarekin.	Ez
Etxebizitza					
16. Etxebiden jasotako etxebizitza-eskabideak (1.000 biztanleko)	2013	Enplegu eta Gizarte Pol. Saila (EJ)	Urtekoa	Erraz eguneratzeko adierazlea da, eskualde mailan dagoen etxebizitza eskuragarrien beharrei buruzko beste adierazle garrantzitsu batzuk ez direnean.	Etxebizitza eta alokairua

2.6.2. Azterturiko hamaika eskualdeen egoera

Honekin batera doan taulan, eskualde bakoitzerako eta hautaturiko 16 adierazle bakoitzerako eskuragarri dugun datua bildu da; izan ere, geroko eguneratzeetarako abiapuntua da. Berdez eta gorritz ageri dira, adierazle bakoitzean, baliorik handienak eta txikiak dituzten bi eskualdeak.

3. taula. Eskualde-adierazleen panela. 2014.

Dimentsioak eta adierazleak	Urtea	A1	A2	B1	B2	B3	B4	B5	G1	G2	G3	G4
Populazioaren pisua (%)	2013	2,0	12,7	15,9	5,9	5,6	7,4	18	2,9	2,5	21,9	5,3
Egitura demografikoa												
1. Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko) ²⁸	2013	-1,7	-3,8	-6,5	2,6	2,7	1,3	-1,5	4,1	3,2	2,0	3,0
2. 75 urtek eta gehiagokoaren proportzioa*	2013	9,7	9,2	12,8	9,9	9,5	8,9	11,3	10,9	12,1	10,1	10,2
3. Mendetasun-tasa	2013	51,8	50,6	55,5	52,4	51,7	51,0	52,8	56,1	58,0	54,5	57,1
Populazioaren mugimenduak												
4. Ugalkortasun-tasa globala	2012	44,3	44,2	35,8	44,0	44,2	39,6	40,2	45,4	46,1	41,7	50,0
5. Estatutik kanpora jaiotakoaren proportzioa*	2013	6,0	11,1	10,2	8,1	7,6	8,1	6,0	6,5	7,9	8,4	7,6
BPGd-a eta lehiakortasuna												
6. Per capita PBGD-a	2010	32.667	31.943	28.943	25.191	35.183	38.175	25.129	37.981	28.342	29.328	31.558
Lan-merkatua												
7. Okupazio-koefizientea ²⁹	2011	67,8	64,4	59,5	63,6	65,5	63,5	61,4	68,9	65,4	67,2	69,1
8. Erregistraturiko langabezi tasa	2013	15,3	16,8	18,8	12,8	13,7	13,3	19,3	12,1	14,9	14,0	12,9
Enpresa sarea eta dinamismoa												
9. Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	2013	48,6	25,0	4,5	29,1	38,8	18,2	18,0	47,1	36,3	16,4	42,5
10. Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko	2013	77,3	78,5	93,8	74,8	76,5	88,0	65,4	69,1	76,3	91,4	80,7
Errenta eta pobrezia												
11. Batez besteko errenta pertsonala	2011	19.788	20.206	19.787	19.909	19.071	23.234	16.817	20.891	19.515	20.401	20.637
12. Pobrezia-tasa erreala	2012	2,2	6,2	9,5	2,9	2,4	5,1	5,8	2,0	2,2	4,1	4,5
Gizarte prestazioak eta gastu publikoa												
13. DBEren hartzaileen kopurua (1.000 biz-	2013	20,1	25,3	43,8	24,3	20,4	22,5	32,2	12,9	22,2	18,2	15,3

²⁸ Esana dugunez, urte arteko aldakuntzarik berriena biltzen da eta ez, txostenean bezala, 2006 eta 2013 bitartean erregistraturikoa.

²⁹ Lan-merkatuaren Zentsuko datuak bildu dira, ez Populazio eta Etxebizitza Zentsukoak, txostenean bezala, zeren eta iturri horri esker egin ahal izango baitira etorkizunean eguneratzeak.

Dimentsioak eta adierazleak	Urtea	A1	A2	B1	B2	B3	B4	B5	G1	G2	G3	G4
tanleko)												
14. Udalen gastu arrunta biztanleko	2011	1.060	1.273	1.175	957	1.013	996	1.005	1.043	908	1.107	951
15. Gizarte zerbitzuetako gastu publikoa	2011	615	914	802	800	568	557	809	697	691	558	1.103
Etxebizitza												
16. Etxebideko etxebizitza-eskabideak (1.000 biztanleko)	2013	25,0	31,9	53,2	32,6	28,7	45,5	43,2	28,5	29,0	48,4	25,6
G1= Deba Garaia		G4= Tolosa-Goierri			B3= Durangaldea			A1= Aiara				
G2= Deba Barrena		B1= Bilbo			B4= Eskuinaldea			A2= Gasteiz				
G3= Donostialdea		B2= Bizkaiko Kostaldea			B5= Ezkerraldea							

* Egoera txarragoan daudela kontsideratu da adierazle honetan tasarik txikiak dituzten eskualdeak, zeren eta erronka izan baitaiteke pertsona-talde horren beharrei behar bezalako arreta ematea erakundeei, berez gertaera txartzat hartu barik.

Taulan ikusten denez, Deba Garaiak betetzen du gehiagotan bi egoerarik onenetako edo positiboenetako bi; izan ere, goiko tokian ageri da 16 adierazleetatik zortzitan. Hurrengoak, bost adierazletan, Eskuinaldea eta Tolosa-Goierri dira. Bi tokirik txarrenetan dagoen eskualdea, berriz, Bilbo da (16tik 10), eta ondoren Ezkerraldea (16tik 8ra).

3. ONDORIOAK

Hitzaurreko atalean aipatu denez, honako hauek lortu nahi izan dira EAeko lurraldeen arteko desorekak krisi ekonomikoan deritzon txosten honen bidez:

- EAeko eskualdeen errealitatea hobeto ezagutzea, haien giza eta ekonomiaren arloko ezaugarri nagusien laburpena aurkeztuta eskuragarri dugun informazio estatistikoa oinarri izanik.
- Azterturiko alderdian eskualdeek duten egoera eta EAeko testuinguruan gaur egun betetzen duten tokia definitzeko profila ezartzea.
- EAE barruko lurraldeen desberdintasunak zein neurritan eta zein alderdian handitu diren aztertzea, eta krisiak aurretiazko desoreka horiek areagotu dituen erabakitzea egitura demografikoaren, lan-merkatuaren, egitura produktiboaren, dinamismo ekonomikoaren eta bizi-baldintzen aldetik.
- Eskuragarri ditugun estatistika-adierazleetan oinarrituta, egoerarik hoberenean dauden eskualdeak eta egoera hobe horren zioak identifikatzea, hots, egungo abaguneari abantaila izanik aurre egitea ahalbidetzen dieten indarguneak.

Horretarako, hainbat estatistika-iturritatik eta administrazio-erregistroetatik lorturiko 52 adierazle-eren panela egin da. Eskualde bakoitzak azterturiko eremuetan duten egoera ez ezik, eskualde bakoitzak krisia hasi zenetik izan duen bilakaera ere jaso da. Metodologiari buruzko atalean azaltzen denez, eskualdea da funtsezko eremu geografikoa, zeren eta bere nortasuna eta udal errealitateetik haragoko berezitasunak ematen dizkieten ezaugarriak baitituzte eskualdeek, egitura produktiboaren eta enpresa egituraren aldetik nahiz bizi-kalitatearen aldetik.

Aztergai ditugun adierazleei dagokienez, interesekotzat jo diren estatistika-iturriak eta administrazio-erregistroak izan dira diagnostikoaren oinarria. Hortaz, uko egin diogu geure informazioa biltzeko eragiketen bidezko adierazle berriak eskuratzeari, baita informazio kualitatiboa biltzeari ere, gure ustez badirelako EAEn diagnostiko hori egiteko nahikoa kalitateko estatistika-iturriak. Ildo horretan, iturriek ematen duten informazioa bildu, sistematizatu eta aztertzea izan da txostenaren xedea, adierazleok elkarren artean erlazionatuz, ez aurretik ez dugun informazioa eskaintzen duten datuen iturri berriak sortzea.

Metodologiari buruzko atalean, txostenaren beraren mugak ere azaldu dira, esate baterako adierazle-eraketa, eginiko lurralde-eransketaren edo bildutako datuen aldi baterako estalduraren aldetik. Lehen gaiari dagokionez, garrantzitsuenak eta esanguratsuenak iriztitakoak aukeratu dira –eskualde edo udal mailan eskuragarri dauden adierazle guztietatik-, baina aukeraketa orotan bezala, azkenean azterturiko laburpena konbentzionala eta arbitrarioa da. Gainera, udal edo eskualde mailan dagoen informazioaren gaineko dimentsioak eta elementuak aipatzen dira. Hortaz, euskal eskualdeen erradiografia da, eguneratua eta zehatza, baina ez da nahikoa ezinbestean, edo gutxienez partziala da. Lurralde-eransketari dagokionez, eskuragarri ditugun guztietatik eskualde-banakatarik zabalena hautatu da: Horri esker, alde batetik adierazle kopuru handiagoa eskaintzeko modua izan da, baina horrek guztiak, bestalde, zenbait eskualdetan izan litezkeen hainbat errealitate ezkuta zitzakeen –lurralde errealitateak, baina sozioekonomikoak ere bai-. Azkenik, adierazle bakoitzaren gaineko informaziorik berriena eskaintzen saiatu gara, baina, batzuetan, eskuragarri ditugun daturik berrienak 2010 edo 2011koak dira.

Muga horiek kontuan izanik ere, eginiko azterketari esker nahikoa diagnostiko eguneratua, zehaztua eta fidagarria egin ahal izan da eskualdeen artean EAEn dauden ezberdintasunei buruz, krisia hasi zenetik sei urte igarotakoan.

Hona hemen, laburbilduta, eginiko azterketatik atera daitezkeen emaitza nagusiak:

a) *Lurraldeen arteko desorekak dauden zenbait alderditan*

Honatx eginiko azterketatik atera daitezkeen ondorio nagusia: lurraldeen arteko zenbait desoreka daudela berrestea, eskualde bakoitzaren egitura produktiboaren aldetik nahiz bertan bizi diren pertsonen bizi-baldintzen aldetik. Nahiz eta eskualdeen arteko ezberdintasunak nahikoa txikiak izan zenbait alderditan, eskualdeen arteko oso errealitate desberdina erakusten dute azterturiko beste adierazle batzuek. Ikuspegi horretatik, nabarmentzekoak dira honako adierazle hauen inguruan dauden desberdintasunak (desberdintasunen magnitudearen aldetik nahiz islatzen dituzten egoeren sakabanaketaren aldetik):

- Eskualdeen egitura produktiboa eta, bereziki, egitura hori industri sektorera bideratuta egotea. Azterturiko eskualde guztiek, jakina, nolabaiteko espezializazioa dute sektore edo eremu produktiboetan, haien ibilbide historikoaren eta ezaugarri fisikoen arabera. Alabaina, batez ere itxuraz eskualde bakoitzak industri sektorera bideratuta egoteak herritarren bizi-baldintza orokorretan duen garrantzia kontuan hartzen bada, garrantzizkoa da nabarmentzea ezen industri BEGd-aren pisua edo industriako enpleguaren pisua direla eskualdeen arteko desberdintasun handienak erakusten dituzten adierazleetako bi. Izan ere, azterturiko guztien artean sakabanaketa handiena duen adierazlea 250 langiletik gorako industri establezimenduetako lanpostuen pisuari buruzko da: Deba Garaiko milako 106tik Bilboko milako 2,95era bitartean.

Osagai horiekin batera, eskualde bakoitzaren egitura produktiboarekin lotutako beste adierazle batzuetan ere badira desberdintasun nabarmenak eskualdeen artean hala nola EBn sartzen diren enpresen pisua, teknologia maila handiko enpresetan lanean ari direnen kopurua edo berrikuntza jarduerak egiten dituzten establezimenduetako lanpostuen proportzioa.

- Populazioaren aldaketa eta migrazio-saldoa. Desberdintasun handiak antzematen dira populazioaren aldaketari dagokionez, 2006/2013ko epealdia kontuan hartzen bada behin behin. Kasu honetan, hauexen arteko desberdintasunak daude populazioan: Gasteizko eskualdeko %6,4ko hazkundera eta Bilboko %1,3ko jaitsiera. Bestalde, migrazio-saldo positiboak ere, EAEn epealdi horretan behera egin badu ere, jaitsiera handiak izan ditu Gasteizen eta Bilbon. Deba Garaian eta Deba Barrenean, berriz, hazkundera gertatu dira.
- Pobreziaren hedapena eta, bereziki, haurren txirotasuna. Haurren pobrezia tasa erreala, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestatik ateratakoa, hauexen artean zegoen 2012an: Bilboko %16tik eta Deba Garaiko %2,6ra (hots, EAEko batez bestekoaren %2,7 eta %168 bitartean). Gauza bera gertatzen da populazio osoaren pobrezia errealean ere.
- Langabeziaren hedapena eta, bereziki, gazteen langabezia. Eskualde arteko aldaketa oso nabarmenak daude beste alderdi batzuetan ere, gazteen langabezian esaterako. Gehienekoa Ezkerraldean zegoen 2011n, %46koa, eta txikiena, berriz, Deba Barrenean, %16 (alde batera utzi da Aiara eskualdea, azterturiko laginketa txikia zelako).

- DBEren estaldura eta gizarte zerbitzuetako gastuak. Pobreziaren prebalentzia desberdintasuna dela-eta, oso ezberdintasun handiak daude eskualdeen artean eskualde bakoitzaren DBEren estaldurari dagokionez. Gehieneko maila Bilbon dago, milako 43,8; txikiena, berriz, Deba Garaian, milako 12,9. Ez da hain argia, ordea, gizarte zerbitzuetako gastuaren aldetik dauden desberdintasun handien gaineko azalpena; izan ere, pobreziaren nahiz mendetasunaren ondoriozkoak dira.

b) *Egoera ezberdinak zenbait eskualdetan metatzea*

Eginiko azterketaren ondoriozko funtsezko beste osagai bat eskualdeen gaineko oso profil argiak egotea da eta, bereziki, egoerarik ezberdin edo dibergente gehienak bi eskualde zehaztuz metatzea: Bilbon eta Ezkerraldean. Batezbestekoaren azpitik daude bi eskualde horiek aztertutako adierazle zati handi batean: populazioaren aldaketa, zahartzea, ugalkortasuna, saldo begetatiboa, industriako enpleguaren pisua, berrikuntza, enpresa teknologia berrietara bideratzea, EBn sartzea, pobrezia, langabezia, etxebizitzaren erosotasuna...

Elkarren artean oso ezaugarri desberdinak dituzten bi eskualde dira –esate baterako, batez besteko errentari edo per capita BPGd-ari dagokienez-, baina antzeko joera dute zerbitzuen sektorean. Datu horiek, ezinbestean berriak ez badira ere, garrantzizkoak dira kontuan hartzen bada bi eskualde horietan bizi dela EAEko populazioaren heren bat.

c) *Adierazle hoberenak dituzten eskualdeen ezaugarriak*

Kontrako aldean, adierazlerik hoberenak dituzten eskualdeetako hiruk –Deba Garaia, Tolosa eta Aiara- oso antzeko ezaugarriak dituzte. Izan ere, oso eskualde industrializatuak dira, oro har batez bestekoa baino gehiago bideratuak berrikuntzara eta nazioartekotzera, eta neurri handiagoan jaso dute industri birmoldaketaren onura, merkatu globalaren beharretara hobeto egokitutako sektoreen, teknologien eta enpresa ereduaren aldeko apustua eginda.

Aipaturiko industrializazioa gorabehera, oraindik landa izaera garrantzitsuari eusten dioten eskualdeak dira gainera eta, bestalde, EAEko populazio dentsitate txikiena duten bost eskualdeen artean daude. Guztira, EAEko populazioaren %10 besterik ez da bizi eskualdeotan.

d) *Bateratze- eta urruntze-prozesuak*

Espainiako autonomia erkidegoetan gertatu ez bezala, krisiaren eraginez -zenbait adierazleri dagokionez behinik behin-, bateratze-prozesua gertatu da eskualdeen artean eta, beraz, krisia³⁰ baino lehen zeuden desorekak gutxitu dira.

Bateratze-prozesurik garrantzitsuenak arlo hauetan izan dira: antzemandako osasuna, zenbait osasun arazoren prebalentzia, gizarte zerbitzuetako gastua, pobrezia eta ongizaterik eza, estatutik kanpora jaiotako herritarren pisua, zahartze-tasak, errenta (errenta ertain baliokidean neurtua), produktibitatea (lanpostuko BPGd-a) edo ugalkortasuna. Alabaina, pentsa liteke, pobreziari eta ongizaterik ezari dagokionez behinik behin, krisia baino lehen egoera hobean zeuden eskualdeetan okertze handiagoa izatearen ondorioz gertatu dela bateratzea, eta ez horrenbeste aurretik datu txarragoak zituzten eskualdeen egoerak hobetu izanaren eraginez.

Beste alderdi batzuetan, pentsa liteke handitu egin direla lurraldeen arteko desorekak, adierazle sakabanaketaren arabera behintzat. Ildo horretan, dibergentziarik handiena izan duten adierazleak

³⁰ Gogoratu behar da bi une zehatzen arteko aldaketari buruzkoak direla txosten honetako aldaketak: bata krisiaren aurrekoa eta bestea ahalik eta berriena. Pentsa liteke zenbait kasutan ez ziratekeela berdinak izango bateratze- eta urruntze-prozesuak beste epealdi batzuk kontsideratu izan balira azterketan.

artean, orientazio produktiboari buruzko ia guztiak daude eta, zehazki, eskualdeen industri orientazioari buruzkoak (berrikuntza egiten duten establezimenduen ehunekoak, teknologia maila handiko sektoreetako langileen kopurua, industri sektoreko lanpostuen proportzioa, Gizarte Segurantzako afiliazioak...). Populazioaren mugimenduei (migrazio-saldoa, esaterako) eta etxebizitzari (etxebizitzaren erosotasun indizea eta jabetzapeko edo alokairuko BOE eskaerak) buruzko zenbait adierazletan handitu egin dira ezberdintasunak.

e) Egitura produktiboarekiko erlazioa

Azterlan honen norainokoa mugatua izan daiteke azterturiko informazio kantitatearen eta informazio motaren aldetik. Hala ere, egoera hobereanean dauden eskualdeak zein diren eta egoera hobe horren zio posibleak identifika daitezke eskualdeei buruz ditugun adierazleak erabiliz, hots, egungo abaguneari egoera hobean aurre egitea ahalbidetzen duten indarguneak. Ikuspegi horretatik, baina nolana ere bi alderdien arteko kausazko erlazioa ezinbestean ezin ezar badaiteke ere, ikus daiteke adierazle hoberenak dituzten eskualdeak direla industrian pisurik handiena dutenak. Adierazle txarrenak dituzten eskualdeak, berriz, zerbitzuen sektorean indarrik handiena dutenak izango lirateke.

Nolana ere, nabarmentzekoa da industri izaera handieneko eskualdeek egoera hobea dutela langabezi tasaren eta pobreziaaren adierazleetan, besteak beste.

Gauza bera gertatuko litzateke erlazioaturiko beste adierazle batzuekin, halako moldez non, oro har, industri BEGd-aren portzentajea, industri enpleguaren pisua, EBN presentzia duten enpresen portzentajea edo enpresa berritzaileen enpleguaren portzentajea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago baitago bizi-baldintza hobeak izan ditzaten.

f) Etengabeko jarraipenerako beharra

Txosten honetan erakutsi diren datuen arabera, EAeko lurraldeen arteko desberdintasunei buruzko azterketa bultzatu beharra dago. Bide hauetatik bultzatu litezke horrelako azterketak:

- Aurreko orrialdeetan proposaturiko paneletan sartutako adierazleak etengabe eguneratzea, eta ahal den neurrian, adierazle eta datu-iturri berriak sartzea.
- Datuak sistematikoki ezagutaraztea udal eta eskualde mailan, betiere posiblea bada, estatistika eragiketetan, eta administrazio-erregistro garrantzitsuenak.
- Eskualde-banaketa bera erabiltzea estatistika datuak edo erregistrokoak argitaratzeko erakunde eskudunek.

1. ERANSKINA

ADIERAZLEEN TAULAK ESKUALDEKA

GASTEIZ

<i>Adierazlea</i>	<i>Urtea</i>	<i>Balioa</i>	<i>Adierazlea</i>	<i>Urtea</i>	<i>Balioa</i>
Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	2013	66,7	Establezimenduen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	78,5
16 urtetik beherako pertsonen proportzioa	2013	15,2	Establezimenduetako lanpostuen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	424,9
65 urte edo gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	18,4	Establezimenduen batez besteko tamaina	2013	5,4
75 urte edo gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	9,2	Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	2013	25,0
Zahartze-indizea	2013	121,5	250 langile edo gehiagoko industri establezimenduetako lanpostuen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	32,6
Mendetasun-tasa	2013	50,6	Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kop. (1.000 biztanleko)	2011	125,2
Ugalkortasun-tasa globala	2012	44,2	Batez besteko errenta pertsonala	2011	20.206,3
Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko)	2012	2,6	Laneko batez besteko errenta pertsonala	2011	12.777,3
Estatutik kanpora jaiotako pertsonen proportzioa	2013	11,1	Errenta mediana baliokidea	2012	1.523,0
Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)	2012	6,2	Pobrezia errealearen tasa	2012	6,2
Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportzioa	2011	57,6	Haurren pobrezia errealearen tasa	2012	14
Lanbide ikasketak dituztenen proportzioa	2011	16,8	Ongizaterik ezaren tasa	2012	10,8
Per capita BPGd-a	2010	31.943	Langabeziagatiko prestazioaren estaldura-tasa	2013	52,1
Lanpostuko BPGd-a	2010	61.183	DBEren jasotzaileen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	25,3
Industri BEGd-aren pisua	2010	27,8	Udalen gastu arrunta biztanleko	2011	1.273,5
5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa	2012	22,1	Gizarte Zerbitzuetako gastu publikoa biztanleko	2011	913,9
5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen lanp. prop.	2012	40,1	Osasun onaren prebalentzia (%)	2013	*
Finantzaketa arazoak dituzten establezimenduen proportzioa	2012	21,3	Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%)	2013	*
EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa	2012	22,7	Arazo kronikoren bat duten pertsonen prebalentzia (%)	2013	*
Jarduera-tasa	2011	75,1	Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia (%)	2013	*
Okupazio-koefizientea	2011	63,9	Bere etxebizitzaren inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituen populazioaren proportzioa	2013	*
Langabezi tasa	2013	16,8	Hutsik dauden famili etxebizitzaren proportzioa	2011	9,4
Emakumeen eta gizonen langabezi tasaren arteko ezberdintasuna	2011	-2,6	Etxebizitzaren erosotasun-indizea (%)	2011	78,4
Gazteen langabezi tasa	2011	24,1	Etxebiden jasotako etxebizitza-eskaerak (1.000 biztanleko)	2013	31,9
Gizarte Segurantzako laneko altaren afiliazioak (1.000 biztanleko tasa)	2013	442,6	Babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua (1.000 biztanleko)	2013	86,4
Emakumeen langabeziaren pisu erlatiboa	2012	43,3			
Soldatako finkoen pisu erlatiboa	2012	67,1	*Ez dago daturik, Osasunaren datuek beste eskualde-banaketa bat dutelako.		

AIARA

Adierazlea	Urtea	Balioa	Adierazlea	Urtea	Balioa
Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	2013	50,9	Establezimenduen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	77,3
16 urtetik beherako pertsonen proportzioa	2013	14,9	Establezimenduetako lanpostuen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	436,3
65 urte edo gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	19,2	Establezimenduen batez besteko tamaina	2013	5,6
75 urte edo gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	9,7	Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	2013	48,6
Zahartze-indizea	2013	128,7	250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduen lanpostu kop. (1.000 biztanleko)	2013	72,6
Mendetasun-tasa	2013	51,8	Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kop. (1.000 biztanleko)	2011	129,1
Ugalkortasun-tasa globala	2012	44,4	Batez besteko errenta pertsonala	2011	19.787,7
Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko)	2012	1,2	Laneko batez besteko errenta pertsonala	2011	12.714,0
Estatutik kanpora jaiotakoaren proportzioa	2013	6,0	Errenta mediana baliokidea	2012	1.610,1
Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)	2012	1,1	Pobrezia errearen tasa	2012	2,2
Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten herritarren proportzioa	2011	55,3	Haurren pobrezia tasa erreala	2012	3,5
Lanbide ikasketak dituztenen proportzioa	2011	20,6	Ongizaterik ezaren tasa	2012	3,5
Per capita BPGd-a	2010	32.667	Langabeziagatiko prestazioaren estaldura-tasa	2013	50,0
Lanpostuko BPGd-a	2010	59.063	DBEren jasotzaileen kop. (1.000 biztanleko)	2013	20,1
Industri BEG-aren pisua	2010	46,5	Udalen gastu arrunta biztanleko	2011	1.060,2
5 langile edo gehiagoko establezimendu berri-tzaileen prop.	2012	14,4	Gizarte Zerbitzuetako gastu publikoa biztanleko	2011	614,7
5 langile do gehiagoko establezimendu berri-tzaileetako lanp. prop.	2012	44,6	Osasun onaren prebalentzia (%)	2013	*
Finantzaketa arazoak dituzten establezimenduen proportzioa	2012	9,9	Antzietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%)	2013	*
EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa	2012	41,6	Arazo kronikoren bat duten pertsonen prebalentzia (%)	2013	*
Jarduera tasa	2011	73,7	Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia(%)	2013	*
Okupazio-koefizientea	2011	63,5	Bere etxebizitzaren inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituen populazioaren proportzioa	2013	*
Langabezi tasa	2013	15,3	Hutsik dauden familia etxebizitzaren proportzioa	2011	13,6
Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko ezberdintasuna	2011	1,2	Etxebizitzaren erosotasun-indizea (%)	2011	72,2
Gazteen langabezi tasa	2011	7,2	Etxebiden jasotako etxebizitza eskabideak (1.000 biztanleko)	2013	25,0
Gizarte Segurantzako laneko alten afiliazioak (tasa 1.000 biztanleko)	2013	380,6	Babes ofizialeko etxebizitza kopurua (1.000 biztanleko)	2013	28,1
Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa	2012	31,2			
Soldatako finkoen enpleguaren pisu erlat.	2012	74,2	*Ez dago daturik, Osasunaren datuek beste eskualde-banaketa bat dutelako.		

ESKUINALDEA

<i>Adierazlea</i>	<i>Urtea</i>	<i>Balioa</i>	<i>Adierazlea</i>	<i>Urtea</i>	<i>Balioa</i>
Populazioaren aldakuntza (1.000 biztanleko)	2013	15,5	Establezimenduen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	88,0
16 urtetik beherako pertsonen proportzioa	2013	14,9	Establezimenduetako lanpostuen kopurua (1.000 biztanleko)	2013	493,9
65 urte edo gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	18,8	Establezimenduen batez besteko tamaina	2013	5,6
75 urte edo gehiagoko pertsonen proportzioa	2013	8,9	Industri sektoreko lanpostuen proportzioa	2013	18,2
Zahartze-indizea	2013	126,0	250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduen lanpostu kop. (1.000 biztanleko)	2013	20,1
Mendetasun-tasa	2013	51,0	Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kop. (1.000 biztanleko)	2011	103,3
Ugalkortasun-tasa globala	2012	39,6	Batez besteko errenta pertsonala	2011	23.233,6
Saldo begetatiboa (1.000 biztanleko)	2012	0,6	Laneko batez besteko errenta pertsonala	2011	14.833,8
Estatutik kanpora jaiotakoaren proportzioa	2013	8,1	Errenta mediana baliokidea	2012	1.533,9
Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)	2012	4,2	Pobrezia errearen tasa	2012	5,1
Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten herritarren proportzioa	2011	69,0	Haurren pobrezia tasa erreala	2012	8,2
Lanbide ikasketak dituztenen proportzioa	2011	15,2	Ongizaterik ezaren tasa	2012	9,1
Per capita BPGd-a	2010	38.175	Langabeziagatiko prestazioaren estaldura-tasa	2013	53,8
Lanpostuko BPGd-a	2010	63.058	DBEren jasotzaileen kop. (1.000 biztanleko)	2013	22,5
Industri BEG-aren pisua	2010	18,4	Udalen gastu arrunta biztanleko	2011	995,5
5 langile edo gehiagoko establezimendu berri-tzaileen prop.	2012	22,1	Gizarte Zerbitzuetako gastu publikoa biztanleko	2011	557,0
5 langile edo gehiagoko establezimendu berri-tzailetako lanp. prop.	2012	43,0	Osasun onaren prebalentzia (%)	2013	*
Finantzaketa arazoak dituzten establezimenduen proportzioa	2012	13,4	Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia (%)	2013	*
EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa	2012	20,8	Arazo kronikoren bat duten pertsonen prebalentzia (%)	2013	*
Jarduera tasa	2011	71,8	Epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia(%)	2013	*
Okupazio-koefizientea	2011	61,7	Bere etxebizitzaren inguruan delinkuentzia arazoak antzematen dituen populazioaren proportzioa	2013	*
Langabezi tasa	2013	13,3	Hutsik dauden familia etxebizitzaren proportzioa	2011	10,0
Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko ezberdintasuna	2011	-0,5	Etxebizitzaren erosotasun-indizea (%)	2011	73,7
Gazteen langabezi tasa	2011	25,6	Etxebiden jasotako etxebizitza eskabideak (1.000 biztanleko)	2013	45,5
Gizarte Segurantzako laneko alten afiliazioak (tasa 1.000 biztanleko)	2013	521,5	Babes ofizialeko etxebizitza kopurua (1.000 biztanleko)	2013	15,7
Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa	2012	38,2			
- Estatutik kanpora jaiotakoak EAEn erroldaturiko herritarren %8,4 ziren 2013an, eta eskualde hauetan bildu da pisurik handiena: Gasteizen (%11,1), Bilbon (%10,2) eta Donostialdean (%8,4), hots, hiru hiriburuak biltzen dituzten eskualdetan. Bestalde, atzerrian jaiotako enproporziorik txikiena Ezkerraldean (%6), Aiaran (%6), Deba Garaian (%6,5), Durungaldean (%7,6), Tolosa-Goierrin (%7,6) eta Deba Barrenean (%7,9) biltzen dira.
- Estatutik kanpora jaiotako gehienak populaziorik handieneko hiri eskualdeetan bizi dira, gehienbat Donostialdean (%22), Bilbon (%19,4), Gasteizen (%16,9) eta Ezkerraldean (%12,9). Lau eskualde horietan bizi da atzerrian jaiotako EAE pertsonen %71,2, hots, eskualde horiek populazio osoarekiko duten portzentajea baino pixka bat handiagoa (%68,9).
- 2006tik gora egin du EAEn atzerrian jaiotako pertsonen enproporzioak: 2006. urteko populazioaren %51etik egungo %8,4ra, hots, %65,1eko gehikuntza. Talde horretan hasieran populazioaren pisu txikiena zuten eskualdeetan gertatu da, hain zuzen ere, adierazlearen igoerarik handiena: Deba Barrena (%105,8), Ezkerraldea (%100,1), Tolosa-Goierrri (%97), Deba Garaia (%94,5), Durungaldea (%88,2) eta Aiara (%81,1). Datu horiek aditzera ematen dute atzerrian jaiotako populazioa gehienbat EAeko hiriburuetan bildu zela hasieran, eta ondoren, lurraldeko hainbat eskualdetara joan zirela bizi izatera pixkanaka.
- Izan ere, adierazle horren eskualde sakabanaketaren tasa¹ %33,3 murriztu zen 2006 eta 2013 bitartean. Horrek agerian uzten du eskualdeen arteko baterakuntza estatutik kanpora jaiotako pertsonen enproporzioan.

¹ Eskualde sakabanaketaren tasa kalkulatzeko, eskualdeen desbideratze estandarra zati eskualdeen batez bestekoa bider 100 egin behar da.


1. MODULUA. POPULAZIOA

1.10. Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)

Definizioa eta iturriak Migrazioaren ziozko sarreraren (immigrazioak) eta zio beragatik izandako irteeren arteko diferentzia da 1.000 biztanleko, erreferentziako aldian eta batez beste. Adierazlearen zeinu positiboak edo negatiboak erakusten du sarrerak irteerak baino gehiago direla, edo alderantziz.
Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen estatistika.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko). EAE 2012



Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen estatistika.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Populazioaren eskualde banaketa eta migrazio-saldoa (1.000 biztanleko) EAE=100.2012



Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen estatistika.

1. MODULUA. POPULAZIOA

1.10. Migrazio-saldoa (1.000 biztanleko)

Bilakaera

Migrazio-saldoaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Migrazio-saldoa	Sailkapena	Migrazio-saldoa	Sailkapena	Aldak. %
Araba	14,0	--	5,5	--	-8,5
Gasteiz	14,6	1.a	6,2	4.a	-8,4
Aiara	10,2	3.a	1,1	11.a	-9,1
Bizkaia	7,6	--	4,2	--	-3,4
Eskuinaldea	7,0	7.a	4,2	7.a	-2,8
Bilbo	8,1	6.a	4,0	8.a	-4,1
Ezkerraldea	6,1	8.a	3,1	10.a	-3,0
Bizkaiko Kostaldea	11,2	2.a	6,8	3.a	-4,4
Durangaldea	8,6	4.a	5,8	5.a	-2,8
Gipuzkoa	5,2	--	4,6	--	-0,6
Donostialdea	4,5	11.a	3,6	9.a	-0,9
Tolosa-Goierrri	8,3	5.a	5,2	6.a	-3,1
Deba Garaia	4,8	10.a	7,4	2.a	2,6
Deba Barrena	5,2	9.a	9,0	1.a	3,8
EAE	7,8	--	4,5	--	-3,2
Bilbo	8,1	--	4,0	--	-4,1
Donostia	0,2	--	-0,5	--	-0,7
Gasteiz	12,5	--	7,1	--	-5,4
EST	36,1	--	41,4	--	14,7

Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen estatistika.

Emaitza nagusiak

- EAE osoan positiboa da migrazio-saldoa, eta 2012an 4,5ekoa zen (hots, immigrazioak emigrazioak baino gehiago dira, 4,5 kasu gehiago 1.000 biztanleko). Gainera, eskualde guztietan daukate migrazio-saldo positiboa, baina handiagoa da Deba Barrenean (9), Deba Garaian (7,4), Bizkaiko Kostaldean (6,8), Gasteizen (6,2) eta Durangaldean (5,8). Migrazio-saldo txikiagoa da, berriz, Aiara (1,1), Ezkerraldea (3,1), Donostialdea (3,6) eta Bilbo (4) eskualdeetan.
- Krisiaren ondorioz, murriztu egin da migrazio-saldoa, baina maila negatiboetara iritsi gabe, ikusi dugunez. EAE osorako adierazlea jaitsi egin da: 2008ko 7,8tik 2012ko 4,5era. Murrizketa hori gertatu da are handiagoa izan delako immigrazioen kopuruan (%-23,2) eta emigrazioen kopuruan izandakoa baino (%-10). Eskualdez eskualde, bilakaera negatiboa izan da eskualde guztietan, Deba Barrenean (3,8ko igoera migrazio-saldoa) eta Deba Garaian (2,6) izan ezik. Izan ere, lau urtean, migrazio-saldorik txikiena duten bi eskualdeak izatetik adierazle horren sailkapeneko burua izatera igaro ziren 2012an. Jaitsierarik handiena Aiaran dugu (-9,1): 2012an EAEko migrazio-saldorik txikiena zuena bihurtu zen. Bilakaera negatiboa duten hurrengo eskualdeak Gasteiz (-8,4), Bilbo (-4,1) eta Ezkerraldea (-3) dira.
- Donostia zen 2012an migrazio-saldo negatiboa zuen hiriburu bakarra (-0,5). Gasteizek, aldiz, 7,1eko saldo positiboa du eta Bilbok 4koa. 2008tik murriztu egin da migrazio-saldoa hiru hiriburuetan, eta jaitsierarik handienak Gasteizen ageri dira (-5,4), ondoren Bilbon (-4,1) eta Donostian (-0,7).


1. MODULUA. POPULAZIOA

1.11. Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportzioa

Definizioa eta iturriak 10 urte edo gehiago dituzten eta bigarren mailako, lanbideko edo unibertsitateko ikasketak egin dituzten herritar ez ikasleek 10 urte edo gehiagoko populazio ez ikaslearen gainean duten portzentajea da erreferentziako lurraldean.
 Eskualde bakoitzean bizi diren eta gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen proportzioa biltzeaz gain, populazio horren eskualdez eskualdeko banaketa eta eskualde bakoitzean erregistraturiko proportzioak EAE osoko batez bestekoaren gainean duen balioa ere jaso dira.
 Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Eskuragarri ditugun datuak


Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportzioa. EAE 2011



Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsua.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen eskualde banaketa eta bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen proportzioaren indizea EAE=100. 2011



Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

1. MODULUA. POPULAZIOA

1.11. Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportzioa

Bilakaera

Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2006-2011

	2006		2011		2006-2011
	%	Sailkapena	%	Sailkapena	Aldak.%
Araba	53,7	--	57,2	--	6,7
Gasteiz	54,2	5.a	57,6	5.a	6,2
Aiara	50,5	7.a	55,3	7.a	9,4
Bizkaia	53,8	--	57,3	--	6,5
Eskuinaldea	66,4	1.a	69,0	1.a	4,0
Bilbo	57,0	2.a	60,1	2.a	5,5
Ezkerraldea	47,0	11.a	50,9	11.a	8,3
Bizkaiko Kostaldea	55,2	4.a	59,3	4.a	7,5
Durangaldea	48,9	8.a	52,9	8.a	8,3
Gipuzkoa	53,5	--	57,4	--	7,3
Donostialdea	55,9	3.a	59,7	3.a	6,8
Tolosa-Goierri	47,2	10.a	51,6	10.a	9,2
Deba Garaia	51,7	6.a	55,4	6.a	7,2
Deba Barrena	47,9	9.a	52,1	9.a	8,8
EAE	53,7	--	57,3	--	6,8
Bilbo	57,0	--	60,1	--	5,5
Donostia	63,7	--	67,5	--	5,9
Gasteiz	55,8	--	58,8	--	5,3
EST	10,3	--	8,9	--	-13,6

Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Emaitza nagusiak

- EAE osoan, populazioaren %57,3k gutxienez bigarren mailako ikasketak egin ditu. Proportzio hori handiagoa da Eskuinaldean (%69), Bilbon (%60,1), Donostialdean (%59,7), Bizkaiko Kostaldean (%59,3) eta Gasteizen (%57,6). Proportziorik txikiena, berriz, Ezkerraldean (%50,9) dago, eta ondoren datoz Tolosa-Goierri (%51,6), Deba Barrenean (%52,1) eta Durangaldean (%52,9).
- Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren zatirik handiena eskualderik jendetsuenean biltzen da hala nola Donostialdean (%22,3), Bilbon (%17,2), Ezkerraldean (%16,4) eta Gasteizen (%12,7). Lau eskualde horietan, gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen %68,6 bizi da, lau eskualde horiek 10 urte eta gehiago dituzten eta ikasleak ez diren herritarren gainean denaren antzeko portzentajea da (%68,9).
- Hiriburuen artean, gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportziorik handiena Donostian dago (%67,5), ondoren Bilbon (%60,1) eta Gasteizen (%58,8). Azken horretan handitu da gehien adierazlea 2006tik (%8,1), eta ondoren Donostia (%5,2) eta Bilbo datoz (%3,8).
- EAE osoan, gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua %6,8 hazi da 2006tik, eta igoera handiak izan dira eskualde guztietan. Igoera handiagoa izan da Aiaran (%9,4), Tolosa-Goierri (%9,2), Deba Barrenean (%8,8), Ezkerraldean (%8,3) eta Durangaldean (%8,3). Bestalde, igoerarik txikiena Eskuinaldean (%4) eta Bilbon (%5,5) dago. Gutxienez bigarren mailako ikasketak dituen populazioaren proportzioaren arabera eskualdeen izandako sailkapena ez da aldatu 2006 eta 2011 bitartean.

1. MODULUA. POPULAZIOA

1.12. Lanbide ikasketak dituen populazioaren proportzioa

Definizioa eta iturriak


10 urte edo gehiago dituzten eta lanbideko edo unibertsitateko ikasketak egin dituzten herritar ez ikasleek 10 urte edo gehiagoko populazio ez ikaslearen gainean duten portzentajea da erreferentziako lurraldean.

Eskualde bakoitzean bizi diren eta lanbide ikasketak dituzten pertsonen proportzioa biltzeaz gain, populazio horren eskualdez eskualdeko banaketa eta eskualde bakoitzean erregistraturiko proportzioak EAE osoko batez bestekoaren gainean duen balioa adierazten dira.

Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Lanbide ikasketak dituen populazioaren proportzioa. EAE 2011



Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Lanbide ikasketak dituztenen eskualde banaketa eta lanbide ikasketak dituztenen proportzioaren indizea EAE=100. 2011



Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

1. MODULUA. POPULAZIOA

1.12. Lanbide ikasketak dituen populazioaren proportzioa

Bilakaera

Lanbide ikasketak dituztenen proportzioaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea.
EAE 2006-2011

	2006		2011		2006-2011
	%	Sailkapena	%	Sailkapena	Aldak.%
Araba	15,4	--	17,3	--	15,9
Gasteiz	15,0	8.a	16,8	8.a	15,9
Aiara	18,2	3.a	20,6	2.a	15,7
Bizkaia	14,7	--	16,5	--	12,0
Eskuinaldea	13,9	10.a	15,2	10.a	9,9
Bilbo	12,7	11.a	14,0	11.a	8,3
Ezkerraldea	16,0	7.a	18,1	6.a	12,7
Bizkaiko Kostaldea	14,6	9.a	16,7	9.a	17,1
Durungaldea	17,6	4.a	20,0	4.a	15,5
Gipuzkoa	16,7	--	18,7	--	12,7
Donostialdea	16,1	6.a	17,9	7.a	12,0
Tolosa-Goierrri	17,2	5.a	19,7	5.a	16,1
Deba Garaia	18,5	1.a	20,9	1.a	12,7
Deba Barrena	18,2	2.a	20,4	3.a	12,0
EAE	15,4	--	17,3	--	12,8
Bilbo	12,7	--	14,0	--	8,3
Donostia	13,8	--	15,2	--	9,2
Gasteiz	14,7	--	16,5	--	15,2
EST	11,6	--	12,3	--	6,0

Iturria: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Emaitza nagusiak

- EAE osoan, populazioaren %17,3k ditu lanbide ikasketak eginda. Eskualdez eskualde ikusten den joeraren arabera, lanbide heziketaren pisua handiagoa da eskualde industrialagoetan. Eskualde haiek dute lanbide heziketa duten pertsonen proportziorik handiena: Deba Garaia (%20,9), Aiara (%20,6), Deba Barrena (%20,4), Durungaldea (%20) eta Tolosa-Goierrri (%19,7). Proportziorik txikiena, berriz, Bilbon (%14), Eskuinaldean (%15,2), Bizkaiko Kostaldean (%16,7) eta Gasteizen (%16,8).
- Lanbide ikasketak dituen populazioaren zatirik handiena eskualde jendetsuenetan bizi da hala nola Donostialdean (%22,2), Ezkerraldean (%19,3), Bilbon (%13,2) eta Gasteizen (%12,3). Lau eskualde horietan bizi da gutxienez lanbide ikasketak dituzten pertsonen %67; lau eskualde horiek 10 urte eta gehiago dituzten eta ikasleak ez diren multzoaren gainean 2011n duten antzeko portzentajea (%68,9).
- Hiriburuen artean, lanbide ikasketak dituen populazioaren proportziorik handiena Gasteizen dago (%16,5), ondoren Donostian (%15,2) eta Bilbon (%14). Gasteizen gertatu da adierazle horren hazkunderik handiena 2006tik hona: (%15,2). Ondoren Donostia (%9,2) eta Bilbo (%8,3) daude.
- EAE osoan, %12,8 hazi da 2006tik lanbide ikasketak dituzten pertsonen proportzioa, eta eskualde guztietan izan da igoera. Igoera handiagoa izan da Bizkaiko Kostaldean (%17,1), Tolosa-Goierrri (%16,1), Gasteizen (%15,9), Aiaran (%15,7) eta Durungaldean (%15,5). Bestalde, igoerarik txikiena Bilbon (%8,3) eta Eskuinaldean (%9,9) dago. Gutxienez lanbide ikasketak dituen populazioaren proportzioaren arabera eskualdeen sailkapena ia ez da aldatu 2006 eta 2011 urte bitartean.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.1. Per capita BPGd-a


Definizioa eta iturriak

Faktore produktiboek (lantegiak, dendak, zerbitzu-enpresak...) beren lurralde eremuan eta biztanleko sortutako aberastasuna neurtzen du per capita BPGd-aren adierazleak. Erreferentziako lurraldearen Barne Produktu Gordina (prezio arruntetan) zati biztanleen kopurua egin behar da kalkulua egiteko.

Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Per capita BPGd-a. EAE 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

BPGd-aren eskualde banaketa eta per capita BPGd-aren indizea EAE=100. 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.1. Per capita BPGd-a

Bilakaera

1.000 biztanleko per capita BPGd-aren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea EAE 2008-2010

	2008		2010		2008-2010 Aldak. %
	Per capita BPGd-a	Sailkapena	Per capita BPGd-a	Sailkapena	
Araba	35.689	--	32.054	--	-10,2
Gasteiz	34.928	6.a	31.943	5.a	-8,5
Aiara	40.345	1.a	32.667	4.a	-19,0
Bizkaia	29.835	--	29.187	--	-2,2
Eskuinaldea	36.450	4.a	38.175	1.a	4,7
Bilbo	29.210	9.a	28.943	8.a	-0,9
Ezkerraldea	26.620	10.a	25.129	11.a	-5,6
Bizkaiko Kostaldea	26.396	11.a	25.191	10.a	-4,6
Durangaldea	36.730	3.a	35.183	3.a	-4,2
Gipuzkoa	31.774	--	30.368	--	-4,4
Donostialdea	29.855	7.a	29.328	7.a	-1,8
Tolosa-Goierrri	35.994	5.a	31.558	6.a	-12,3
Deba Garaia	40.247	2.a	37.981	2.a	-5,6
Deba Barrena	29.783	8.a	28.342	9.a	-4,8
EAE	31.307	--	29.988	--	-4,2
Bilbo	29.210	--	28.943	--	-0,9
Donostia	32.187	--	32.289	--	0,3
Gasteiz	33.231	--	30.569	--	-8,0
EST	14,7	--	13,7	--	-6,5

Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Emaitza nagusiak

- EAEko per capita BPGd-a 29.988€ zen 2010ean, hots, %4,2ko jaitsiera 2008koarekin alderatuta. Per capita BPGd-a handiena duten eskualdeak Eskuinaldea (38.175€), Deba Garaia (37.981€), Durangaldea (35.183€) eta Aiara (32.667€) dira. Kopururik baxuenak, berriz, Ezkerraldean (25.129€), Bizkaiko kostaldean (25.191€), Deba Barrenean (28.342€) eta Bilbon (28.943€) ageri dira.
- 2008tik behera egin du per capita BPGd-ak EAEn gehienbat 2009an BPGd-an (prezio arruntetan) izandako jaitsieraren ondorioz (-%5,2). Eskualdez eskualde, beherakadarik handienak Aiaran (-%19), Tolosa-Goierrin (-%12,3), Gasteizen (-%8,5) eta Ezkerraldean (-%5,6) izan dira. Eskuinaldeak baizik ez du igoerarik izan bere BPGd-an (%4,7) aipaturiko epealdian.
- BPGd-aren proportziorik handiena eskualderik jendetsuenetan gertatzen da, Donostialdean, Bilbon, Ezkerraldean eta Gasteizen hain zuzen. Lau eskualde horiek BPGd-aren %65,5 eta populazioaren %68,6 bildu zuten 2010ean.
- Hiriburuen artean, Donostiak du per capita BPGd handiena (32.289€), eta ondoren Gasteiz (30.569€) eta Bilbo (28.943€). 2008tik hona Gasteizen izan da jaitsierarik handiena (-%8), eta jaitsiera txikiagoak izan dute Bilbon (-%0,9) eta igoera txikia Donostian (%0,3).
- Eskualdeen arteko desberdintasunak %6,5 jaitsi dira adierazle honetan, eskualde-sakabanaketaren tasak erakusten duenez. Horrek agerian uzten du, aztertutako epealdian behinik behin, bateratzeko nolabaiteko joera gertatu dela eskualdeetan aberastasuna sortzeari dagokionez, per capita terminoetan.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA


2.2. Lanpostuko BPGd-a

Definizioa eta iturriak Faktore produktiboek (lantegiak, dendak, zerbitzu-enpresak...) beren lurralde eremuan eta biztanleko sortutako aberastasuna neurtzen du per capita BPGd-aren adierazleak. Erreferentziako lurraldearen Barne Produktu Gordina (prezio arruntetan) zati biztanleen kopurua egin behar da kalkulua egiteko. Lanproduktibitatearen adierazle bat da.

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.


Lanpostuko BPGd-a. EAE 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Lanpostuko eskualde banaketa eta lanpostuko BPGd-a EAE=100. 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.2. Lanpostuko BPGd-a

Bilakaera

Lanpostuko BPGd-aren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2010

	2008		2010		2008-2010
	Lanpostuko BPGd-a	Sailkapena	Lanpostuko BPGd-a	Sailkapena	Aldak. %
Araba	63.234	--	60.883	--	-3,7
Gasteiz	62.493	8.a	61.183	9.a	-2,1
Aiara	67.649	4.a	59.063	10.a	-12,7
Bizkaia	62.351	--	63.863	--	2,4
Eskuinaldea	59.464	10.a	63.058	7.a	6,0
Bilbo	55.785	11.a	57.680	11.a	3,4
Ezkerraldea	68.119	3.a	68.072	3.a	-0,1
Bizkaiko Kostaldea	68.222	2.a	67.841	4.a	-0,6
Durungaldea	67.625	5.a	70.148	1.a	3,7
Gipuzkoa	62.826	--	63.422	--	0,9
Donostialdea	59.725	9.a	61.883	8.a	3,6
Tolosa-Goierrri	72.537	1.a	68.414	2.a	-5,7
Deba Garaia	66.630	6.a	64.997	5.a	-2,5
Deba Barrena	64.382	7.a	64.414	6.a	0,1
EAE	63.234	--	60.883	--	-3,7
Bilbo	55.785	--	57.680	--	3,4
Donostia	64.217	--	69.001	--	7,4
Gasteiz	61.421	--	60.577	--	-1,4
EST	7,3	--	6,1	--	-16,5

Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Emaitza nagusiak

- Lanpostuko BPGd-a 60.883€-koa zen EAEn 2010ean, hots, %3,7ko jaitsiera 2008koarekin alderatuta. Lanpostuko BPGd-ik handiena Durungaldeari dagokio (70.148€), eta ondoren Tolosa-Goierriri (68.414€), Ezkerraldeari (68.072€) eta Bizkaiko Kostaldeari (67.841€). Zifrarik baxuenak, berriz, Bilbon (57.680€), Aiaran (59.063€), Gasteizen (61.183€) eta Donostialdean (61.883€) daude.
- 2008tik izandako bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da ezen, atzeraldian dagoen ekonomian, lanpostu gutxiago galtzen ari dela esan nahi lezakeela produktibitatearen jaitsierak, BPGd-aren jaitsieraren proportzioaren aldean. Eskualdez eskualde, jaitsierarik handienak Aiaran (-%12,7), Tolosa-Goierrin (-%5,7), Deba Garaian (-%2,5) eta Gasteizen (-%2,1) izan dira. Bestalde, lanpostuko BPGd-ak gora egin du Eskualdean (%6), Durungaldean (%3,7), Donostialdean (%3,6) eta Bilbon (%3,4). Egonkor eutsi zaio Ezkerraldean (-%0,1) eta Deba Barrenean (%0,1).
- Hiriburuen artean, Donostiakoa da lanpostuko BPG handiena (69.001€); izan ere, adierazle horretan 2008 eta 2010 bitartean igoerarik handiena izan duena bada (%7,4), EAeko batez besteko igoeratik oso gora. Ondoren Gasteiz (60.577€) eta Bilbo (57.680€) daude. Lanpostuko BPGd-a jaitsi den hiriburu bakarra dago: Gasteiz (-%1,4). Bilbon, aldiz, %3,4 hazi da.
- Eskualdeen artean adierazle horrek dituen desberdintasunak %16,5 igo dira, eskualdesakabanaketaren tasak adierazten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA


2.3. Industri BEGd-aren pisua

Definizioa eta iturriak Industri sektorearen Balio Erantsi Gordinak (BEG) erreferentziako lurraldeko guztizko BEGd-aren gainean duen portzentajea da. Unitate produktibo batek sortutako balio ekonomikoa da Balio Erantsi Gordina, eta ekoizpen-kontuaren saldo gisa lortzen da, hots, ondasunen eta zerbitzuen produkzioaren eta bitarteko kontsumoaren (lehengaiak, zerbitzuak eta kanpoko hornidurak, etab.) arteko diferentziaren bidez.

Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Industri BEGd-aren pisua. EAE 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Industri BEGd-aren eskualde banaketa eta industri BEGd-aren pisuaren indizea EAE=100. 2010



Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.3. Industri BEGd-aren pisua

Bilakaera

Industri BEGd-aren pisuaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2010

	2008		2010		2008-2010 Aldak. %
	Industri BEGd-aren %	Sailkapena	Industri BEGd-aren %	Sailkapena	
Araba	34,6	--	30,5	--	-12,1
Gasteiz	31,0	6.a	27,8	6.a	-10,3
Aiara	53,9	1.a	46,5	2.a	-13,8
Bizkaia	21,8	--	19,1	--	-12,4
Eskuinaldea	20,6	10.a	18,4	10.a	-10,5
Bilbo	6,4	11.a	5,4	11.a	-15,6
Ezkerraldea	26,8	8.a	24,0	8.a	-10,3
Bizkaiko Kostaldea	27,7	7.a	25,6	7.a	-7,4
Durangaldea	43,9	4.a	37,1	4.a	-15,6
Gipuzkoa	31,2	--	27,6	--	-11,5
Donostialdea	21,8	9.a	19,1	9.a	-12,6
Tolosa-Goierri	47,6	3.a	44,2	3.a	-7,1
Deba Garaia	51,1	2.a	46,6	1.a	-8,8
Deba Barrena	39,4	5.a	35,2	5.a	-10,8
EAE	27,0	--	23,7	--	-12,2
Bilbo	6,4	--	5,4	--	-15,6
Donostia	6,4	--	5,7	--	-10,9
Gasteiz	27,3	--	24,1	--	-11,7
EST	40,4	--	42,0	--	4,0

Iturria: EUSTAT. Udal BPGd-a.



Emaitza nagusiak

- Industri sektorea BEGd-aren %23,7 zen EAEn 2010ean, 2008tik %12,2ko jaitsiera izan ondoren. Industriak pisu handiagoa du BEGd-an Deba Garaian (%46,6), Aiaran (%46,5), Tolosa-Goierriin (%44,2), Durangaldean (%37,1) eta Deba Barrenean (%35,2). Industriaren pisurik txikiena duten eskualdeen artean, Bilbo nabarmentzen da (%5,4), ondoren nahikoa urruti daude Eskuinaldea (%18,4) eta Donostialdea (%19,1).
- Industriaren pisuak behera egin du eskualde guztietan 2008tik, eta jaitsiera handiagoa izan da Bilbon (-%15,6), Durangaldean (-%15,6), Aiaran (-%13,8) eta Donostialdean (-%12,6). EAEko batez bestekotik beherako jaitsiera izan da Tolosa-Goierriin (-%7,1), Bizkaiko Kostaldean (-%7,4), Deba Garaian (-%8,8), Gasteizen (-%10,3), Ezkerraldean (-%10,3), Eskuinaldean (-%10,5) eta Deba Barrenean (-%10,8).
- Industri BEGd-aren %69,1 Donostialdean, Gasteizen, Ezkerraldean, Tolosa-Goierriin eta Durangaldean sortzen da, baina bost eskualde horietan bizi zen 2010ean EAEko biztanleen %63,2.
- Hiriburuen artean, industri BEGd-aren pisu handiagoagatik nabarmentzen da Gasteiz (%21,1), Donostiako (%5,7) eta Bilboko (%5,4) pisu txikiagoaren aldean. 2008tik Bilbo da industri BEGd-aren pisua gehien murriztu den hiriburua (-%15,6); ondoren Gasteiz (-%11,7) eta Donostia (-%10,9) datoz.
- Industri BEGd-aren pisuaren aldetik eskualdeen artean daude desberdintasunek %4 egin dute gora 2008 eta 2010 bitartetan, eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak adierazten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.4. 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa

Definizioa eta iturriak 5 enplegatu edo gehiago dituzten eta I+G-aren arloan etengabeko jarduketaren bat egiten duten establezimenduen portzentajea da, 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu guztien enpleguaren gainean.
Iturria: Lan eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)



2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.4. 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa

Bilakaera

5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Estab. %	Sailkapena	Estab. %	Sailkapena	Aldak. %
Araba	18,7	--	21,2	--	13,2
Gasteiz	19,6	6.a	22,1	4.a	12,8
Aiara	12,7	11.a	14,4	9.a	13,5
Bizkaia	19,7	--	20,1	--	2,3
Eskuinaldea	19,2	7.a	22,1	5.a	15,1
Bilbo	22,2	4.a	19,9	7.a	-10,6
Ezkerraldea	15,4	9.a	17,1	8.a	11,2
Bizkaiko Kostaldea	17,8	8.a	14,3	10.a	-19,9
Durangaldea	24,6	3.a	28,7	3.a	16,6
Gipuzkoa	18,0	--	20,9	--	16,0
Donostialdea	15,2	10.a	20,0	6.a	32,2
Tolosa-Goierri	25,4	1.a	13,7	11.a	-46,1
Deba Garaia	25,0	2.a	35,9	1.a	43,3
Deba Barrena	22,1	5.a	29,5	2.a	33,3
EAE	18,9	--	20,5	--	8,4
EST	20,7	--	31,5	--	52,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Emaitza nagusiak

- 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen %20,5ek berrikuntzako etengabeko jardueraren bat egiten zuen EAEn 2012an. Eskualdez eskualde, establezimendu berritzaileen proportziorik handiena Deba Garaian (%35,9), Deba Barrenean (%29,5), Durangaldean (%28,7), Gasteizen (%22,1) eta Eskuinaldean (%22,1) daude. Proportziorik txikiena, berriz, Tolosa-Goierri (%13,7), Bizkaiko Kostaldean (%14,3), Aiaran (%14,4) eta Ezkerraldean (%17,1).
- 5 enplegatu edo gehiago dituzten eta berrikuntza egiten duten establezimenduen zatirik handiena hiri eskualde jendetsuenetan dago, gehienbat Donostialdean (%21,6), Bilbon (%17), Gasteizen (%14,6) eta Ezkerraldean (%1,6). Lau eskualdeen artean, 5 enpleguko edo gehiagoko establezimendu berritzaileen %64,8 biltzen da.
- 2008tik %8,4 egin du gora EAEn 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioak. Igoerarik handienak Deba Garaian (%43,3), Deba Barrenean (%33,3), Donostialdean (%32,2), Durangaldean (%16,6) eta Eskuinaldean (%15,1) izan dira. 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen proportzioa, berriz, jaitsi egin da Tolosa-Goierri (-%46,1), Bizkaiko Kostaldean (-%19,9) eta Bilbon (-%10,6).
- 2008 eta 2012 bitartean %52,1 igo da adierazle horien aldeak eskualdeen artean, eskualde-sakabanaketaren tasak adierazten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.5. 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa


Definizioa eta iturriak

5 enplegatu edo gehiago dituzten eta I+G-aren arloan etengabeko jarduketaren bat egiten duten establezimenduen portzentajea da 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu guztien enpleguaren gainean.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Eskuragarri ditugun azken datuak


5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen proportzioa. EAE 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Berrikuntza egiten duten 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen eskualde banaketa eta berrikuntza egiten duten 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen proportzioa EAE=100 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.5. 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen lanpostuen proportzioa

Bilakaera

Berrikuntza egiten duten 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen lanpostuen proportzioaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Lanpostuen %	Sailkapena	Lanpostuen %	Sailkapena	Aldak. %
Araba	40,8	--	40,7	--	-0,3
Gasteiz	39,6	5.a	40,1	7.a	1,2
Aiara	47,7	2.a	44,6	5.a	-6,6
Bizkaia	33,1	--	37,1	--	12,1
Eskuinaldea	30,5	10.a	43,0	6.a	41,0
Bilbo	34,7	7.a	31,1	11.a	-10,5
Ezkerraldea	29,0	11.a	34,9	10.a	20,5
Bizkaiko Kostald.	33,7	8.a	39,4	8.a	16,8
Durangaldea	42,2	4.a	46,8	4.a	10,9
Gipuzkoa	37,8	--	43,6	--	15,4
Donostialdea	31,6	9.a	36,5	9.a	15,3
Tolosa-Goierri	47,2	3.a	47,7	3.a	0,9
Deba Garaia	58,7	1.a	70,0	1.a	19,2
Deba Barrena	36,9	6.a	51,8	2.a	40,5
EAE	35,9	--	39,8	--	10,8
EST	21,5	--	22,7	--	5,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Emaitza nagusiak

- 5 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen lanpostuen %39,8k berrikuntzako etengabeko jardueraren bat egiten zuen EAEn 2012an. Lanpostu horien proportziorik handiena Deba Garaian dago, 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileetako lanpostuen %70arekin. Eskualde horren ondotik daude beste industri eskualde batzuk ere: Deba Barrena (%51,8), Tolosa-Goierri (%47,7) eta Durangaldea (%46,8). Proportziorik txikiena, aldiz, Bilbokoa (%31,1), Ezkerraldekoa (%34,9), Donostialdekoa (%36,5) eta Bizkaiko Kostaldekoa (%39,4) da.
- 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileetako 10 lanpostuetatik 7 Donostialdean, Gasteizen, Bilbon, Ezkerraldean edo Eskuinaldean daude.
- 2008tik %10,8 egin du gora EAEn 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileetako lanpostuen proportzioak. Igoerarik handienak Deba Barrean (%40,5), Eskuinaldean (%41), Ezkerraldean (%20,5) eta Deba Garaian (%19,2) izan dira. 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileetako lanpostuen proportzioak behera egin du Bilbon (-%10,5) eta Aiaran (-%6,6).
- 2008 eta 2012 bitartean, %5,4 egin dute gora adierazle honen desberdintasunek eskualdeen artean, eskualde-sakabanaketaren tasak adierazten duenez. Ildo horretan, nabarmentzekoa da 5 enplegatu edo gehiagoko establezimendu berritzaileen lanpostu kopuruak %1,8 egin zuela behera 2008 eta 2012 bitartean. Jaitsiera %14,5ekoa izan da berritzaileak ez direnen artean.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.6. Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa


Definizioa eta iturriak

Finantzaketa edo altxortegi arazo ertain edo larriak dituzten establezimenduen portzentajea adierazten du, establezimendu guztiekiko. Finantzaketa arazoak dira honako hauen ondoriozkoak: kanpoko edo bankuko finantzaketa lortzeko zailtasunak, enpresaren funts propio mugatuak edo urriak, fakturak ez ordaintzea bezeroen kaudimenik ezagatik eta herri erakundeen laguntzak jasotzeko zailtasunak edo atzerapenak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Eskuragarri ditugun azken datuak


Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa. EAE 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa eta finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioaren indizea. EAE=100. 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.6. Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa

Bilakaera

Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioa eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Estab. %	Sailkapena	Estab. %	Sailkapena	Aldak. %
Araba	14,2	--	19,9	--	39,8
Gasteiz	14,7	2.a	21,3	1.a	44,8
Aiara	10,8	8.a	9,9	11.a	-8,7
Bizkaia	13,6	--	15,4	--	13,3
Eskuinaldea	14,6	3.a	13,4	8.a	-8,2
Bilbo	14,9	1.a	12,5	9.a	-16,2
Ezkerraldea	13,5	5.a	20,9	2.a	55,3
Bizkaiko Kostaldea	11,2	7.a	14,0	7.a	24,7
Durangaldea	9,2	10.a	15,1	3.a	64,3
Gipuzkoa	9,8	--	14,6	--	48,6
Donostialdea	10,0	9.a	14,9	4.a	49,0
Tolosa-Goierrri	6,0	11.a	14,1	6.a	137,1
Deba Garaia	11,3	6.a	11,4	10.a	0,7
Deba Barrena	13,8	4.a	14,6	5.a	5,7
EAE	12,3	--	15,7	--	27,5
EST	23,1	--	22,7	--	-1,6

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Emaitza nagusiak

- EAEko establezimenduen %15,7k dio finantzaketa edo altxortegi arazo ertainak zituela 2012an, hots, %27,5eko igoera 2008. urtetik. Hona hemen finantzaketa edo altxortegi zailtasun handiena duten eskualdeak: Gasteiz (establezimenduen %21,3) eta Ezkerraldea (%20,9). Proportziorik txiki-ena, berriz, Aiaran (%9,9), Deba Garaian (%11,4), Bilbon (%12,5) eta Eskuinaldean (%13,4) ageri dira.
- Finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten 4 establezimenduetatik 3 Donostialdean, Ezkerraldean, Gasteizen edo Bilbon daude.
- 2008tik Tolosa-Goierrin izan da finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioaren igoerarik handiena (%137,1), eta ondoren Durangaldean (%64,3), Ezkerraldean (%55,3), Donostialdean (%49) eta Gasteizen (%44,8). Adierazle hori txikiagoa da, berriz, Bilbon (-%16,2) eta Aiaran (-%8,7).
- 2008 eta 2012 urte bitartean, %1,6 egin dute behera eskualdeen arteko desberdintasunek finantzaketa edo altxortegi zailtasunak dituzten establezimenduen proportzioan, adierazle horren eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak adierazten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA


2.7. EBN presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa

Definizioa eta iturriak Europar Batasuneko beste herrialdeetan (Espainia ez beste) diharduten establezimenduetako lanpostuen portzentajea da, lanpostu guztiekiko.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Eskuragarri ditugun azken datuak


EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa. EAE 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

EBn presentzia duten establezimenduetako lanpostuen eskualde banaketa eta EBN presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioaren indizea. EAE=100. 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.7. EBN presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioa

Bilakaera

EBN presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Lanpost. %	Sailkapena	Lanpost. %	Sailkapena	Aldak. %
Araba	19,3	--	25,3	--	31,1
Gasteiz	17,0	8.a	22,7	7.a	33,9
Aiara	33,5	4.a	41,6	1.a	24,1
Bizkaia	15,6	--	17,1	--	9,6
Eskuinaldea	16,4	9.a	20,8	8.a	27,0
Bilbo	8,5	11.a	9,4	11.a	11,1
Ezkerraldea	13,8	10.a	14,4	10.a	4,0
Bizkaiko Kostaldea	22,4	6.a	23,7	6.a	5,8
Durungaldea	37,0	2.a	36,0	4.a	-2,7
Gipuzkoa	24,5	--	24,7	--	1,0
Donostialdea	18,3	7.a	18,6	9.a	1,4
Tolosa-Goierri	31,6	5.a	37,9	3.a	20,0
Deba Garaia	47,0	1.a	40,1	2.a	-14,7
Deba Barrena	33,8	3.a	30,9	5.a	-8,5
EAE	19,1	--	20,9	--	9,4
EST	43,0	--	38,9	--	-9,6

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria)

Emaitza nagusiak

- EAEko lanpostuen %20,9 Europar Batasunean 2012an presentzia zuten establezimendutan zeuden. Eskualdez eskualde, adierazle honen baliorik handienak industri jarduera garrantzitsueneko eskualde-etakoak dira: Aiara (%41,6), Deba Garaia (%40,1), Tolosa-Goierri (%37,9), Durungaldea (%36) eta Deba Barrena (%30,9). EBN jarduera duten establezimenduen lanpostuen proportziorik txikiena, berriz, Bilbon dago (%9,4), eta ondoren Ezkerraldea (%14,4), Donostialdea (%18,6) eta Eskuinaldea (%20,8) datoz.
- 2008tik %9,4 egin du gora EBN ezarritako establezimenduetako lanpostuen proportzioak. Igoerarik handienak Gasteizi (%33,9), Aiarari (%24,1), Eskuinaldeari (%27) eta Tolosa-Goierri (%20) dagozkie. Horrelako lanpostuek pisua galdu dute, ordea, Deba Garaian (-%14,7), Deba Barrenean (-%8,5) eta Durungaldean (-%2,7).
- 2008 eta 2012 bitartean %9,6 egin dute behera eskualdeen arteko desberdintasunak EBN presentzia duten establezimenduetako lanpostuen proportzioaren aldetik, eskualde-sakabanaketaren tasak adierazten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.8. Jarduera-tasa


Definizioa eta iturriak

Populazio aktiboaren portzentajea da, 16-64 urteko guztizko populazioaren gainean. Ondasunak eta zerbitzuak sortzeko lan egiten duten pertsonen (lanean ari den populazioa) osatzen dute populazio aktiboa, baita une horretan lanik ez dutenek, lan bila ari direnek eta lan egiteko prest daudenek ere (langabetuak).

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: Haxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.


Jarduera-tasa. EAE 2011



Iturria: Haxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Populazio aktiboaren eskualde banaketa eta jarduera-tasa EAE=100. 2011



Iturria: Haxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.8. Jarduera-tasa

Bilakaera

Jarduera-tasaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2006-2011

	2006		2011		2006-2011
	Jarduera-tasa	Sailkapena	Jarduera-tasa	Sailkapena	Aldak. %
Araba	73,3	--	74,9	--	2,3
Gasteiz	73,5	1.a	75,1	1.a	2,2
Aiara	71,6	4.a	73,7	3.a	3,0
Bizkaia	69,3	--	72,2	--	4,2
Eskuinaldea	68,8	10.a	71,8	10.a	4,3
Bilbo	69,1	9.a	72,3	8.a	4,6
Ezkerraldea	68,4	11.a	71,6	11.a	4,7
Bizkaiko Kostaldea	71,2	5.a	73,1	6.a	2,7
Durangaldea	71,8	3.a	73,5	4.a	2,5
Gipuzkoa	71,0	--	73,1	--	3,0
Donostialdea	70,8	7.a	73,2	5.a	3,3
Tolosa-Goierri	70,8	6.a	72,6	7.a	2,5
Deba Garaia	72,3	2.a	74,3	2.a	2,6
Deba Barrena	70,5	8.a	72,3	9.a	2,6
EAE	70,4	--	72,9	--	3,5
Bilbo	69,1	--	72,3	--	4,6
Donostia	70,5	--	72,5	--	2,9
Gasteiz	73,0	--	74,6	--	2,1
EST	2,1	--	1,4	--	-33,3

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Emaitza nagusiak

- 16-64 urteko populazioaren %72,9koa zen 2011n EAeko jarduera-tasa. Eskualdez eskualde, nabarmen-tzekoa da ez dagoela desberdintasun handirik, zeren eta jarduera-tasarik handiena duenaren eta txiki-ena duenaren artean 3,5 puntuko aldea besterik ez baitago. Jarduera-tasarik handienak Gasteizen (%75,1), Deba Garaian (%74,3) eta Aiaran (%73,7) daude. Txikiena, berriz, Ezkerraldekoa (%71,6) da, eta ondoren Eskuinaldea (%71,8) eta Deba Barrena (%72,3) daude.
- 2006tik %3,5 egin du gora jarduera-tasak EAEn, eta eskualde guztietan izan da hazkundera; handiena Ezkerraldean (%4,7), Bilbon (%4,6) eta Eskuinaldean (%4,3) bildu da. Bestalde, igoerarik txikiena Gasteizen (%2,2), Tolosa-Goierri (%2,5) eta Durangaldean (%2,5) bildu da.
- Eskualdeen artean, Gasteizek soilik gaintitzen du EAeko batez bestekoa jarduera-tasan (%74,6). Donostian eta Bilbon, aldiz, antzeko tasak daude, %72,5 eta %72,3 hurrenez hurren. 2006tik Bilbon izan da igoerarik handiena (%4,6); ondoren Donostian (%2,9) eta Gasteizen (%2,1).
- Eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak adierazten duenez, eskualdeen arteko desberdintasunak %33,3 murriztu dira jarduera-tasan 2006tik 2011ra arteko epealdian. Hortaz, nahikoa bateratze-prozesu esanguratsua gertatu da alde horretatik.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.9. Okupazio-koefizientea


Definizioa eta iturriak

Lana duen populazioaren portzentajea da, 16-64 urteko guztizko populazioaren gainean. Ordaindutako lana duten, aparteko jardura egiten duten eta lanean ari diren pertsona guztiak osatzen dute landunen populazioa, edo bestela, lanarekin lotura formala dutenak, edo opor, gaixotasun, laneko gatazka, gora-behera tekniko, eta abar direla eta lanean ez daudenak.

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.


Okupazio-koefizientea. EAE 2011



Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Populazio landunaren eskualde banaketa eta okupazio-koefizientearen indizea EAE=100. 2011



Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.9. Okupazio-indizea

Bilakaera

Okupazio-koefizientearen bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2006-2011

	2006		2011		2006-2011
	Okupazio-koef.	Sailkapena	Okupazio-koef.	Sailkapena	Aldak. %
Araba	68,0	--	63,8	--	-6,2
Gasteiz	68,2	2.a	63,9	2.a	-6,3
Aiara	67,1	4.a	63,5	4.a	-5,3
Bizkaia	64,0	--	60,7	--	-5,2
Eskuinaldea	63,7	9.a	61,7	9.a	-3,1
Bilbo	63,3	10.a	59,9	10.a	-5,3
Ezkerraldea	63,2	11.a	59,6	11.a	-5,7
Bizkaiko Kostaldea	66,1	7.a	62,6	7.a	-5,3
Durangaldea	67,3	3.a	63,2	6.a	-6,0
Gipuzkoa	66,2	--	63,5	--	-4,2
Donostialdea	65,9	8.a	63,2	5.a	-4,0
Tolosa-Goierrri	66,5	5.a	63,8	3.a	-4,1
Deba Garaia	68,4	1.a	65,6	1.a	-4,2
Deba Barrena	66,1	6.a	62,5	8.a	-5,5
EAE	65,3	--	62,1	--	-5,0
Bilbo	63,3	--	59,9	--	-5,3
Donostia	65,5	--	63,0	--	-3,9
Gasteiz	67,7	--	63,4	--	-6,4
EST	2,7	--	2,7	--	-0,6

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Populazio eta etxebizitza zentsuak.

Emaitza nagusiak

- 16-64 urteko populazioaren %61,2 zen 2011n EAeko okupazio-koefizientea. Hona hemen okupazio-koefizienterik handieneko eskualdeak: Deba Garaia (%65,6), Gasteiz (%63,9) eta Tolosa-Goierrri (%63,8). Koefizienterik txikiena, berriz, Ezkerraldekoa da (%59,6), eta ondoren datoz Bilbo (%59,9) eta Eskuinaldea (%61,7) datoz.
- 2006tik %5 jaitsi da okupazio-koefizientea EAEn, eta iguera orokorra izan da eskualde guztiztietan. Murrizketarik handiena Gasteizen (-%6,3), Durangaldean (-%6), Ezkerraldean (-%5,7) eta Deba Barrenean (-%5,5) izan da. Baina EAeko batez bestekoa baino iguera txikiagoa izan da Eskuinaldean (-%3,1), Donostialdean (-%4), Tolosa-Goierrin (-%4,1) eta Deba Garaian (-%4,2).
- Hiriburuen artean, Gasteizek du okupazio-koefizienterik handiena (%63,4), eta ondoren daude Donostia (%63) eta Bilbo (%59,9). 2006tik %6,4 jaitsi da adierazle hori Gasteizen, %5,3 Bilbon eta %3,9 Donostian.
- Eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak agerian uzten duenez, eskualdeen arteko desberdintasunak ia ez dira aldatu 2006tik okupazio-koefizientean (-%0,6).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.10. Erregistraturiko langabezi indizea


Definizioa eta iturriak

Lanbiden langabetu gisa erregistraturiko pertsonen portzentajea da, Lanbidek zenbatetsitako guztizko populazio aktiboaren gainean. Lanbiden hil bakoitzaren azken egunean altan dauden eskari guztiek osatzen dute erregistraturiko langabezia, betiere dagoeneko lana duten eskarien egoerei dagozkienak, pentsiodunak edo ikasleak edo Ministerioak 1985eko martxoaren 11n emandako Aginduan azaldutako bestelako lan egoeran daudenak alde batera utzita.

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: Lanbide.


Erregistraturiko langabezi indizea. EAE 2013



Iturria: Lanbide.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Erregistraturiko langabetuen eskualde banaketa eta erregistraturiko langabezi indizetik lorturiko indizea EAE=100. 2013



Iturria: Lanbide.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.10. Erregistraturiko langabezi indizea

Bilakaera

Erregistraturiko langabezi indizearen bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2006-2013

	2006		2013		2006-2013
	Erreg. lan-gab. indizea	Sailkapena	Erreg. lan-gab. indizea	Sailkapena	Aldak. %
Araba	7,4	--	16,6	--	124,7
Gasteiz	7,3	6.a	16,8	3.a	130,0
Aiara	7,9	3.a	15,3	4.a	93,4
Bizkaia	8,3	--	16,9	--	104,7
Eskuinaldea	7,0	8.a	13,3	8.a	90,1
Bilbo	8,8	2.a	18,8	2.a	112,3
Ezkerraldea	9,5	1.a	19,3	1.a	103,2
Bizkaiko Kostaldea	7,0	7.a	12,8	10.a	83,1
Durangaldea	5,6	10.a	13,7	7.a	142,9
Gipuzkoa	7,3	--	13,8	--	89,5
Donostialdea	7,7	4.a	14,0	6.a	83,5
Tolosa-Goierri	6,6	9.a	12,9	9.a	97,5
Deba Garaia	5,4	11.a	12,1	11.a	124,6
Deba Barrena	7,6	5.a	14,9	5.a	97,2
EAE	7,8	--	15,9	--	103,2
Bilbo	8,8	--	18,8	--	112,3
Donostia	7,0	--	12,7	--	81,8
Gasteiz	7,6	--	17,4	--	128,2
EST	16	--	15,6	--	-2,8

Iturria: Lanbide.

Emaitza nagusiak

- EAEn erregistraturiko langabezi tasa %15,9 zen 2013ko amaieran. Eskualdez eskualde, mailarik altuena Ezkerraldean dago (%19,3), ondoren Bilbon (%18,8) eta Gasteizen (%16,8). Gainerako eskualdeak EAEko batez bestekoaren azpitik daude. Erregistraturiko langabezi tasarik txikiena Deba Garaian dago (%12,1), ondoren Bizkaiko Kostaldean (%12,8), Tolosa-Goierri (%12,9) eta Eskuinaldean (%13,3).
- 2006tik igoera handia izan da langabezi tasan eskualde guztietan, salbuespenik gabe. EAE osoan, %103,2ko igoera izan da, eta eskualdez eskualde, igoerarik handiena Durangaldean (%142,9), Gasteizen (%130), Deba Garaian (%124,6) eta Bilbon (%112,3) izan da. Bestalde, erregistraturiko langabezi tasa EA-Eko batez bestekotik behera igo da Donostialdean (%83,5), Eskuinaldean (%90,1), Aiara (%93,4), Deba Barrenean (%97,2), Tolosa-Goierri (%97,5) eta Bizkaiko Kostaldean (%83,1).
- Bilbo da erregistraturiko langabezi tasarik handiena duen hiriburua (%18,8), ondoren Gasteiz (%17,4) eta Donostia (%12,7). 2006tik adierazle honen igoerarik handiena Gasteizen izan da (%128,2), eta ondoren Bilbon (%112,3) eta Donostian (%81,8).
- Azken zazpi urteetan, pixka bat jaitsi egin da eskualdeen arteko desberdintasuna erregistraturiko langabezi tasari dagokionez (-%2,8), urte bakoitzeko eskualde-sakabanaketaren tasak erakusten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.11. Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia.


Definizioa eta iturriak

Emakumeen langabezi tasaren eta gizonen langabezi tasaren arteko diferentzia da, ehunekoetan adierazia. Balio positiboek adierazten dute emakumeen langabezi tasa gizonen langabezi tasa baino handiagoa dela, eta alderantziz.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)

Eskuragarri ditugun azken datuak


Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia. EAE 2011



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Langabetuen eskualde banaketa eta emakumeen eta gizonen langabezi tasak. 2011



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.11. Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentzia

Bilakaera

Emakumeen eta gizonen langabezi tasen arteko diferentziaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2006-2011

	2006		2011		2006-2011
	Emak. eta giz. lang. dif.	Sailkapena	Emak. eta giz. lang. dif.	Sailkapena	Puntu ald. %
Gasteiz	1,9	8.a	-2,6	11.a	-4,5
Aiara	6,0	1.a	1,2	8.a	-4,8
Eskuinaldea	1,3	9.a	-0,5	7.a	-1,8
Bilbo	1,9	3.a	-5,1	3.a	-7,0
Ezkerraldea	2,4	2.a	-1,6	1.a	-4,0
Bizkaiko Kostaldea	1,7	4.a	2,8	2.a	1,1
Durangaldea	2,3	5.a	0,4	4.a	-1,9
Donostialdea	1,0	6.a	1,8	5.a	0,8
Tolosa-Goierri	0,6	10.a	1,4	10.a	0,8
Deba Garaia	1,1	11.a	2,1	6.a	1,0
Deba Barrena	2,6	7.a	0,1	9.a	-2,5
EAE	1,7	--	-0,6	--	-2,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

OHARRA: 0 inguruko balioekin, ESTren analisia ez da esanguratsua.

Emaitza nagusiak

- EAEko emakumezkoen langabezi tasa gizonetzkoena baino %0,6 txikiagoa zen 2011n. Tradizioz gizonetzkoak nagusi izan diren sektoreetan lanpostu asko galdu izanaren ondorioa da emakumeek langabeziaren aldetik duten egoera hobe erlatibo hori. Hala, 2006an emakumeen langabezi tasa gizonetzkoen langabezi tasa baino %1,7 handiagoa zen.
- Eskualdez eskualde, emakumeen langabezi tasa gizonetzkoena baino handiagoa da Bizkaiko Kostaldean (2,8 puntuko alde), Deba Garaian (2,1), Donostialdean (1,8), Tolosa-Goierri (1,4) eta Aiaran (1,2). Bestalde, Durangaldean (0,4) eta Deba Barrenan (0,1) antzeko langabezi tasak ageri dira bi sexuetan. Emakumeen langabezi tasa handiagoa da, ordea, Bilbon (-5,1), Gasteizen (-2,6), Ezkerraldean (-1,6) eta Eskuinaldean (-0,5).
- Emakumeen langabezi tasa hobetu egin da gizonetzkoen tasarekiko distantzian eskualde guztietan, Bizkaiko Kostaldean izan ezik, non diferentzia %1,1 handitu baita gizonetzkoen tasaren alde Deba Garaian (puntu 1), Tolosa-Goierri (0,8) eta Donostialdean (0,8).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.12. Gazteen langabezi tasa


Definizioa eta iturriak

Eskuragarri ditugun azken datuak

Langabezia dauzen 25 urtetik beherakoen portzentajea da, 16-24 urteko pertsona aktibo guztien gainean.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)


Gazteen langabezi tasa. EAE 2011



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Gazte langabetuen eskualde banaketa eta gazteen langabezi tasaren indizea EAE=100. 2011



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.12. Gazteen langabezi tasa

Bilakaera

Gazteen langabezi tasaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2006-2011

	2006		2011		2006-2011
	Gazteen langab. %	Sailkapena	Gazteen langab. %	Sailkapena	Punt. ald. %
Gasteiz	7,3	5.a	24,1	7.a	16,8
Aiara	17,6	1.a	7,2	11.a	-10,3
Eskuinaldea	7,1	6.a	25,6	6.a	18,5
Bilbo	10,0	4.a	41,0	3.a	30,9
Ezkerraldea	10,4	3.a	46,8	1.a	36,4
Bizkaiko Kostaldea	15,7	2.a	42,9	2.a	27,1
Durantaldea	5,9	9.a	27,6	5.a	21,8
Donostialdea	6,3	7.a	33,9	4.a	27,6
Tolosa-Goierri	4,5	10.a	22,6	8.a	18,1
Deba Garaia	6,1	8.a	21,9	9.a	15,7
Deba Barrena	0,0	11.a	16,2	10.a	16,2
EAE	8,3	--	34,0	--	25,7
EST	57,6	--	34,0	--	-29,5

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza).

Emaitza nagusiak

- Gazteen langabezi tasa %34koa zen EAEn 2011n. Eskualdez eskualde, gazteen langabeziaren tasarik handienak Ezkerraldean (%46,8), Bizkaiko Kostaldean (%42,9), Bilbon (%41) eta Donostialdean (%33,9) ageri dira. Tasarik txikienak, aldiz, Aiaran (%7,2), Deba Barrenean (%16,2), Deba Garaian (%21,9) eta Tolosa-Goierriin (%22,6) daude.
- 2006tik gora egin du gazteen langabezi tasak eskualde guztietan, Aiaran izan ezik: %10 jaitsi da bertan. Datu horiek kontuz hartu behar dira, oso laginketa murrizteko datuak baitira. Langabezi tasaren igorarik handiena Ezkerraldean (%36,4), Bilbon (%30,9), Donostialdean (%27,6) eta Bizkaiko Kostaldean (%27,1) izan da.
- Langabetu gazteen kopururik handieneko eskualdeak Ezkerraldea (%29,5), Donostialdea (%21) eta Bilbo (%17,7) dira. Hiru eskualde horiek gazte langabeen %68,2 biltzen dute.
- Eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak agerian uzten duenez, %29,5 murriztu da eskualdeen arteko desberdintasunak gazteen langabezi tasan, gehienbat egoera hobea zuten eskualdeen egoerak okerrera egin duelako.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA


2.13. Gizarte Segurantzaren laneko alten afiliazioak (1.000 biztanleko)

Definizioa eta iturriak

Erreferentziako epealdiko azken egunean Gizarte Segurantzaren afiliaturiko (laneko alta) pertsonen kopurua da 1.000 biztanleko. Araubide Orokorreko, Langile Autonomoen Araubideko, Nekazaritza, Itsaso, Ikatzaren Meatzaritzako eta Etxeko Langileen Araubideetako datuak bildu dira.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.
Gizarte Segurantzaren laneko alten afiliazioak (1.000 biztanleko). EAE 2013



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Gizarte Segurantzaren afiliazioen eskualde banaketa eta Gizarte Segurantzaren afiliazioen indizea 1.000 biztanleko EAE=100. 2013



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.13. Gizarte Segurantzaren laneko altaren afiliazioak (1.000 biztanleko)

Bilakaera

Gizarte Segurantzako 1.000 biztanleko afiliazioaren kopuruaren bilakaera eta aldakuntza-ren portzentajea. EAE 2008-2013

	2008		2013		2008-2013
	Afiliat. % bizt.	Sailkapena	Afiliat. % bizt.	Sailkapena	Aldak. %
Araba	503,4	--	439,7	--	-12,7
Gasteiz	503,7	3.a	442,6	3.a	-12,1
Aiara	457,2	5.a	380,6	7.a	-16,7
Bizkaia	421,3	--	379,2	--	-10,0
Eskuinaldea	557,6	1.a	521,5	1.a	-6,5
Bilbo	506,1	2.a	469,0	2.a	-7,3
Ezkerraldea	303,0	10.a	252,3	11.a	-16,7
Bizkaiko Kostaldea	284,6	11.a	279,6	10.a	-1,8
Durungaldea	442,6	7.a	383,6	6.a	-13,3
Gipuzkoa	452,2	--	406,6	--	-10,1
Donostialdea	456,4	6.a	411,5	5.a	-9,8
Tolosa-Goierrri	398,0	8.a	346,4	8.a	-13,0
Deba Garaia	467,9	4.a	432,3	4.a	-7,6
Deba Barrena	376,6	9.a	334,2	9.a	-11,3
EAE	443,1	--	397,0	--	-10,4
Bilbo	506,1	--	469,0	--	-7,3
Donostia	589,9	--	559,8	--	-5,1
Gasteiz	506,5	--	445,9	--	-12,0
EST	18,7	--	19,8	--	6,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

Emaitza nagusiak

- EAEn 397 pertsona daude afiliatuta Gizarte Segurantzaren 1.000 biztanleko. Ratorik handiena duena Eskuinaldea da (521,5), eta ondoren (469), Gasteiz (442,6) eta Deba Garaia (432,3). Tasarik baxuenak, berriz, Ezkerraldean (%252,3), Bizkaiko Kostaldean (279,6), Deba Barrenean (334,2) eta Tolosa-Goierrin (342) daude.
- 2008. urtetik %10,4 jaitsi dira afiliazioak 1.000 biztanleko EAEn. Eskualdez eskualde, jaitsierarik handienak Aiarakoa (-%16,7), Ezkerraldekoa (-%16,7), Durungaldekoa (-%3,3) eta Tolosa-Goierrikoa (-%13) izan dira.
- Hiriburuen artean, Donostiak du afiliatuen kopururik handiena 1.000 biztanleko (559,8), eta ondoren Bilbo (469) eta Gasteiz (445,9) daude. 2008. urtetik jaitsierarik handiena Gasteizen erregistratu da (-%12); jaitsierarik txikienak Bilbon (-%7,3) eta Donostian (-%5,1) izan dira.
- Eskualdeen arteko desberdintasunek %6,2 egin dute gora adierazle honetan, eskualde-sakabanaketaren aldakuntzak erakusten duenez. Eskualdeen arteko alde handiagoa da, gehienbat, 2008 eta 2013 artean orduan egoerarik txarrean izandako eskualdeetan erregistraturiko bilakaera okerragoa dela medio.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.14. Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa


Definizioa eta iturriak

Emakumeen enpleguak guztizko enpleguaren gainean duen portzentajea da. Erreferentziako urteko urrian establezimendu bakoitzean eginiko jardueretan modu aktiboan parte hartzen zuten pertsonen kopuru gisa zenbatzen ziren lanpostuak, hain zuzen diruzko edo gauzazko ordainketaren truke, edo enpresaren etekinetan parte hartuta. Era guztietako lan-eskua biltzen du, laneko harremanek irautea dakarten edozein ziozengatik lanetik aldi baterako absentiak izan badira ere.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

Eskuragarri ditugun azken datuak


Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa. EAE 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Emakumeen enpleguaren eskualde banaketa eta emakumeen pisu erlatiboaren indizea EAE=100. 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.14. Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa

Bilakaera

Emakumeen enpleguaren pisuaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Emak. enpl. %	Sailkapena	Emak. enpl. %	Sailkapena	Aldak. %
Araba	39,4	--	41,6	--	5,8
Gasteiz	40,7	3.a	43,3	3.a	6,4
Aiara	31,3	10.a	31,2	11.a	-0,4
Bizkaia	41,0	--	42,6	--	4,0
Eskuinaldea	37,6	6.a	38,2	8.a	1,7
Bilbo	48,1	1.a	48,6	1.a	1,0
Ezkerraldea	37,5	7.a	41,9	4.a	11,7
Bizkaiko Kostaldea	44,3	4.a	41,4	6.a	-6,8
Durangaldea	30,7	11.a	34,7	10.a	13,2
Gipuzkoa	40,8	--	42,4	--	3,9
Donostialdea	43,4	2.a	44,6	2.a	2,7
Tolosa-Goierri	34,5	8.a	35,4	9.a	2,7
Deba Garaia	38,2	5.a	41,5	5.a	8,7
Deba Barrena	34,5	9.a	39,0	7.a	12,9
EAE	40,7	--	42,4	--	4,2
EST	13,7	--	11,8	--	-13,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

Emaitza nagusiak

- EAEn, emakumeen enplegua guztizkoaren %42,4 zen 2012. urtean, eta pisu handiagoa du hiriburuen inguruan kokaturiko eskualdeetan; izan ere zerbitzuen sektorean pisu handiagoa izan ohi dute eta, beharbada, lana eta familia bateratzeko erraztasun handiagoak edota emakumeak lan-merkatuan sartzearen aldeko jarrera nabarmeneko kultur jokabideak. Edozelan ere, emakumeen enpleguaren pisurik handiena Bilbon (%48,6), Donostialdean (%44,6) eta Gasteizen (%43,3) dago. Emakumeen enpleguaren pisurik txikiena, berriz, Aiaran (%31,2), Durangaldean eta Tolosa-Goierri biltzen da; industri sektorearen pisu handiagoko eskualdeak izango lirateke.
- 2008tik hona %4,2 egin du gora emakumeen enpleguak EAEn duen pisuak, seguru asko tradizioz gizonetzkoak nagusi izan diren sektoreetako lanpostuen galeragatik hala nola industrian eta erai-kuntzan, eta igorak izan dira eskualde guztietan, Bizkaiko Kostaldean (-%6,8) eta Aiaran (-%0,4) izan ezik. Igoerarik handiena, aldiz, eskualde hauetan izan da: Deba Barrenean (%12,9), Ezkerraldean (%11,7), Deba Garaian (%12,9) eta Gasteizen (%6,4).
- Eskualde bakoitzak duen sailkapenari dagokionez, ez da antzematen aldaketa handirik 2008-2012ko epealdian. Eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak erakusten duenez, berriz, eskualdeen arteko desberdintasunak %13,9 murriztu dira epealdian, zeren eta emakumeen enpleguaren pisu txikiagoa zeneko eskualdeetako batzuetan baino gehiago hazi baita (esaterako: Deba Barrena, Durangaldea edo Ezkerraldea).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.15. Soldatuko enplegu finakoaren pisu erlatiboa


Definizioa eta iturriak

Soldatuko enplegu finakoak (kontratu-erlazio mugagabea) soldatuko guztizko enpleguaren gainean duen portzentajea da. Erreferentziako urteko urrian establezimendu bakoitzean eginiko jardueretan modu aktiboan parte hartzen zuten pertsonen kopuru gisa zenbatzen ziren lanpostuak, hain zuzen diruzko edo gauzazko ordainketaren truke, edo enpresaren etekinetan parte hartuta. Era guztietako lan-eskua biltzen du, laneko harremanek irautea dakarten edozein zio dela-eta lanetik aldi baterako absentiak izan badira ere.

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).


Soldatuko enplegu finakoaren pisu erlatiboa. EAE 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Soldatuko enplegu finakoaren eskualde banaketa eta soldatuko enplegu finakoaren pisu erlatiboa EAE=100. 2012



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.15. Soldatako enplegu finakoaren pisu erlatiboa

Bilakaera

Soldatako enplegu finakoaren pisuaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE
2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Sold. fink. enpl. %	Sailkapena	Sold. fink. enpl. %	Sailkapena	Aldak. %
Araba	66,2	--	68,1	--	2,9
Gasteiz	65,4	3.a	67,1	3.a	2,6
Aiara	70,7	1.a	74,2	1.a	4,9
Bizkaia	63,1	--	63,9	--	1,3
Eskuinaldea	66,8	2.a	68,4	2.a	2,4
Bilbo	64,5	4.a	63,6	6.a	-1,3
Ezkerraldea	61,2	8.a	62,6	9.a	2,3
Bizkaiko Kostaldea	55,0	10.a	54,4	10.a	-1,1
Durungaldea	63,3	5.a	66,9	4.a	5,6
Gipuzkoa	59,5	--	61,3	--	3,0
Donostialdea	61,0	9.a	63,2	7.a	3,7
Tolosa-Goierri	62,4	7.a	63,1	8.a	1,2
Deba Garaia	43,5	11.a	43,9	11.a	0,7
Deba Barrena	62,8	6.a	64,8	5.a	3,2
EAE	62,4	--	63,7	--	2,1
EST	11,0	--	12,0	--	8,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaria).

Emaizta nagusiak

- EAE, soldatako enplegu osoaren %63,7 zen soldatako enplegu finkoa 2012an, eta pisu handiagoa du honako eskualde hauetan: Aiaran (%74,2), Eskuinaldean (%68,4), Gasteizen (%67,1) eta Durungaldean (%66,9). Enpleguan egonkortasun txikiagoa dute, ostera, hauexek: Deba Garaiak (%43,9), Bizkaiko Kostaldeak (%54,4), Ezkerraldeak (%62,6), Tolosa-Goierri (%63,1), Donostialdeak (%63,2) eta Bilbok (%63,6).
- 2008. urtetik, %2,1 egin du gora soldatako enplegu finkoak EAEn, eta hazkundea erregistratu da eskualde guztietan, Bilbon (-%1,3) eta Bizkaiko Kostaldean (-%1,1) izan ezik. Igoerarik handiena, berriz, Durungaldean (%5,6), Aiaran (%4,9), Donostialdean (%3,7) eta Gasteizen (%2,6) bildu da. Atzeraldi ekonomikoak gora egin du soldatako enplegu finakoaren proportzioak, zeren eta lanpostu gehiago desegin baita aldi baterako lanen artean. Hala, 2008 eta 2012 bitartean, %7,8 jaitsi da soldatako lanpostu finkoen kopurua EAEn; aldi baterako lanpostuek, berriz, %23,7 egin dute behera.
- Eskualde bakoitzak duen sailkapenari dagokionez, ez da aldakuntzarik izan soldatako enplegu finkoaren proportziorik handiena duten hiru eskualdeetan. Ildo horretan, eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak erakusten duenez, gora egin dute soldatako enplegu finkoak duen pisuaren desberdintasunek.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA


2.16. Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko

Definizioa eta iturriak

Jarduera ekonomikoko establezimenduen kopurua da 1.000 biztanleko, urte bakoitzaren urtariraren 1ean. Ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-unitatea da establezimendua, eta jarduera ekonomiko edo sozial bat edo gehiago egiten ditu, titular edo enpresa baten erantzukizunpean, kokapen topografiko jakin batean dagoen toki, lokal edo elkarrekin lotutako lokaletan. Fitxak kopuruaren eskualde-banaketa eta 2008 eta 2013 bitartean izandako bilakaera dakartza, baita eskualde bakoitzaren indizeak EAEko batez bestekoarekiko duen balioa ere. Azkenik, 2008 eta 2013 bitartean eskualde-sakabanaketaren tasan izandako aldaketa biltzen du.


Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Eskuragarri ditugun azken datuak



Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Establezimenduen eskualde banaketa eta establezimenduen indizea 1.000 biztanleko EAE=100. 2013



2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.16. Establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko

Bilakaera

Establezimenduetako 1.000 biztanleko kopuruaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2013

	2008		2013		2008-2013
	Estab. ‰ bizt.	Sailkapena	Estab. ‰ bizt.	Sailkapena	Aldak. ‰
Araba	87,0	--	78,9	--	-9,3
Gasteiz	86,7	6.a	78,5	5.a	-9,4
Aiara	77,2	9.a	77,3	6.a	0,2
Bizkaia	91,4	--	79,5	--	-13,1
Eskuinaldea	98,0	3.a	88,0	3.a	-10,2
Bilbo	110,7	1.a	93,8	1.a	-15,2
Ezkerraldea	76,2	11.a	65,4	11.a	-14,2
Bizkaiko Kostaldea	79,3	8.a	74,8	9.a	-5,7
Durungaldea	83,4	7.a	76,5	7.a	-8,2
Gipuzkoa	102,9	--	86,8	--	-15,6
Donostialdea	110,1	2.a	91,4	2.a	-17,0
Tolosa-Goierri	91,1	4.a	80,7	4.a	-11,4
Deba Garaia	76,6	10.a	69,1	10.a	-9,7
Deba Barrena	87,5	5.a	76,3	8.a	-12,7
EAE	94,5	--	81,8	--	-13,5
Bilbo	110,7	--	93,8	--	-15,2
Donostia	124,1	--	102,6	--	-17,3
Gasteiz	85,6	--	72,6	--	-15,2
EST	13,6	--	10,6	--	-21,9

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Emaitza nagusiak

- Lanpostuko BPGd-a 60.883€-koa zen EAEn 2010ean, hots, %3,7ko jaitsiera 2008ko datuekin alderatuta. Lanpostuko BPGd handiena Durangaldeari dagokio (70.148€), eta ondoren Tolosa-Goierri (68.414€), Ezkerraldea (68.072€) eta Bizkaiko Kostaldea daude (67.841€). Zifrarik txikienak, berriz, Bilbon (57.680€), Aiaran (59.063€), Gasteizen (61.183€) eta Donostialdean (61.883€) biltzen dira.
- Eskualdez eskualde, 2008tik izandako bilakaeran, nabarmentzekoa da atzeraldi ekonomikoan produktibitatearen beherakadak haxe adieraz dezakeela: lanpostu gutxiago desegiten ari direla BPGd-aren jaitsieraren proportzioarekiko. Eskualdez eskualde, jaitsierarik handienak Aiaran (-%12,7), Tolosa-Goierri (-%5,7), Deba Garaian (-%2,5) eta Gasteizen (-%2,1) izan dira. Bestalde, lanpostuko BPGd-ak gora egin du Eskuinaldean (%6), Durangaldean (%3,7), Donostialdean (%3,6) eta Bilbon (%3,4). Egonkor eutsi diote Ezkerraldean (-%0,1) eta Deba Barrenean (%0,1).
- Hiriburuen artean, lanpostuko BPGd handiena Donostiakoa da (69.001€); izan ere, adierazle hori 2008 eta 2010 bitartean gehien igo den eskualdea ere bada (%7,4), EAEko batez beste koaren oso gaineratik. Ondoren Gasteiz (60.577€) eta Bilbo (57.680€) daude. Gasteiz da lanpostuko BPGd-a jaitsi den EAEko hiriburu bakarra (-%1,4); Bilbon, aldiz, %3,4 hazi da.
- %16,5 jaitsi dira adierazle honen desberdintasunak eskualdeen artean, eskualde-sakabanaketaren tasak adierazten duenez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.17. Establezimenduetako lanpostuen kopurua 1.000 biztanleko


Definizioa eta iturriak

Jarduera ekonomikoko establezimenduen lanpostuen kopurua adierazten du 1.000 biztanleko, urte bakoitzeko urtarillaren 1ean. Eginiko jardueretan partaidetza aktiboa izan duten soldatako pertsonen urteko batez bestekoetan zenbatzen dira lanpostuak, lanaldi osoko lanpostuetan betiere. Diruz, gauzak edo enpresako etekinetan parte hartuz izan daiteke ordainsaria. Era guztietako lan-eskua biltzen du: Jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, etengabeko partaidetza edo etena duten famili laguntzak, soldatako langile finko iraunkorrak edo ez iraunkorrak eta aldi baterako soldatakoak. Adierazle honetaz gain, enpleguak establezimenduetan duen eskualde-banaketa, 2008 eta 2013 bitartean izandako bilakaera eta eskualde bakoitzaren indizeak EAEko batez bestekoarekiko duen balioa ere biltzen ditu. Era berean, eskualde-sakabanaketaren tasa ere biltzen da, eskualdeen desbideratze estandarra bider eskualdeen batez bestekoa zati 100 eginda kalkulatu.

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoria.


Eskuragarri ditugun azken datuak

Lanpostuen kopurua 1.000 biztanleko. EAE 2013



Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Lanpostuen eskualde banaketa eta 1.000 biztanleko lanpostuen indizea EAE=100. 2013



2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.17. Establezimenduetako lanpostu kopurua 1.000 biztanleko

Bilakaera

Lanpostu kopuruaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2013

	2008		2013		2008-2013
	Lanpostuen % bizt.	Sailkapena	Lanpostuen % bizt.	Sailkapena	Aldak. %
Araba	487,6	--	430,2	--	-11,8
Gasteiz	480,1	5.a	424,9	5.a	-11,5
Aiara	485,3	3.a	436,3	3.a	-10,1
Bizkaia	417,2	--	374,3	--	-10,3
Eskuinaldea	520,7	2.a	493,9	1.a	-5,2
Bilbo	483,4	4.a	427,6	4.a	-11,5
Ezkerraldea	332,1	10.a	290,7	10.a	-12,5
Bizkaiko Kostaldea	300,2	11.a	282,7	11.a	-5,8
Durangaldea	464,4	6.a	414,9	6.a	-10,7
Gipuzkoa	446,7	--	397,8	--	-11,0
Donostialdea	444,6	7.a	393,6	7.a	-11,5
Tolosa-Goierri	411,3	8.a	369,0	8.a	-10,3
Deba Garaia	537,7	1.a	488,7	2.a	-9,1
Deba Barrena	398,8	9.a	356,1	9.a	-10,7
EAE	436,9	--	390,2	--	-10,7
Bilbo	483,4	--	427,6	--	-11,5
Donostia	514,3	--	472,7	--	-8,1
Gasteiz	478,9	--	414,8	--	-13,4
EST	16,1	--	16,6	--	3,0

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoria.

Emaitza nagusiak

- 2013. urtean, 390,2 lanpostu zeuden EAEn 1.000 biztanleko, hots, 2008an baino %10,7 gutxiago. Eskualdez eskualde, lanpostuen ratorik handiena Eskuinaldean dago (493,9 lanpostu), eta ondoren Deba Garaian (488,7), Aiaran (436,3), Bilbon (427,6) eta Gasteizen (424,9). Lanpostuen ratorik txiki-ena, berriz, Bizkaiko Kostaldean (282,7), Ezkerraldean (290,7) eta Deba Barrenean dago (356,1).
- EAEko lanpostuen %66,7 eskualderik populatuenetan dago kokatuta: Donostialdean (%22), Bilbon (%17,5), Gasteizen (%13,8) eta Ezkerraldean (%13,4), baina eskualde horietako bat bera ere ez dago lehen lauen artean 1.000 biztanleko lanpostuen kopuruan.
- Batez bestekoarekiko aldeak bereziki handiak dira honako hauetan: 2012. urteari dagokion Eskuinaldeko indizea EAEko batez bestekoaren %127aren baliokidea da. Ondoko Bizkaiko Kostaldearena, berriz, %72koa.
- 2008. urtetik, %10,7 jaitsi da 1.000 biztanleko lanpostuen kopurua EAEn. Eskualde guztietan jaitsi da ratio hori, baina jaitsierarik handienak eskualderik jendetsuenetan gertatu da: Ezkerraldean (-%12,5), Bilbon (-%11,5), Gasteizen (-%11,5) eta Donostialdean (-%11,5). Jaitsierarik txikiena duten eskualdeak, berriz, Eskuinaldea (-%5,2), Bizkaiko Kostaldea (-%5,8), Deba Garaia (-%9,1), Aiara (-%10,1) eta Tolosa-Goierri (-%10,3) dira. Hiriburuetan bilakaera desberdinak daude: Gasteizko -%13,4 eta Donostiako -%8,5 bitarteko tasak daude; Bilbon, berriz, -%11,5ekoa da. Nabarmentzekoa da lurralde historikoen mailan antzeko jaitsiera dagoela Araban (-%11,8), Bizkaian (-%10,3) eta Gipuzkoan (-%11).
- 2008 eta 2013 bitartean ez da aldaketa handirik ikusten eskualdeen arteko desberdintasunetan 1.000 biztanleko lanpostuen kopuruaren aldetik; eskualde-sakabanaketaren tasa %3 hazi da epealdi horretan.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA


2.18. Establezimenduen batez besteko tamaina

Definizioa eta iturriak

Jarduera ekonomikoko establezimenduen lanpostuen batez besteko kopurua da urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean. Eginiko jardueretan partaidetza aktiboa izan duten soldatako pertsonen urteko batez bestekoetan zenbatzen dira lanpostuak, lanaldi osoko lanpostuetan betiere. Lanpostu guztien batura zati kasuan kasuko erreferentziako lurraldeko establezimenduen baturarekin egin behar da adierazle kalkulatzeko. Adierazle honetaz, gain, fitxak kopuruaren eskualde-banaketa eta 2008 eta 2013 bitartean izandako bilakaera dakartzatza, baita eskualde bakoitzaren indizeak EAEko batez bestekoarekiko duen balioa ere. Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Establezimenduen batez besteko tamaina. EAE 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Lanpostuen eskualde banaketa eta establezimenduen batez besteko tamainaren indizea EAE=100. 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.18. Establezimenduen batez besteko tamaina

Bilakaera

Establezimenduen batez besteko tamainaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea.EAE 2008-2013

	2008		2013		2008-2013
	Batez b. tamaina	Sailkapena	Batez b. tamaina	Sailkapena	Aldak. %
Araba	5,6	--	5,5	--	-2,7
Gasteiz	5,5	4.a	5,4	5.a	-2,3
Aiara	6,3	2.a	5,6	2.a	-10,3
Bizkaia	4,6	--	4,7	--	3,2
Eskuinaldea	5,3	5.a	5,6	3.a	5,7
Bilbo	4,4	8.a	4,6	8.a	4,3
Ezkerraldea	4,4	9.a	4,4	9.a	2,1
Bizkaiko Kostaldea	3,8	11.a	3,8	11.a	-0,1
Durantaldea	5,6	3.a	5,4	4.a	-2,6
Gipuzkoa	4,3	--	4,6	--	5,5
Donostialdea	4,0	10.a	4,3	10.a	6,6
Tolosa-Goierrri	4,5	7.a	4,6	7.a	1,3
Deba Garaia	7,0	1.a	7,1	1.a	0,7
Deba Barrena	4,6	6.a	4,7	6.a	2,3
EAE	4,6	--	4,8	--	3,2
Bilbo	4,4	--	4,6	--	4,3
Donostia	4,1	--	4,6	--	11,2
Gasteiz	5,6	--	5,7	--	2,2
EST	19,0	--	17,1	--	-10,3

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Emaitza nagusiak

- EAEko establezimenduen batez besteko tamaina, 2013an, 4,8 enplegatukoa zen. Eskualdez eskualde, establezimenduen batez besteko tamainarik handiena Deba Garaian dago (7,1 lanpostu establezimenduko), eta ondoren Aiaran (5,6), Eskuinaldean (5,6), Durantaldean (5,4) eta Gasteizen (5,4). Establezimenduen batez besteko tamainarik txikiena, berriz, Bizkaiko Kostaldean (3,8 lanpostu), Donostialdean (4,3) eta Ezkerraldean (4,4) ageri da.
- 2008. urtetik, %3,2 hazi da EAEko establezimenduen batez besteko tamaina, seguru asko establezimendu txikien itxiera-tasa handiagoaren ondorioz.
- Eskualdez eskualde, azken 6 urtean murriztu egin da establezimenduen batez besteko tamaina eskualde hauetan: Aiaran (-%10,3), Durantaldean (-%2,6), Gasteizen (-%2,3) eta Bizkaiko Kostaldean (-%0,1). Gainerako eskualdeetan, handitu egin da establezimenduko lanpostuen batez besteko kopurua, batez ere Donostialdean (%6,6), Eskuinaldean (%5,7) eta Bilbon (%4,3). Lurralde historikoen mailan, Araban soilik murriztu da establezimenduen batez besteko tamaina (-%2,7); Bizkaian, berriz, handitu egin da (%3,2), eta batez ere Gipuzkoan (%6,6).
- Eskualde-sakabanaketaren tasa %10,3 jaitsi da 2008tik 2013ra bitartean, hots, murriztu egin dira eskualdeen arteko desberdintasunak enpresa-establezimenduen batez besteko tamainari dagokionez.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.19. Industri sektoreko lanpostuen proportzioa


Definizioa eta iturriak

Industri sektoreko establezimenduetako lanpostuen portzentajea da, lanpostu guztien gainekoa. Eginiko jardueretan partaidetza aktiboa izan duten soldatako pertsonen urteko batez bestekoetan zenbatzen dira lanpostuak, lanaldi osoko lanpostuetan betiere. Diruz, gauzaz edo enpresako etekinetan parte hartuz izan daiteke ordainsaria. Era guztietako lan-eskua biltzen du: Jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, etengabeko partaidetza edo etena duten famili laguntzak, soldatako langile finko iraunkorrak edo ez iraunkorrak eta aldi baterako soldatapekoak.

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Industri sektoreko lanpostuen proportzioa. EAE 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Industri sektoreko lanpostuen eskualde banaketa eta industri sektoreko lanpostuen proportzioa EAE=100. 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.19. Industri sektoreko lanpostuen proportzioa

Bilakaera

Industri sektoreko lanpostuen proportzioaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2013

	2008		2013		2008-2013
	%	Sailkapena	%	Sailkapena	Aldak. %
Araba	30,3	--	28,0	--	-7,5
Gasteiz	27,5	7.a	25,0	7.a	-9,0
Aiara	50,9	2.a	48,6	1.a	-4,5
Bizkaia	19,3	--	16,7	--	-13,8
Eskuinaldea	18,5	10.a	18,2	8.a	-1,4
Bilbo	6,1	11.a	4,5	11.a	-26,8
Ezkerraldea	22,5	8.a	18,0	9.a	-19,8
Bizkaiko Kostaldea	34,7	6.a	29,1	6.a	-16,1
Durungaldea	44,7	3.a	38,8	4.a	-13,2
Gipuzkoa	28,0	--	24,9	--	-10,9
Donostialdea	18,8	9.a	16,4	10.a	-13,0
Tolosa-Goierri	44,3	4.a	42,5	3.a	-4,1
Deba Garaia	54,8	1.a	47,1	2.a	-14,0
Deba Barrena	42,3	5.a	36,3	5.a	-14,1
EAE	24,0	--	21,3	--	-11,3
Bilbo	6,1	--	4,5	--	-26,8
Donostia	5,2	--	4,3	--	-16,9
Gasteiz	23,8	--	21,8	--	-8,5
EST	42,8	--	46,3	--	8,1

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoria.

Emitza nagusiak

- EAE osoan, lanpostu guztien %21,3 dira industri sektoreko lanpostuak. Ratio hori handiagoa da Aiaran (%48,6), Deba Garaian (%47,1), Tolosa-Goierri (%42,5), Durungaldean (%38,8) eta Deba Barrenean (%36,3). Bilbon, aldiz, industri lanpostuen proportziorik txikiena du (%4,5), EAEko batez bestearen oso azpitik. Donostialdea da industri lanpostuen ratorik txikiena duen bigarren eskualdea (%16,4), eta ondoren Ezkerraldea (%18) eta Eskuinaldea (%18,2).
- Industri lanpostuen zatirik handiena Donostialdean (%17), Gasteizen (%16,3), Ezkerraldean (%11,3), Durungaldean (%10,8) eta Tolosa-Goierri (%10,1) biltzen da. Hala, bost eskualde horietan metatzen da EAEko industri enpleguaren %65,5, hots, eskualde horiek populazio osoarekiko dutena baino pixka bat altuagoa den portzentajea (%63,4).
- Gasteiz da industri enpleguaren pisurik handiena duen hiriburua (%21,8), Bilbo (%4,5) eta Donostia (%4,3) oso atzean dituela.
- 2008. urtetik, %11,3 murriztu da EAEn industri enpleguaren pisua, eta bilakaera negatiboa izan da eskualde guztietan. Industri enpleguaren proportzioa neurri handiagoa jaitsi da Bilbon (-%26,8), Ezkerraldean (-%19,8), Bizkaiko Kostaldean (-%16,1), Deba Barrenean (-%14,1) eta Deba Garaian (-%14). Murrizpenik txikiena, berriz, Eskuinaldekoa da (-%1,4), eta ondoren Tolosa-Goierrikoa (-%4,1) eta Aiarakoa (%4,5).
- 2008 eta 2013 bitartean, %8,1 egin dute gora eskualdeen arteko desberdintasunek industri sektorearen pisuaren aldetik –berez oso handiak-, eskualde-sakabanaketaren tasaren aldakuntzak erakusten duenez, hain zuzen ere hasieran ere industri sektorean pisu txikiagoa zuten hainbat eskualdetako murrizpen handiagoaren ondorioz.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.20. 250 lanpostu edo gehiagoko industri establezimenduetako lanpostuak (1.000 biztanleko)


Definizioa eta iturriak

250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduetako lanpostuen kopurua da 1.000 biztanleko. Eginko jardueretan partaidetza aktiboa izan duten soldatako pertsonen urteko batez bestekoetan zenbatzen dira lanpostuak, lanaldi osoko lanpostuetan betiere. Diruz, gauzaz edo enpresako etekinetan parte hartuz izan daiteke ordainsaria. Era guztietan lan-eskua biltzen du: Jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, etengabeko partaidetza edo etena duten famili laguntzak, soldatako langile finko iraunkorrak edo ez iraunkorrak eta aldi baterako soldatakoak.

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoria.

Eskuragarri ditugun azken datuak


250 lanpostu edo gehiagoko industriko lanpostuak, 1.000 biztanleko EAE 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoria.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

250 lanpostu edo gehiagoko industri lanpostuen eskualde banaketa eta 25 lanpostu edo gehiagoko industriko lanpostuen indizea (1.000 biztanleko) EAE=100. 2013



Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoria.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.20. 250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduetako lanpostuak (1.000 biztanleko)

Bilakaera

250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduetako 1.000 biztanleko lanpostuen kopuruaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2013

	2008		2013		2008-2013
	≥ 250 enpl. Industri lanp. (bizt. ‰)	Sailkapena	≥ 250 enpl. Industri lanp. (bizt. ‰)	Sailkapena	Aldak. %
Araba	48,1	--	38,0	--	-20,9
Gasteiz	42,3	4.a	32,6	4.a	-22,8
Aiara	85,0	2.a	72,6	2.a	-14,6
Bizkaia	20,1	--	13,4	--	-33,2
Eskuinaldea	20,4	8.a	20,1	7.a	-1,1
Bilbo	6,3	11.a	2,9	11.a	-53,3
Ezkerraldea	24,6	7.a	13,3	8.a	-46,0
Bizkaiko Kostaldea	27,9	6.a	23,4	6.a	-16,0
Durangaldea	38,0	5.a	24,5	5.a	-35,5
Gipuzkoa	33,6	--	24,9	--	-25,8
Donostialdea	14,6	9.a	10,7	10.	-26,7
Tolosa-Goierri	55,4	3.a	45,7	3.a	-17,6
Deba Garaia	156,1	1.a	106,2	1.a	-32,0
Deba Barrena	12,9	10.a	12,0	9.a	-7,2
EAE	28,5	--	20,8	--	-27,1
EST	94,2	--	89,4	--	-5,1

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Emaizta nagusiak

- 1.000 biztanleko, 20,8 enplegatu daude EAEn 250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduetan. Establezimendu horietan 1.000 biztanleko lanpostu gehien dituzten eskualdeak honako hauek dira: Deba Garaia (106,2), Aiara (72,6), Tolosa-Goierri (45,7) eta Gasteiz (32,6). Eskualde horietan, zuzenean edo zeharka industri enplegua sortzen duten industri enpresa handiak daude. Adierazle honen portzentajerik txikiak, berriz, Bilbon (2,9), Donostialdean (10,7), Deba Barrenean (12) eta Ezkerraldean (13,3) daude.
- 250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduen lanposturik gehienak Gasteizen, Deba Garaian, Tolosa-Goierriin, Ezkerraldean eta Donostialdean daude. Bost eskualde horietan mentatzen da lanpostu horien %69, EAE osoarekiko duten populazioaren %60,7aren aldean.
- 2008. urtetik, %27,1 jaitsi da 250 enplegatu edo gehiagoko industri establezimenduetako lanpostuen kopurua. Eskualde guztietan gertatu dira jaitsierak adierazle horretan, bereziki Bilbon (-%53,3), Ezkerraldean (-%46), Durangaldean (-%35,5) eta Deba Garaian (-%32). Jaitsiera txikiagoa izan da, berriz, Eskuinaldean (-%1,1), Deba Barrenean (-%7,2), Aiaran (-%14,6), Bizkaiko Kostaldean (-%16), Tolosa-Goierriin (-%17,6) eta Gasteizen (-%22,8).
- Beste adierazle batzuetan legez, 2008 eta 2013 bitartean behera egin dute eskualdeen arteko desberdintasunek adierazle honi dagokionez; %5,1ekoa eskualde-sakabanaketaren tasan. Eskualdeen arteko desberdintasun txikiagoa gertatu da zenbait eskualderen joera txarragoatik; izan ere, 2008an balio handiagoak zituzten adierazle honetan.

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.21. Teknologia handiko sektoreetako langileen kopurua, 1.000 biztanleko


Definizioa eta iturriak

Teknologia maila handia nagusi den sektoreetan dihardutenen kopurua da, lanean ari diren 1.000 biztanleko.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)

Eskuragarri ditugun azken datuak


Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kopurua, 1.000 biztanleko EAE 2011



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Teknologia maila handiko sektoreetako langileen eskualde banaketa eta teknologia maila handiko sektoreetako langileen indizea 1.000 langileko, EAE=100. 2011



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)

2. MODULUA. EKONOMIA ETA LAN-MERKATUA

2.21. Teknologia maila handiko sektoreetako langileen kopurua (1.000 biztanleko)

Bilakaera

Teknologia maila handiko sektoreetako 1.000 biztanleko langileen kopuruaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2007-2011

	2007		2011		2007-2011
	Tekn. maila handiko okup. ‰	Sailkapena	Tekn. maila handiko okup. ‰	Sailkapena	Aldak. ‰
Araba	129,6	--	125,8	--	-2,9
Gasteiz	130,4	7.a	125,2	6.a	-4,0
Aiara	124,2	8.a	129,1	5.a	3,9
Bizkaia	116,7	--	107,3	--	-8,0
Eskuinaldea	140,0	6.a	103,3	10.a	-26,2
Bilbo	109,0	9.a	104,5	9.a	-4,1
Ezkerraldea	91,0	11.a	94,8	11.a	4,1
Bizkaiko Kostaldea	141,9	5.a	114,2	7.a	-19,5
Durangaldea	161,9	3.a	152,1	4.a	-6,0
Gipuzkoa	126,3	--	143,8	--	13,9
Donostialdea	92,1	10	113,7	8.a	23,5
Tolosa-Goierrri	200,4	2.a	170,9	3.a	-14,7
Deba Garaia	229,6	1.a	268,7	1.a	17,0
Deba Barrena	149,2	4.a	204,0	2.a	36,8
EAE	121,8	--	122,3	--	0,4
EST	28,5	--	35,1	--	23,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza)

Emaizta nagusiak

- EAEn, batez beste, 122,3 langile ari ziren lanean 2010ean teknologia maila handiko sektoreetan, 1.000 langileko. Deba Garaia da adierazle honetako portzentajerik handiena duena (268,7), eta ondoren Deba Barrena (204), Tolosa Goierri (170,9) eta Durangaldea (152,1). Adierazle honen baliorik txikienak, berriz, Ezkerraldean (94,8), Eskuinaldean (103,3), Bilbon (104,5) eta Donostialdean (113,7).
- Teknologia maila handiko sektoreetan lanean ari diren gehienak (EAEko langile guztien %60,6) hiri eskualderik populatuenetan daude kokaturik, gehienbat Donostialdean (%20,7), Ezkerraldean (%13,6), Gasteizen (%13,5) eta Bilbon (%12,8), lau eskualde horietako langile guztien %68aren aldean.
- 2007. urtetik, teknologia maila handiko langileen 1.000 biztanleko kopurua %0,4 hazi da eta, beraz, egonkortasuna nagusi dela esan daiteke. Epealdi horretako bilakaeran, eboluzio bereziak ageri dira eskualdeen artean, eta igoerak izan dira Deba Barrenean (%36,8), Donostialdean (%23,5), Deba Garaian (%17%), Ezkerraldean (%4,1) eta Aiaran (%3,9). Gainontzeko eskualdeetan, jaitsiera gertatu da adierazle honetan, eta bereziki handia izan da Eskuinaldean (-%26,2), Bizkaiko Kostaldean (-%19,5) eta Tolosa-Goierrin (-%14,7).
- Bilakaera horren ondorioz, 2007 eta 2011 bitartean, gora egin dute eskualdeen arteko desberdintasunek teknologia maila handiko okupazioari dagokionez; hala, %23,2ko igoera izan da eskualde-sakabanaketaren tasa.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.1. Laneko batez besteko errenta

Definizioa eta iturriak


Gutzizko errenta pertsonalen batura zati kasuan kasuko erreferentziako lurraldean bizi diren 18 urteko eta gehiagoko pertsonen batura egin behar da adierazlea kalkulatzeko. 18 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzari honako hauek gehitzearen emaitza da gutzizko errenta pertsonala: laneko errentak, jardura ekonomikoen ondoriozko errentak, transferentzia edo prestazio sozialak eta kapitalagatik jasotakoak, higigarrienak nahiz higiezinak.

Errentaren eskualde-banaketa (hots, gutzizko errentatik lurralde bakoitzari dagokion portzentajea), eskualde bakoitzak EAEko batez bestekoarekin duen egoera eta adierazleak 2009 eta 2011 bitartean izandako bilakaera ere badakartza fitxa honek. Era berean, 2008 eta 2013 bitartean eskualde-sakabanaketaren tasan izandako aldaketa ere biltzen du.

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Eskuragarri ditugun azken datuak


Laneko batez besteko errenta. EAE 2011



Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Errentaren eskualde banaketa eta errenta pertsonalaren indizea, EAEko batez bestekoa=100. 2011



Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.1. Batez besteko errenta pertsonala

Bilakaera

Batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2009-2011

	2009		2011		2009-2011
	Laneko batez. b. errenta	Sailkapena	Laneko batez. b. errenta	Sailkapena	Aldak. %
Araba	19.657,0	--	20.148,0	--	2,5
Gasteiz	19.732,8	6.a	20.206,3	5.a	2,4
Aiara	19.150,2	9.a	19.787,7	7.a	3,3
Bizkaia	19.241,0	--	19.187,0	--	-0,3
Eskuinaldea	23.120,9	1.a	23.233,6	1.a	0,5
Bilbo	20.081,0	4.a	19.787,0	8.a	-1,5
Ezkerraldea	16.859,0	11.a	16.816,5	11.a	-0,3
Bizkaiko Kostaldea	19.506,8	7.a	19.909,3	6.a	2,1
Durangaldea	19.127,4	10.a	19.071,3	10.a	-0,3
Gipuzkoa	20.270,0	--	20.396,0	--	0,6
Donostialdea	20.334,7	3.a	20.399,7	4.a	0,3
Tolosa-Goierrri	20.024,9	5.a	20.636,6	3.a	3,1
Deba Garaia	21.041,5	2.a	20.896,2	2.a	-0,7
Deba Barrena	19.351,5	8.a	19.515,2	9.a	0,8
EAE	19.631,0	--	19.715,0	--	0,4
Bilbo	20.081,0	--	19.787,0	--	-1,5
Donostia	23.054,0	--	23.008,0	--	-0,2
Gasteiz	19.980,0	--	20.465,0	--	2,4
EST	7,2	--	7,3	--	2,5

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Emaitza nagusiak

- EAEko batez besteko errenta pertsona, 2011n, 19.715 euro zen urtean. Batez besteko horren gainetik daude honako eskualde hauek: Eskuinaldea (23.233,6€), Deba Garaia (20.896,2€), Tolosa-Goierrri (20.636,6€), Donostialdea (20.399,7€), Gasteiz (20.206,3€), Bizkaiko Kostaldea (19.909,3€), Aiara (19.787,7€) eta Bilbo (19.787€). EAEko batez besteko errenta pertsonalaren azpitik daude Ezkerraldea (16.816,5€), Durangaldea (19.071,3€) eta Deba Barrena (19.515,2€). Muturreko balioak dituzten bi eskualdeak EAEko batez bestekoaren %118 eta %85 dira hurrenez hurren.
- Errentaren zatirik handiena hirigune populatuenetan metatzen da hala nola Donostialdean (errentaren %22,3), Bilbon (%16,5), Ezkerraldean (%15,6) eta Gasteizen (%12,9). Hala, lau eskualde horietan biltzen da errentaren %67,3; 2011n, berriz, 18 urteko eta gehiagoko EAEko populazioaren %68,9 biltzen zuten. Hiru hiriburuek EAEko batez bestekoaren gaineko errenta pertsonala dute; handiena Donostian ageri da (23.008€), eta ondoren Gasteizen (20.465€) eta Bilbon (19.787€).
- 2009. urtearen aldean, %0,4 handitu da EAEn batez besteko errenta pertsonala. Eskualdez eskualde, igoerak izan dira Aiaran (%3,3), Tolosa-Goierrri (%3,1), Gasteizen (%2,4), Bizkaiko Kostaldean (%2,1), Deba Barrenean (%0,8) eta Eskuinaldean (%0,5). 2009koaren oso antzeko mailari eutsi zaio Donostialdean (%0,3), Durangaldean (-%0,3) eta Ezkerraldean (-%0,3), eta jaitsera gertatu da errentaren mailan, berriz, Bilbon (-%1,5) eta Deba Garaian (-%0,7). Bilboren kasua esanguratsu da, zeren eta, bi urtean besterik ez, errenta pertsonalik handieneko eskualdeen artean egotetik errentarik txikiak dituzten eskualdeen taldera igaro baita.
- 2009 eta 2011 bitartean, %2,5 egin dute gora errenten desberdintasunek eskualdeen artean, eskualde-sakabanaketaren tasaren bilakaerak erakusten duenez.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.2. Laneko batez besteko errenta pertsonala


Definizioa eta iturriak

Gutzizko errenta pertsonalen batura zati kasuan kasuko erreferentziako lurraldean bizi diren 18 urteko eta gehiagoko pertsonen batura egin behar da adierazlea kalkulatzeko. Laneko errenta deritza enplegatzaile batek soldatakoari ordaindutako guztizko ordainsaria, diruzkoa edo ez diruzkoa, hain zuen ere soldatakoak sarreraren erreferentziako epealdian eginiko lanagatik.

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.


Laneko batez besteko errenta pertsonala. EAE 2011



Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Laneko errentaren eskualde banaketa eta laneko errenta pertsonalaren indizea, EAEko batez bestekoa=100. 2011



Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.2. Laneko batez besteko errenta pertsonala

Bilakaera

Laneko batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea.
EAE 2009-2011

	2009		2011		2009-2011
	Laneko errenta pertsonala	Sailkapena	Laneko errenta pertsonala	Sailkapena	Aldak. %
Araba	12.691,7	--	12.768,8	--	0,6
Gasteiz	12.738,0	2.a	12.777,3	5.a	0,3
Aiara	12.396,1	6.a	12.714,0	7.a	2,6
Bizkaia	12.173,7	--	12.164,3	--	-0,1
Eskuinaldea	14.758,5	1.a	14.833,8	1.a	0,5
Bilbo	12.285,0	9.a	12.062,0	9.a	-1,8
Ezkerraldea	10.831,0	11.a	10.774,2	11.a	-0,5
Bizkaiko Kostaldea	12.536,5	4.a	12.934,3	3.a	3,2
Durangaldea	12.477,0	5.a	12.720,5	6.a	2,0
Gipuzkoa	12.287,3	--	12.491,1	--	1,7
Donostialdea	12.331,2	8.a	12.381,4	8.a	0,4
Tolosa-Goierrri	12.353,1	7.a	12.795,0	4.a	3,6
Deba Garaia	12.615,2	3.a	13.357,6	2.a	5,9
Deba Barrena	11.416,0	10.a	11.842,0	10.a	3,7
EAE	12.284,8	--	12.357,2	--	0,6
Bilbo	12.285,0	--	12.062,0	--	-1,8
Donostia	13.530,0	--	13.617,0	--	0,6
Gasteiz	12.970,0	--	12.989,0	--	0,1
EST	7,4	--	7,5	--	2,4

Iturria: Hauxe oinarri hartuta eginikoa: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Emaitza nagusiak

- Laneko batez besteko errenta pertsonala EAEn 12.357,2 euro da urtean 2011n. Batez bestekoaren gaitetik ageri dira Eskuinaldea (14.833,8€), Deba Garaia (13.357,6€), Bizkaiko Kostaldea (12.934,3€), Tolosa-Goierrri (12.795€), Gasteiz (12.777,3€), Durangaldea (12.720,5€), Aiara (12.714€) eta Donostialdea (12.381,4€). Hala ere, hiru eskualde daude EAEko laneko batez besteko errenta pertsonalaren azpitik: Ezkerraldea (10.774,2€), Deba Barrena (11.842€) eta Bilbo (12.062€).
- Laneko errentaren zatirik handiena populazio handieneko eskualdeetan metatzen da hala nola Donostialdean (laneko errentaren %21,6), Bilbon (%16), Ezkerraldean (%16) eta Gasteizen (%13). Hala, lau eskualde horietan metatzen da laneko errentaren %66,6; 2011n, berriz, 18 urteko eta gehiagoko EAEko populazioaren %68,9 biltzen zuten. Hiriburuei dagokienez, laneko errenta pertsonalik handiena Donostiakoa da (13.617€), eta ondoren -Gasteizkoa (12.989€) eta Bilbokoa (12.062€).
- 2009. urtearen aldean, laneko batez besteko errenta pertsonala %0,6 hazi da EAEn. Eskualdez eskualde, hazkunderik handienak eskualde hauetan bildu dira: Deba Garaian (%5,9), Deba Barrenean (%3,7), Tolosa-Goierrin (%3,6), Bizkaiko Kostaldean (%3,2), Aiaran (%2,6), Durangaldean (%2) eta Eskuinaldean (%0,5). 2009koaren antzeko mailari eutsi zaio Donostialdean (%0,4) eta Gasteizen (%0,3), eta jaitsi egin da Bilbon (-%1,8) eta Ezkerraldean (-%0,5).
- 2009 eta 2011 bitartean %2,4 handitu dira errentaren desberdintasunak eskualdeen artean, eskualdesakabanaketaren tasak erakusten duenez.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.3. Errenta mediana baliokidea


Definizioa eta iturriak

Familien errenta baliokideen bitartekoa biltzen du adierazle honek, eta erreta horiek kalkulatzeko, familien hileko sarrerak zati familia horren tamaina baliokidea egin behar da, baina familiako kideen haztapen desberdina da honako hauen arabera: Lehen pertsona heldua: 1.0; Pertsona heldu osagarri guztiak: 0.7; 14 urtetik beherakoen kargura dagoen pertsona bakoitzeko: 0.5. Bitarteko balioak ezartzen du errenta baliokide handiena duen populazioaren %50 eta errenta baliokide txikiena duen populazioaren %50aren ariketa banaketa-lerroa.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (PGDI).

Eskuragarri ditugun azken datuak


Errenta mediana baliokidea. EAE 2012



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta (PGDI).

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Errentaren eskualde banaketa (2011) eta errenta mediana baliokidearen indizea, EAEko batez bestekoa=100 (2012)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta (PGDI). / EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.3. Errenta mediana baliokidea

Bilakaera

Errenta mediana baliokidearen bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Errenta mediana baliokidea	Sailkapena	Errenta mediana baliokidea	Sailkapena	Aldak. %
Gasteiz	1.490,5	6.a	1.523,0	8.a	2,2
Aiara	1.483,8	8.a	1.610,1	2.a	8,5
Eskuinaldea	1.732,2	1.a	1.533,9	6.a	-11,5
Bilbo	1.539,3	3.a	1.540,7	5.a	0,1
Ezkerraldea	1.310,5	11.a	1.305,9	11.a	-0,3
Bizkaiko Kostaldea	1.510,2	5.a	1.528,5	7.a	1,2
Durangaldea	1.489,0	7.a	1.449,6	10.a	-2,7
Donostialdea	1.439,4	10.a	1.543,0	4.a	7,2
Tolosa-Goierri	1.527,0	4.a	1.521,2	9.a	-0,4
Deba Garaia	1.548,5	2.a	1.637,0	1.a	5,7
Deba Barrena	1.448,5	9.a	1.583,5	3.a	9,3
EAE	1.474,9	--	1.494,9	--	1,4
EST	6,4	--	5,5	--	-13,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta (PGDI).

Emaitza nagusiak

- 2012an, EAEko errenta mediana baliokidea 1.494,9€ zen pertsonako eta hileko, hots, populazioaren %50ak zifra horretatik gorako errenta baliokidea du eta gainerako %50ak, berriz, errenta txikiagoa du. Eskualdez eskualde, errenta mediana baliokide nagusia Deba Garaian dago (1.637€), eta ondoren Aiaran (1.610,1€) eta Deba Barrenean (1.583,5€). EAEko batez bestekoaren azpitik daude, ordea, Ezkerraldea (1.305,9€) eta Durangaldea (1.449,6€).
- Ezkerraldearen errenta mediana baliokidea EAEko batez bestekoaren %87 da, eta eskualde horretan izan ezik, gainerako eskualdeetan, gertu daude EAEko batez bestekotik.
- 2008koaren aldean, errenta mediana baliokidea %1,4 hazi da EAEn. Alabaina, jokabide desberdina antzematen da eskualdeen arabera. Igoera handiak erregistratu dira Deba Barrenean (%9,3), Aiaran (%8,5), Donostialdean (%7,2) eta Deba Garaian (%5,7), baina bilakaera negatiboa ageri da Eskuinaldean (-%11,5) eta Durangaldean (-%2,7). 2008koaren antzeko zifrei eusten zaie Bilboko (%0,1), Ezkerraldeko (-%0,3) eta Tolosa-Goierriko (-%0,4) eskualdeetan.
- 2008 eta 2012 bitartean, %13,8 murriztu dira eskualdeen arteko desberdintasunak errenta mediana baliokidearen aldetik, eskualde-sakabanaketaren tasak adierazten duenez. Sakabanaketa horretan zehar izan du Eskuinaldean izandako egoera okerragoa; izan ere, 2008an errenta mediana baliokide-rik handiena zuen eskualdea zen. Gainera, Donostialdearen eta Deba Barrenaren hobekuntzak ere izan du eragina: 2008an 10. eta 9. tokian zeuden hurrenez hurren.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.4. Pobrezia errearen tasa


Definizioa eta iturriak

Pobrezia tasa errealak pobrezia errealean dauden pertsonen portzentajea adierazten du populazio osoarekiko. Pobrezia errearen adierazleak pobreziaren benetako eraginerako hurbilketa eskatzen du, arrisku-faktoreak izatetik harago, hala nola sarreren aldetik (mantentze-pobrezia) edo epe luzerako bizi-baldintzen eta familien erreserbako ondarearen aldetik (metatze-pobrezia). Neurriaren bidez, beharrak besteko nahikoa ez diren eta arrisku egoera agertzen duten inguruabarrak konpentsatu nahi dira populazioaren eguneroko bizitzan, gure gizartean espero den gutxieneko ongizate mailara iristeko. Pobrezia errearen eskualde-banaketa, eskualde bakoitzak batez bestekoarekiko duen egoera eta adierazleak 2008 eta 2012 bitartean izandako bilakaeraz gain, 2008 eta 2013 bitartean adierazle honen eskualde-sakabanaketaren tasan izandako aldaketa ere bildu da.

Eskuragarri ditugun azken datuak

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (PGDI).


Pobrezia errearen tasa. EAE 2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

Banaketa eta diferentziak EAErekiko

Pobrezian dauden pertsonen eskualde banaketa eta pobrezia errearen tasaren indizea, EAEko batez bestekoa=100.2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.4. Pobrezia errearen tasa

Bilakaera

Pobrezia errearen tasaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Tasa	Sailkapena	Tasa	Sailkapena	Aldak. %
Araba	4,1	--	5,6	--	36,6
Gasteiz	4,4	3.a	6,2	2.a	40,9
Aiara	2,3	7.a	2,2	9.a	-0,7
Bizkaia	5,2	--	6,1	--	17,3
Eskuinaldea	3,0	5.a	5,1	4.a	71,9
Bilbo	7,6	1.a	9,5	1.a	25,5
Ezkerraldea	5,6	2.a	5,8	3.a	3,2
Bizkaiko Kostaldea	2,0	8.a	2,9	7.a	46,4
Durungaldea	2,8	6.a	2,4	8.a	-14,9
Gipuzkoa	2,5	--	3,8	--	52,0
Donostialdea	3,1	4.a	4,1	6.a	30,5
Tolosa-Goierri	1,3	10.a	4,5	5.a	241,4
Deba Garaia	0,4	11.a	2,0	11.a	347,2
Deba Barrena	1,8	9.a	2,2	10.a	22,4
EAE	4,2	--	5,3	--	26,7
EST	62,9	--	51,6	--	-18,0

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

Emaitza nagusiak

- Pobrezia errearen tasarik txikiena duten eskualdeak honako hauek ziren 2012an: Deba Garaia (%2,0), Deba Barrena (%2,2), Aiara (%2,2), Durungaldea (%2,4) eta Bizkaiko Kostaldea (%2,9). Pobrezia errearen tasarik handienak, berriz, Bilbon (%9,5), Gasteizen (%6,2), Ezkerraldean (%5,8) eta Eskuinaldean (%5,1). EAEko pobrezia errearen batez besteko tasatik hurbilago (%4,2) Gipuzkoako Donostialdea (%4,1) eta Tolosa-Goierri (%4,5) daude.
- Eskualdeen arteko egoera desberdina zen 2012an, argi eta garbi; izan ere, EAEko batez bestekoaren %180 eta %37 bitarteko tasak ageri dira.
- Oro har pobrezia tasarik eta populaziorik handienak dituztenez gero, hiri eskualdeetan metatzen da pobrezia errealean dauden pertsona gehien: Bilbo (%27,6), Ezkerraldea (%19,8), Donostialdea (%16,8) eta Gasteiz (%15,1). Lau eskualde horietan metatzen da pobrezia errealeko kasu guztien %79,4, eta bertan bizi dira EAEko populazioaren %68.
- 2008aren aldean, pobrezia errearen tasaren igoerarik handiena Gipuzkoako Tolosa-Goierri eta Deba Garaian izan dira, baina batez bestekoaren azpitik jarraitzen dute hala ere. Eskuinaldean ere izan da hazkunde handia, halako moldez non 2012an pobrezia tasarik handiena duten lau eskualdeen artean egotera igaro baita. 2008 eta 2012 bitartean, berriz, pobrezia errealak behera egin du Durungaldean, eta pixka bat Aiara bailaran.
- 2008 eta 2012 bitartean, bateratzeko joera izan da pobreziaren tasa eskualdeen artean, zeren eta epealdi horretan %18 murriztu baita eskualde-sakabanaketa. Sakabanaketa txikiago horretan eragin izan zezaketen abiapuntuko posizio erlatibo hobearen zuten eskualdeetako pobrezia tasaren igoera nabarmenek, hala nola Tolosa-Goierri, Deba Garaian edo Bizkiko Kostaldean.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.5. Haurren pobrezia-tasa


Definizioa eta iturriak

Pobrezian dauden 14 urtetik beherakoen portzentajea da haurren pobrezia tasa, 14 urtetik beherako populazio osoaren gainean. Oinarrizko beharrei epe laburrean aurre egiteko nahikoa diru-baliabide ez izateari deritzo mantentze-pobrezia, bereziki janariaren, etxebizitzaren, oinetakoen eta jantziaren gaineko gastuei aurre egiteko. Pobrezia arrisku egoera larrian daude epealdi jakin batean oinarrizko behar horiei aurre egiteko aipaturiko atalasetik beherako sarrerak dituzten familiak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta (PGDI).

Eskuragarri ditugun azken datuak


Haurren pobrezia-tasa. EAE 2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Pobrezian dauden 14 urtetik beherako pertsonen eskualde banaketa eta haurren pobrezia-tasaren indizea, EAEko batez bestekoa=100. 2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.5. Haurren pobreziaren tasa

Bilakaera

Haurren pobrezia-tasaren bilakaera eta ehunekoaren aldakuntza. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Tasa	Sailkapena	Tasa	Sailkapena	Puntuoen aldak. %
Gasteiz	9,5	2.a	14	2.a	4,5
Aiara	1,5	9.a	3,5	8.a	2,0
Eskuinaldea	5,9	5.a	8,2	5.a	2,3
Bilbo	15,7	1.a	16	1.a	0,3
Ezkerraldea	8,4	4.a	12,8	3.a	4,4
Bizkaiko Kostaldea	4,3	6.a	3,2	10.a	-1,1
Durungaldea	9,5	3.a	6,6	6.a	-2,9
Donostialdea	4,2	7.a	4,2	7.a	0,0
Tolosa-Goierrri	0	10.a	10,8	4.a	10,8
Deba Garaia	0	11.a	2,6	11.a	2,6
Deba Barrena	3,6	8.a	3,3	9.a	-0,3
EAE	7,3	--	9,5	--	2,2
EST	79,9	--	60,5	--	-24,3

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

Emaitza nagusiak

- 2012an, EAEn bizi diren 14 urtetik beherakoen %9,5 bizi ziren pobrezian. Haurren pobrezia-tasarik handiena Bilbori dagokio (%16), eta ondoren Gasteiz (%14), Ezkerraldea (%12,8) eta Tolosa-Goierrri (%10,8) daude. Haurren pobrezia-tasarik txikiena, berriz, eskualde hauetan ageri da: Deba Garaian (%2,6), Bizkaiko Kostaldean (%3,2), Deba Barrenean (%3,3) eta Aiaran (%3,5).
- Pobrezia errearen tasa globalean gertatzen zen legez, aldagarritasun handia dago eskualdeen artean adierazle honi dagokionez; izan ere, EAEko batez bestekoaren %168 eta %27 bitarteko tasak daude.
- Pobrezian bizi diren 14 urtetik beherakoen kopururik handiena hiri eskualdeetan metatzen dira, hala nola Bilbon (%24,7), Ezkerraldean (%23,8) eta Donostialdean (%18,5).
- 2008aren aldean, %2,2 hazi da haurren pobrezia-tasa, eta hazkunderik handienak eskualde hauetan izan da: Tolosa-Goierrri (10,8 puntu portzentual), Gasteizen (4,5), Ezkerraldean (%4,4) eta Deba Garaian (%2,6). 2008 eta 2012 bitartean, berriz, behera egin du haurren pobrezia-tasak Durungaldean (-2,9 puntu portzentual), Bizkaiko Kostaldean (-1,1) eta ia ez da aldatu Deba Barrenean (-0,3), Donostialdean (0) eta Bilbon (0,3).
- 2008 eta 2012 bitartean, gutxitu egin dira EAEko eskualdeen arteko desberdintasunak haurren pobrezia-tasari dagokionez, zeren eta %24,3 murriztu baita eskualde-sakabanaketaren tasa aldi horretan. 2008an egoera hoberekin abiatu ziren eskualdeetan izandako okertze handiagogatik gertatu da, gehienbat, sakabanaketa txikiagoa.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.6. Ongizaterik ezaren tasa


Definizioa eta iturriak

Ongizaterik ez duten pertsonen portzentajeak adierazten du, ongizaterik ezaren tasak populazio osoaren gainean. Gizarte jakin batean epe laburrean funtsezkotzat jotako gastuei aurre egiteko nahikoa dirubaliabiderik ez izateari deritzo ongizaterik eza, hain zuzen ere gizarte horretako bizimoduan, ohituretan eta ohiko jardueretan gutxieneko parte-hartzea izateko. Ongizaterik ez izateko arriskuan daude, erreferentziako epealdian, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate mailak eskuratzeko aipaturiko atalasetik beherako sarrerak ez dituzten familiak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta (PGDI).

Eskuragarri ditugun azken datuak


Ongizaterik ezaren tasa. EAE 2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

Banaketa eta diferentziak EAerekiko

Ongizaterik ezaren pertsonen eskualde banaketa eta ongizaterik ezaren tasaren indizea, EAEko batez bestekoa=100.2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte desberdintasunen Inkesta.

3. MODULUA. BIZI-BALDINTZAK

3.6. Ongizaterik ezaren tasa

Bilakaera

Ongizaterik ezaren tasaren bilakaera eta aldakuntzaren portzentajea. EAE 2008-2012

	2008		2012		2008-2012
	Tasa	Sailkapena	Tasa	Sailkapena	Aldak. %
Araba	6,5	--	9,7	--	49,2
Gasteiz	6,6	3.a	10,8	3.a	63,6
Aiara	6,2	5.a	3,5	11.a	-43,5
Bizkaia	10,1	--	11,3	--	11,9
Eskuinaldea	5,7	6.a	9,1	5.a	59,6
Bilbo	13,8	1.a	13,6	1.a	-1,4
Ezkerraldea	11,8	2.a	12,4	2.a	5,1
Bizkaiko Kostaldea	5,2	7.a	6	10.a	15,4
Durantaldea	3,5	10.a	10,3	4.a	194,3
Gipuzkoa	5,7	--	8,2	--	43,9
Donostialdea	6,6	4.a	8,7	6.a	31,8
